

D. H. Lawrence

Birjina eta ijitoa

euskaratzailea: Irene Aldasoro

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Irene Aldasoro.

Euskarazko edizioa: Literatura unibertsala, 1994

Jatorrizkoaren data: 1930

D.H. Lawrence euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=34>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=1719>

HITZAURREA

David Herbert Lawrence, Arthur Lawrence eta Lydia Beardsallen laugarren haurra, XX. mendeko nobelagile ingeles garrantzitsu eta eztabaidatuenetakoa izango dena, Eastwooden jaio zen 1885ean. Meatzaria zuen aita eta eskola-maistra ohia ama. Bera ere irakasle izan zen urte batzuetan, 1912an tuberkulosiak irakaskuntza uztera behartu zuen arte.

Gazterik hasi zen idazten, eta bere lehen poema eta nobelek (*The White Peacock*, *The Trespasser*) barrera ona izan zuten Londresko mundu literarioan, Ford Madox Ford eta Edward Garnett-en eskutik sarrera egin ondoren.

1912an ezagutzen du Frieda von Richthofen emakume aristokratikoa, hizkuntza modernoetako irakasle baten emaztea. Harekin ihes egiten du kontinentera, eta orduan hasten da Lawrence-eren bizitza ibiltaria, hil arteraino munduan zehar batera eta bestera eramango duena. Lawrence eta Frieda 1914an Ingalaterrara itzuli eta ezkondu ziren. Bien bitartean *Sons and Lovers*,

heldutasun aroko lehen nobela, argitaratua zen, eta, nahiz salmenta handirik ez lortu, sona handia eman zion.

Lehen Mundu Gerrako urteak urte ilunak izan ziren Lawrencearentzat. The Rainbow argitaratu bezain pronto debekatua izan zen lizuna zela iritzita, eta *Women in Love* argitaratuko zionik ez zuen aurkituko askoz berandurago arte. Kolpe horretaz gain, Ingalaterratik irten ezinak, gaixotasunak, bizibide gero eta murrizagoak, zenbait laguneren desertzioak, zerbitzu militarerako azterketa umiliagarriak, ia desesperaziora eta misantropiara, bere «amesgaiztora», eramanez zuten.

Gerra amaitzean Ingalaterra utzi eta mendealdeko zibilizazio industrializatua baino bizimodu asebetegarriago baten bila, Europatik alde egin nahian, Indiara, Australiara eta Mexikora jo zuen. Beti ibilian, idazteari utzi gabe, bere bizitza laburrean idazlan kopuru handia sortuko du, eta genero guztiak erabiliko, bere filosofia pertsonala eta munduaren ikuspegia garatzeko. 1925ean berriro Europara itzulita, Lawrencek azken urteak gehienbat pintatzen eta bere azken nobe-

la «eskandalagarria», *Lady Chatterley's Lover*, idazten eta berridazten pasatu zituen. 1930ean hil zen Frantzian 44 urte zituela.

Gerra ondorengo hamarkadan Lawrence-ren fama alde guztietara zabaldu zen eta miresmen bezain arbuio itsuak sortarazi zituen aldeko eta kontrakoan artean. Ordena zaharra mehatxatzen bide zuten eragin iraultzaileen iruditza hartua izan zen eta hein horretan gaitzetsia eta goretsia. Eta ez beti ondo ulertua.

Birjina eta Ijtoa-ren istorioan, nobela laburren saileko maisulan gehienetan bezala, gai lawrenziano nagusiak osatuki kondentsaturik aurkitzen dira eta neurrian orekatuak «mezua» eta artea.

Lawrence-ren ustea da mendebaldeko zibilizazioko gizona arrazoiak, zientziak eta kulturak bizigabeturik eta antzaturik dagoela, giza historiaren hasieran zuen edertasuna eta berezkotasuna galdua. Nola berreskuratu eta ekarri gure mundura oraindik etnia primitiboetan, adibidez Mexikoko indioen artean irauten duen izaki aske eta benetako gizontasunaren jabe den hori?

Gizonaren eta emakumearen haragizko elkartasunaren bidez, baina elkarketa hori errito sakratu bat bezala burutzeko kondiziotan. Lawrence-ren obra osoa maitasun falikoaren gorespena da, unibertsoarekin elkartasun mistikoa lortzeko bide den aldetik.

Birjina eta Ijitoaren hasieran, Yvette birjinaren ingurunea ezagutzen dugu, zibilizazio ustel horren irudi. Erretorearen alaba familia berekoi, faltsu, nazkagarri batean bizi da, Materraren legearen menpe. Lawrencek Materrarengan, zibilizazioa eta kultura adierazten duen matriarkatuan, deskargatuko du bere gorrotoa.

Egun batean Yvettek ijito bat topatzen du: basapiztien mailako izakia, ez jainko eta ez lege, gizartetik kanpo bizi dena; baina bi bertute begibistako eta ukaezin ditu: edertasuna eta lotsarik eza. Ijitoak bere presentzia hutsarekin aski du birjina inpresionatu eta menderatzeko. Yvettek ez du formulatzen ijitoaren aurrean sentitzen duena, ez baitaki zer den. Gorputzak, haragiak, jakingo du beharbada.

Lawrenceren ustez izakien arteko harremanak ez dira adimenez edo arrazoiz hautematen,

animalien artean bezala baizik, hurbilpen mutu eta sentsazio gama zabal baten bidez. Kontaktuzunean, ijitoen bizimodua eta Yvetteren inguru-nearen arteko oposizioa, ijitoa eta neskaren arteko harremanak, ez dira modu abstraktuan adierazten, baizik eta pertsonai, leku, begirada, keinu eta jarreraren deskribapenaren bidez sumatzen dira. Irudiz beteriko idazkeraz agertzen ditu Lawrencek subkontzientearen mailako intuizio eta mugidak, adimenak defini ez ditzakeen emozio eta sentsazioak.

BIRJINA ETA IJITOA

Bikarioaren emazteak gizon gazte arlote batekin ihes egin zuenean eskandaluak ez zuen mugarik izan. Haren bi neskatilek batak zazpi eta besteak bederatzi urte zituzten. Eta bikarioa hain zen senar ona. Egia, ilea zuriturik zuen. Baina bibotea iluna zuen, itxura ederrekoa zen, eta artean bere emazte menderakaitz eta ederrarenganako pasio ezkutuz betea.

Zergatik joan zen emakumea? Zergatik hartu eta alde egin zuen bat-bateko aldakuntza *éclat* harekin, eroaldiak emanda bezala?

Inork ez zuen garbitasunik eman. Jaieratsuek bakarrik esan zuten emakume gaiztoa zela. Emakume onetariko zenbaitzuk, berriz, isilik egon ziren. Bazekiten haiek.

Bi neskatilek ez zuten inoiz jakin. Minduak, erabaki zuten amak arbuigarri irizten zielako izan zela.

Inorentzat ezer onik ez dakarren haize bolada gaiztoak eraman zuen bikario-etxeko familia. Eta gero hara non, bikarioak, zeinek bai baitzuen

entsegulari eta eztabaidazale sona apur bat, eta haren kasuak sasi-letrauen artean elkartasuna piztu baitzuen, Papplewickeko eliza-onura jasotzen duen. Jainkoak ipar eskualdeko erretoretxearekin baretu zuen zorigaitzoko haizea.

Erretorearena harrizko etxe itsusika bat zen Papple ibaiaren ondoan, hernian sartu baino lehen. Aurrerago, bideak erreka gurutzatzen duen guneaz haruntzik, harrizko kotoi-errotak zahar handiak, garai batean urak zerabiltzanak, zeuden. Bideak bihurrika jarraitzen zuen aldapan gora herriko kale hotz harrizkoetara.

Bikario-etxeko familiak aldakuntza garbia izan zuen erretore-etxera lekualdatzearekin. Bikarioak, erretore orain, ama zaharra, arreba eta anaia ekarri zituen hiritik. Bi neskatilek oso ingurune ezberdina izan zuten lehengo etxekoaren aldean.

Erretoreak bazituen orain berrogeita zazpi urte; atsekabe bizi ez oso duina agertu zuen emaztearen hegaldiaren ondorenean. Andre errukitsuek galarazi zioten bere buruaz beste egitea. Ilea ia zurituri zuen eta eroaren begirakune tragikoa. Begiratzea nahikoa zuen, hura

guztia zeinen ikaragarria izan zitzaion eta zeinen bidegabeki tratatua izan zen konturatzeko.

Ordea, bazen lainoren bat nonbait. Eta andreetako batzuek, bikarioarenganako elkartasun sakona erakutsi zutenek, ez zuten beren baitan batere gogoko erretorea. Bazuen hark halako fariseukeria ezkutu bat, azken finean.

Neskatilek, jakina, hurrek ohi duten modu zehazabeen, familiaren erabakia onartu zuten. Amona, hirurogeita hamar urtetik gora zituena eta ikusmena galtzen zihoana, bihurtu zen pertsonai zentrala etxean. Izeba Cissie, berrogei urtetik gora zituena, zurbila, jaieratsua eta barne-har batek zimikatzen zuena, arduratzen zen etxeaz. Osaba Fred, berrogei urteko gizon zeken aurpegi-zimela, beretzako bakarrik narraski bizi zena, hirira joaten zen egunero. Eta erretorea zen, jakina, pertsonarik garrantzitsuen amonaren hurrena.

Materra esaten zioten amonari. Gorpuzkera arrunteko atso zahar argi horietakoa zen, etxeko gizonezkoen ahuleziak zurituz bizitza osoan beti berea egin zuena. Berehalaxe ezarri zuen bere legea. Erretoreak oraindik «maite zuen» emazte

lege-hauslea eta hil arteraino «maiteko zuen». Eta kito! Erretorearen sentimendua sakratua zen. Bihotzean erliki bihurturik zeukan esposatu eta gurtu zuen neskatxa garbia.

Kanpoko mundu gaiztoan, aldi berean, erretoreari traizio egin eta haren haurtxoak abandonatu zituen fama txarreko emakumea zebilen. Orain gizon gazte erdeinagarri bati uztarturik zegokion eta horrek ekarriko zion, zalantzarik gabe, merezi zuen gradu-galtzea. Hori zen ongi ulertu behar zena, eta kito! Zeren erretorearen bihotzeko goitasun garbian loretan baitzirauen oraindik andregai gaztearen elur-lili zuri garbiak. Elur-lili zuri hori ez zen zimeltzen. Beste izaki hark, gizon gazte erdeinagarri harekin joan zenak, ez zuen erretorearekin zerikusirik.

Materra, alargun eta etxe txiki batean bizi izanik zertxobait gutxietsia eta garrantzi gabetua egona, igo zen orain erretore-etxeko besaulki nagusira eta bertan ezarri zuen tinko bere mamitza. Ez zuten destronatuko. Maltzurki, hasperenezko omena egin zion elur-lili zuri garbiarenaganako erretoreak zuen leialtasunari, baina gaitzetsiko balu bezala egiten zuen. Semearen

maitasun handiarenganako gurtza maleziatsu gisara, ez zuen hitzik atera mundu gaiztoan loratzen zen asun haren, behin Arthur Saywellen andrea deitu zenaren aurka. Orain, Jainkoari eskerrak, berriro ezkondu zelarik, ez zen jada Arthur Saywellen andrea. Ez zen emakumerik erretorearen izena zeramanik. Elur-lili zuri garbia *in perpetuum* zegoen loretan, nomenklaturarik gabe. Gogoratu ere, Cynthia-zelako-hura bezala gogoratzen zuen familiak.

Ur horrek zerabilen Materraren errota. Horrek ematen zion Arthur berriz ezkonduko ez zen ziurtasuna. Ahulezia makalenetik zeukan harrapatuta semea: berekoikeria gordetik. Elur-lili zuri hilezkorra esposatu zuen. Gizon zoriontsua! Iraindua izan zen. Gizon dohakabea! Sufritu egin zuen. Oi! Hori bihotz maitasunez betea! Eta... barkatu egin zuen! Bai, elur-lili zuriari barkatu egin zitzaion. Testamentuan haren aldeko neurriak hartu ere egin zituen, zer eta gero lotsagabe hark... Baina ixo! Ezta pentsamenduz ere gehiegi hurbildu kanpoko mundu nazkagarriko asun gorrotagarri hari! Cynthia-zelako-hari.

Bego elur-lili zuria loretan iraganeko gailurretan helgaitz. Oraina beste istorio bat da.

Haurrak auto-santutze eta aipaezintasun giro sotil horretan izan ziren heziak. Haiek ere ikusi zuten elur-lilia gailur helgaitzetan. Haiek ere konturatu ziren bakarti zegoela tronuan distiraz beren bizitzetatik at, inoiz ukitzeko ez zela.

Aldi berean, kanpoko mundu lohitik berekoieria eta gordinkeria ustelaren usain txar nazkagarri bat etortzen zen batzuetan: Cynthia-zelako-haren, asun izugarri haren usaina. Asun horrek, izan ere, lortzen zuen tarteka neskei, bere hurrei, mezu bat helaraztea. Eta orduan Mater buruzuriari gorrotoak astintzen zion barrena. Zeren Cynthia-zelako-hura inoiz itzuliko balitz, Materrarenak egin zuen. Gorroto bafada sekretu bat lerratzen zen amona zaharrarengandik neskengana, gordinkeriazko asun zikin haren, Materra hain maitekiro mesprezatzen zuen Cynthia haren haurrengana.

Horrekin guztiarekin batera nahasirik, hurrek oso oroitzapen garbia zuten beren benetako etxearena, hegoaldeko bikario-etxearena, eta ama xarmangarri eta ez oso fidagarri Cyntiare-

na. Cynthiak distira handi bat sortzen zuen etxean, bizi-jario bat, eguzki bizkor arriskutsu baten gisara, beti joan-etorrian. Neskatilek beti argitasunarekin lotzen zuten haren presentzia, baina baita arriskuarekin ere: xarmarekin, baina berekoikeria beldurgarriarekin.

Joanik zen orain xarma, eta elur-lili zuria, porzelanazko lore-koroa baten gisara, hilobiaren gainean izozturik zegoen. Ezegonkortasun arriskua, berekoikeria estrainio arriskutsua, lehoiak eta tigreak bezalakoak ere joana zen. Orain egonkortasun osoa zegoen, bertan gal zitekeelarik bat arriskurik gabe.

Baina neskak hazten ari ziren. Eta hazten zihoazen heinean, gero eta nahastuago, gero eta katramilatuago zeuden. Materra zaharragotu eta itsuagotu egin zen. Norbaiten laguntza behar zuen mugitzeko. Eguerdi ingurua arte ez zen jaikitzen. Baina nahiz itsu edo ohean ezindurik egon, berak eramaten zuen etxea.

Gainera, ez zegoen ohean ezindurik. Gizonak etxean ziren guztietan, bere tronuan izaten zen Materra. Maltzurregia zen gortea zabartzeko. Batez ere, lehiakideak zituela.

Lehiakide gogorrena neska gazteena zuen, Yvette. Yvettek bazuen Cynthia-zelako-haren alaitasun lauso, arduragabetik pixka bat. Yvette, ordea, otzanagoa zen. Agian hartu zuen amonak garaian! Agian!

Erretoreak adoratu egiten zuen Yvette eta afektu txatxalez gaizki ohituta zeukan; esanez bezala: ez al naiz bada ni gizaseme bihozbera eta barkabera? Bere burua iritzi horretan eduki-tzea gustatzen zitzaion, eta Materrak zehatz-mehatz ezagutzen zituen haren ahuleziak. Ezagutzen zituen eta etekina ateratzen zien, semearen, semearen izaeraren, apaingarri bihurtuz. Erretoreak, beretzat, izaera liluragarri bat nahi zuen, emakumeek soineko liluragarriak nahi izaten dituzten bezala. Eta Materrak edertasun tantaz abilki estaltzen zizkion akats eta gabeziak. Ama-maitasunak ematen zion semearen ahulezien aztarna eta apaingarriz ezkututzen zizkion. Cynthia-zelako-hark, aitzitik...! Baina hura ez dago aipatzerik, horri dagokionean, Harentzat erretorea bizkar-konkorra eta idiota bat zen kasik.

Bitxiena zen, amonak bere artean Lucille, neska zaharrena, gorrotatzen zuela, Yvette losintxatua baino gehiago. Lucille, urduria eta hase-rrekorra, gehiago jabetzen zen amonaren mendean zeudela, Yvette gaizki-ohitua eta lausoa baino.

Bestalde, izeba Cissiek Yvetteri zion gorroto. Gorroto zion izenari berari ere. Izeba Cissieren bizitza Materrari sakrifikatua egon zitzaion eta izeba Cissiek bazekien hori, eta Materrak bazekien izeba Cissiek bazekiela. Hala ere, urteak igaro ahala, itun bihurtu zen. Denek onartu zuten izeba Cissieren sakrifizioaren ituna, Cissiek berak barne. Otoi asko egiten zuen hori zela eta. Eta horrek erakusten zuen bazituela bere sentimenduak ere nonbait, gaixoak. Cissie izateari utzi zion, galduak zituen bizitza eta sexua. Eta orain, berrogeita hamar urtetara gerturatzen ari zen, amorrualdi beltz estrainioak igotzen zitzaizkion barrendik, eta horrelakoetan, eroa bezala jartzen zen.

Baina amonak mendean eusten zion. Eta izeba Cissieren bizitzako helburua Materra zaintzea zen.

Izeba Cissieren demoniozko gorrotoaren txinpartak gaztea zen ororen aurka zuzentzen ziren, batzuetan. Gaixoa, otoi eta otoi saiatzen zen zeruko barkamena iristen. Baina hari egin ziotena, hori ezin zuen barkatu, eta zenbaitetan bitriolua barreiatzen zitzaion zainetan.

Ez da uste izan behar Materra izaki atsegin, gozo bat zenik. Ez zen. Itxurak egiten zituen soilik, maltzurki. Eta pixkanaka-pixkanaka neskak hortaz konturatzen hasi ziren. Modaz pasatutako enkajezko txanoaren azpian, ile urdinaren azpian, gorputz sendo, motz, aurrera-puztuaren zeta beltzaren azpian, bihotz maltzurra zuen emakume hark, ema-aginpidearen bila beti. Eta hazi zituen gizonezko epel motelen ahulezien artean, bere aginpideari eusten zion, urteetan aurrera zihoan heinean, hirurogeita hamarretik laurogeira, eta azkenaldi honetan laurogeitik laurogeita hamarrera bidean.

Izan ere erabateko «leialtasun» tradizioa zen familian: elkarrenganako leialtasuna eta Materrarenganakoa, batez ere. Materra zen, noski, familiaren ardatza. Materraren «ego»-aren luzapena zen familia. Jakina, hark bere aginpidez

estaltzen zuen. Eta, jakina, seme-alabak ahulak eta batasunik gabeak izanik, leialak zitzaizkion. Zer zuten familiarik kanpo, arriskua eta iraina eta lotsaizuna besterik? Ez al zion igarri erreto-reak ezkondu zenean? Orain, bada, kontuz! Kontuz eta leial, munduari aurpegi emateko! Izan dadila nahi den adina gorroto eta tira-bira familiararen baitan. Kanpoko mundu aldera, berriz, elkartasunezko hesi tinko bat.

Alabaina, azkenean eskolatik etxera itzuli ziren arte neskek ez zuten amonaren esku zahar bizigabeak beren bizitzetan zuen pisu guztia sentitu. Lucillek ia hogeita bat urte zituen orain eta Yvettek hemeretzi. Familia oneko neskentzako eskola batera joan ziren, azken urtea Lausanan egin zuten, eta zegokien bezalakoxeak ziren: gaztetxo garaiak, aurpegi guri, adierazkorrak, ile motza eta mutil-tankerako oso manera ez-formalak zituztenak.

— Gizonik ez dagoelako dun Paplewick horren aspergarria —esan zuen Yvettek kanaleko ontzian Dovergo itsas haitz gris-grisak hurbiltzen ikusten zituzten bitartean—. Zergatik ez ote dizkin aitak lagun jator batzuk? Osaba Fredekin, berriz, akabo!

— Beno, ez zegon esaterik zer gerta daitekeen —esan zuen Lucillek, filosofikoagoa hura.

— Ondotxo dakin zer espero daitekeen —esan zuen Yvettek—. Igandeetan korua, eta gorroto dizkinat koru mistoak. Mutilen ahotsak

ederrak ditun, emakumezkorik ez dagoenean. Eta Igande-Eskola eta Neska-Elkartea eta giza harremanak, amonaren galdezka aritzen den zahar-jende koitadu hori! Ezta itxurazko mutil-gazte bakar bat ere miliatan!

— Ez zekinat, ba! —esan zuen Lucillek—. Hor ditun Framleytarrak. Eta badakin Gerry Somercotesek adonatu egiten hauek.

— Baina gorroto dizkinat adonatu nauten mutilak! —esklamatu zuen Yvettek, bere sudur fina zimurtuz—. Aspertu egiten nauten! Beruna baino astunagoak ditun!

— Zer dun, ba, nahi dunana, adonatuailerik onez eraman ezin badun? Neri oso ongi iruditzen zaidan adonatuailerak izatea. Badakin inoiz ez haizela horiekin ezkonduko; orduan, zergatik ez, jarrai dezatela adonatu, horrekin jostatzen baditun.

— Nik ezkondu nahi dinat, ordea —egin zuen oihu Yvettek.

— Ba, kasu horretan, utzien, jarrai dezatela adonatu, ezkontzeko moduko bat aurkitzen dunan arte.

— Ezingo ninake, horrela. Ezerk ez naun gogaitzen adoratzaile batek baino gehiago. Hainbestearaino aspertzen nauten! Erabateko gaizki sentiarazten nauten.

—A, ni ere bai, astuntzen baditun. Baina distantziatxoa gordez, neri nahiko atseginak iruditzen zaizkidan.

— Bortizki maitemindu nahi ninake.

—Bai zera! Nik ez! Ez ninake atsegin izango. Ezta hik ere ziurrenera, benetan gertatuko balitz. Azken finean, zentzatu egin behar dinagu pixka bat, zer nahi dugun jakiteko.

— Baina ez al zain gorrotagarri Papplewicke-ra itzultzea? —oihu egin zuen Yvettek, bere sudur gazte fina zimurtuz.

— Ez, ez bereziki. Uste dinat nahikoa asper-tuko garela. Nahiago ninake aitak auto bat erosi-ko balu. Bizikleta zaharrak tarraka ditugula ibili beharko dinagu. Ez al litzainake Tansy Moorrera igotzea gustatuko?

— Izugarri! Baina leherrenak egitea dun, bizi-kleta zaharra tontor haietaraino bultzaka erama-tea.

Ontzia itsas haitz grisetara hurbiltzen zihoan. Uda zen, baina egun goibela. Bi neskek abrigoak larruzko anokiak goratuta zituzten, eta kapelataxo *chic*-ak belarrietaraino sartuta. Garaiak, lerdinak, aurpegi-guriak, xaloak, eta hala ere asko-ustekoak, gehiegi-ustekoak, beren eskolatu-harrokerian, izugarri ingelesak ziren. Oso askeak ziruditen, baina, izatez, oso korapilatuak eta lotuak zeuden barrutik. Estilo handikoak eta ohiko moldeez kanpokoak ziruditen, baina, izatez, hain ziren konbentzionalak, hain zeuden, nolabait esan, beren baitan itxirik. Balandro gazte, garai, ausartak ematen zuten, kaitik bizi-tzako itsaso zabaletara lerratzen. Eta, izatez, lema gabeko bi bizitza gazte koitadu ziren, elkarri amarratu itsasontziak bezala zabuka.

Erretore-etxeak bihotza izoztu zien sartu zirenean. Itsusia ematen zuen, eta lohia ia, erdi-mailako erosotasun endekatu, erosoia izateari utzi eta kargatua, ez-garbia bihurtu giro heze harekin. Harrizko etxe gogorak zikin-inpresioa egin zien neskei, ez zekiten zergatik. Etxeko altzari menstuek, nolabait esan, narras samarrak ziruditen; ez zegoen ezer garbirik. Otorduetako jana-

riak ere bazuen kanpotik datorren gazteari hain higuigarri zaion zikoiztasun triste hori. Haragi errea eta arbia uretan igeri, ardiki hotza eta patata zukutua, gatzitu garratzak, nahitanahiezko pudding-ak.

Amonak, «txerriki muturtxo bat gustora» jaten baitzuen, plato bereziak ere izaten zituen, haragi-salda eta opilak, edo ahi goxo pixka bat. Izeba Cissie aurpegi-zurbilak ez zuen ezer jaten. Esertzen zen mahaian eta patata ale egosi bakar bat hartzen zuen platerera. Haragirik ez zuen probatzen. Hala, eramankortasun zikoitzez egoten zen eserita, otorduak zirauen bitartean, eta amonak presaka bere partea lardaskatzen zuen arte —pozik sabel irtenaren gainera ezer isurtzen ez bazuen. Janaria bera ez zen gustagarria; nola izango zen, izeba Cissiek berak janaria gorroto zuela, jatea gorroto zuela, eta inoiz nes-kame batek hiru hilabete irauten ez ziola? Neskek nazkaz jaten zuten, Lucillek ausarki jasanez, Yvetteren sudur finak bere nazka agertuz. Erretore ile-zuriak bakarrik, bibote gris luzea serbiletarekin igurtzi eta, egiten zituen txantxak. Hura ere baldartzen eta geldotzen ari zen, egun guz-

tian bere estudioan eserita, batere soin-ariketarik egin gabe. Baina denbora guztian bromatxo sarkastikoak egiten aritzen zen, han Materraren babesean eserita.

Eskualdea, bere mendi-tontor aldapatsu eta ibar sakon estuekin, iluna eta goibela zen, baina bazuen indar handi bat berezkoa. Handik hogeimiliatara zegoen iparraldeko industrialismo beltza. Hala ere Papplewick, konparazioan, herri bakarti, ia galdua zen: gogorra eta hotza bertako bizitza. Dena zen harria, gogortasun ia poetikozkoa, zurrunaren zurrunez.

Neskek uste bezala gertatu zen: korura itzuli ziren, parrokian laguntzen zuten. Baina Yvettek uko borobila egin zien Igande-Eskola, Itxaropen-Talde eta Neska-Elkarteei, hau da, neskazahar erabakiko eta agure burugogor ergelek zuzentzen zituzten eginkizun horiei guztiei. Elizako betebeharrak ahal ziren guztietan baztertzen zituen, eta erretore-etxetik ahal zuen guztietan alde egiten zuen. Framleytarrak, Landetxean bizi zen familia handi, ez oso txukun, jator bat, laguntza handikoak gertatzen zitzaizkion. Eta inork otorduren batera gonbidatzen bazuen,

baita langile-etxeetako emakumeren batek tea hartzera geratzeko esaten bazion ere, berehala onartzen zuen. Egia esan, zirrarez beterik egoten zen. Gizon langileekin hitz egitea gustatzen zitzaion, hain mentalitate praktikoa eta zehatza baitzuten gehienek. Baina, jakina, beste mundu batean zeuden haiek.

Hala igaro ziren hilabeteak. Gerry Somerco-tesek adoratzaile jarraitzen zuen. Baziren beste batzuk ere, nekazari edo errotarien semeak. Yvettek benetan ondo pasatu beharko zukeen. Beti festetara edo dantzaldietara irtenda zen; lagunak etortzen zitzaizkion autoan bila, eta hirira joaten ziren, hotel nagusiko arratsaldeko dantzaldira edo Palais de Danse berri zoragarri, Pally deitzen ziotenera.

Hala ere, kreatura hipnotizatu bat ematen zuen beti Yvettek. Inoiz ez zen guztiz alai egoteko bezain aske. Barren-barrenan amorru jasanezin bat zerabilen, ez lukeela sentitu behar pentsatzen zuena eta sentitzea gorroto mena, eta beraz, okerragotzen zitzaiona. Ez zuen ulertzen nondik sortzen zitzaion.

Etxean, oso suminbera egoten zen, izeba Cis-sierekin irainera iristeraino lotsagabe. Egia esan, Yvetteren jenio txarra hizpide bilakatu zen fami-lian.

Lucillek, praktikoagoa baitzen beti hura, lan bat aurkitu zuen hirian frantsesez aise eta taki-grafia zekien bat behar zuen gizon baten idazka-ri pribatu bezala. Egunero egiten zuen joan-eto-rria, osaba Freden tren berean. Baina Lucillek inoiz ez zuen bidaia osabarekin egiten, eta eguz-ki ala euri, bizikletaz egiten zuen geltokiraino bidea, osaba, berriz, oinez joaten zela.

Bi neskek erabakia zuten benetako lagunarte alai bat behar zutela. Eta biziro gaitzitzen zitzaien erretore-etxea izatea, beren lagunent-zat, jasanezina. Lau gela bakarrik zeuden behean: sukaldea, bi neskame deskontent bizi zirena; jangela iluna; erretorearen estudioa; eta egongela edo saloi handi, «etxe-zoko» asperga-rria. Jangelan gas-estufa bat zegoen. Egongelan bakarrik egoten zen su bero on bat piztuta. Zeren, nola ez, han egoten baitzen amona erre-gina.

Gela horretan egoten zen familia bildurik. Arratsean, afalondoan, behin ere huts egin gabe osaba Fred eta erretoreak hitz gurutzatuak egiten zituzten amonarekin.

—Ea, Mater, prest zaude? T, hutsunea, hutsunea, hutsunea, L: diru siamesa.

— Zer? Zer? D, hutsunea, hutsunea, hutsunea, L?

Amonak gorraizea zuen.

— Ez, Mater. D ez! T, hutsunea hutsunea hutsunea L: diru siamesa.

— T, hutsunea, hutsunea, hutsunea, L: diru japonesa.

— S I A M E S A.

— E?

— S I A M E S A! S I A M!

— Diru siamesa! Zer ote da hori? —esan zuen andre zaharrak seriooki, sabel borobilaren gainean eskuak tolesturik. Bi semeak iradokizunak egiteari ekin zioten, eta andre zaharrak orduan A! A! egiten zien. Erretorea izugarri bizkorra zen hitz gurutzatuetarako. Baina Fredek halako hitz-zerrenda tekniko bat zuen.

— Hezur gogorra da hauxe! —esan zuen andre zaharrak, denak asmaezinik geratu zirenean.

Bitartean Lucille bazter batean eserita zegoen eskuak belarrietan jarrita, irakurtzen ariko balitz bezala, eta Yvettek, haserre, marrazkiak egiten zituen, edo doinu ozen arnegagarriak kanta-marmaratzten zituen, berak ere famili kontzertuan parte izateko. Izeba Cissie bonboia hartu eta bonboia hartu ari zen, eta masailezurak lanean zerabiltzan etengabe. Bonboi hutsez mantentzen zen. Urrunean eserita, sartzen zuen beste bat ahoan eta parroko aldizkariari begiratzen zion berriro. Gero, burua jaso eta amonaren katilu Horlicks-aren bila joateko ordua zela ikusi zuen.

Joan zenean, nerbioek gaina hartuta Yvettek leihoa zabaldu zuen. Gelan inoiz ez zen haize freskorik sartzen, usaina zegoela iruditzen zitzaion: amonaren usaina. Eta amonak, gorra egonda, erbinudeak bezala aditzen zuen berak aditzeanahi ez zenetan.

— Leioha zabaldu al duzu, Yvette? Gogoan izan behar zenuke gelan badirela zu baino pertsona zaharragoak —esan zuen.

— Ito egiten da! Ez dago jasaterik! Ez da harritzekoa denok katarroa harrapatuta ibiltzea beti.

— Uste dut gela aski handia badela, eta su ederra dago piztuta —Andre zaharra hotzikaraxo batek hartu zuen—. Hilko gaitu denok korronte honek.

— Ez da korrontea —orro egin zuen Yvettek—. Aho bete haize fresko.

Andre zaharra hotzikaratu zen berriro, eta esan zuen:

— Horixe!

Erretorea, isilik, joan zen leihora eta itxi egin zuen tinko. Ez zion alabari begiratu bitarte horretan. Ez zuen gogoko hari ezer galaraztea. Baina ikasi behar zuen zer bai eta zer ez!

Gurutzegramek, Satanek berak asmatuak, amona bere Horlicks-a hartuta oherako prestatzen zen arte irauten zuten. Orduan «ondo lo egin»en zeremonia iristen zen! Zutitzen ziren denak. Neskak andre zahar itsuarengana joaten

ziren musu eman ziezaien, erretoreak besoa ematen zion, eta izeba Cissiek kandela batekin jarraitzen zien.

Baina honetarako bederatzia izaten ziren jada, nahiz eta amona oso zahartzen ari zen, eta lehenago oheratu beharko zukeen. Baina oheratzen zenean, ezin lo egin izaten zuen izeba Cissie joan arte.

— Begira —esaten zuen amonak—, ez dut inoiz bakarrik lo egin. Berrogeita hamalau urteetan ez dut gaurik izan Paterraren besoak inguratzen ez ninduela lo egindakorik. Eta joan zenean saiatu nintzen bakarrik lo egiten. Baina lotarako begiak ixten zitzaizkidan orduko, bihotzak jauzi egiten zidan gorputzetik irten beharrean bezala, eta pilpira batean geratzen nintzen. Nahi duzue-na pentsatuko duzue, baina esperientzia beldurgarria izan zen, berrogeita hamalau urteko ezkon bizitza laino gabearen ondoren! Nahiago nukeen Jainkoak neu eraman banindu lehenik, baina Paterra, ba ez, ez dut uste jasateko gauza izango zenik.

Horregatik izeba Cissiek lo egiten zuen amonarekin. Eta ez zitzaion gustatzen. Esaten zuen

ezin izaten zuela batere lorik egin. Eta kolorea txartzen-txartzen joan zitzaion, etxean janariak okerragora egin zuen, eta izeba Cissie operatu egin behar izan zuten.

Baina Materra ohi bezala jaikitzen zen, eguerdi aldera, eta bazkaria presiditzen zuen besaulkitik, bere sabel irtenarekin; aurpegi gorritzat gingiltsua, halako maiestate lazgarri bat mena, bekoki zabalaren paretatik behera belaxka erortzen zitzaiola, eta begi urdinak ikusi gabe ñarroztzen zituela. Ile zuria bakantzen ari zitzaion, ez zen oso itxurazkoa oro har. Baina erretoreak alaikiro txantxak egiten zizkion, eta Materrak gaitzesten balitu bezala egiten. Baina atseginez beterik egoten zen, bere gizentasun antzinakoan eserita, eta otorduen ondoren, sabeleko haizeak ateraz, bularraldea eskuarekin estutu eta atsegin fisiko zakarrez «korrok» eginez.

Neskei gehien axola zitzaiena zen, laguntxoak etxera ekartzen zituztenetan, amona beti han egoten zela, haragi zaharrezko idolo izugarri bat bezala, arreta guztia bereganatzen. Gela bakarra zen denentzat. Eta han esertzen zen andre zaharra, izeba Cissiek guardia mikatza egiten

ziola. Mundu guztia amonari aurkeztu behar izaten zitzaion lehenengo: prest zen adeikor agertzeko, atsegin zuen lagunartea. Jakin behar izaten zuen zein nor zen, nongoak ziren, eta bakoitzaren bizitzako pasadizo guztiak. Eta orduan, *au fait* jartzen zenean, solasari ekin ahal izango zion.

Ez zegoen gauza arnegagarriagorik nesken-tzat:

— Bai miresgarria dela Saywell andrea! Nola-ko interesa jartzen duen bizitzan, ia laurogeita hamar urterekin!

— Jartzen du bai interesa jendearen egiteko-etan, hori baldin bada bizitza —esaten zuen Yvettek.

Gero berehalaxe errudun sentituko zen. Azken finean, mirestekoa zen ia laurogeita hamar urte izatea, eta halako buru argia edukitzea! Eta amonak, egitez, ez zion sekula inori kalterik egin. Gehiago zen traba egiten zuela. Eta ziurrenera oso gaizki zegoen inor, zaharra zelako eta traba egiten zuelako, gorrotatzea.

Yvette berehalaxe damutzen zen, eta onera etortzen. Amonak Buckinghamshire herri txikian

neskatoa zeneko oroitzapenen kontakizunetan gozaten zuen. Hitz eta pitz jarduten zuen, eta hain zen entretenigarria. Amona miresgarria zen bai.

Gero arratsaldean Lottie, Ella eta Bob Framley etorri ziren, Leo Wetherellekin.

— Aurrera! —eta barrura sartu ziren denak tropelean egongelara. Han zegoen amona, bere txano zuriarekin, sutondoan eserita.

— Amona, Wetherell jauna da hau.

— Zer jaun esan duzu? Barkatu behar didazu, gorraize pixka bat daukat!

Amonak esku eman zion ezeroso sentitzen zen mutil-gazteari, eta isilik geratu zitzaion begira, ikusi gaberik.

— Ez al zara gure parroikoa? —galdetu zion amonak.

— Dinningtongoa! —mutilak garrasi.

— Egunpasa joan nahi dugu bihar, Bonsall Headera, Leoren autoan. Estu-estu eginda sartuko gara denok —esan zuen Ellak ahopean.

— Bonsall Head diozue? —galdetu zuen amonak.

— Bai!

Isilaldi bat izan zen.

— Autoan zoaztela diozue?

— Bai! Wetherell jaunarenean.

— Gidari ona izango ahal da. Oso bide arriskutsua da.

— Oso gidari ona da.

— Ez dela oso gidari ona?

— Bai! Oso gidari ona dela.

— Bonsall Headera bazoazte, uste dut mezu bat bidaliko diodala Lady Loutheri.

Amonak Lady Louth gajo hura ateratzen zuen beti, jendea zegoenean.

— Ez gara bide horretatik joango —egin zuen oihu Yvettek.

— Zer bidetatik? —esan zuen amonak—. Heanortik joan behar duzue nahitaez.

Talde guztia zegoen, Bobek adierazten zuen bezala, indiolar beteak bezala, nor bere aulkian egonezinez eserita.

Izeba Cissie sartu zen, eta ondoren neska-mearekin. Erositako cake pusketa eternoa eta betiraunekoa zegoen. Platerkada gailetatxo egin berri azaldu zen gero. Egia esan, izeba Cissiek okinarenetik ekarrarazi zituen.

—Tea, Mater!

Andre zaharrak aulkiaren besoei heldu zien. Denak altxatu eta zutik geratu ziren, hura poliki-poliki eta astun, izeba Cissieren besotik, mahaira bere lekura joan zen bitartean.

Tea hartzen ari zirela Lucille etorri zen hiritik, lanetik. Leher eginda zetorren, betondoak belzturik zituela. Oihu bat jaulki zuen, jende guztia ikustean.

Zarata baretu eta berriro ezerosotasuna itzuli zen orduko, amonak esan zuen:

— Ez didazu inoiz Wetherell jauna aipatu, ezta, Lucille?

— Ez naiz gogoratzen —esan zuen Lucillek.

— Ez zenidan aipatuko. Izena ezezaguna zait.

Yvettek oharkabean bezala beste gaileta bat hartu zuen, orain ia husturik zegoen plateretik. Izeba Cissiek, Yvetteren portaera lauso eta begiramenik gabekoak onetatik aterata, haserrealdi beltz hura batzen sentitu zuen bihotzean. Hartu zuen bere platera, bere buruari opa zion gaileta bakarra zuena, eta bitrioluz beteriko gizabidez esan zuen, Yvetteri eskaintzen ziola:

— Ez al duzu nirea ere nahi?

— A, eskerrik asko! —esan zuen Yvettek, bere lausotasun muzinarekin oldartuz. Eta axolagabekeria bera erakutsiz, hartu egin zuen izeba Cissieren gaileta ere, eta eranskin gisa esan zuen:

— Zuk nahi ez baduzu...

Bi gaileta zeuzkan orain platerean. Lucille hildakoa baino zurbilago zegoen, bere tearen gainera makurtuta. Izeba Cissie ezin-eramanaren pozoiak ubeldurik zegoen. Ezerosotasuna agonia bat zen.

Amonak, ordea, astunki tronuraturik eta ezjakinean, hauxe esatea besterik ez zuen egin, zikloiaren erdian:

— Bihar autoan Bonsall Headera bazoazte, Lucille, Lady Loutheri nire partetik mezu bat eramatea nahi nuke.

—O! —esan zuen Lucillek, begirakune gaiztoa luzatzen ziola mahaiaren beste aldera ikusmenik gabeko andre zaharrari. Lady Louth zen familiarren begiko fitsa, bisitarien mesedetan amonak beti ateratzen zuena—.Ederki!

— Hain jator portatu zen lehengo astean. Txoferra bidali zidan gurutzegrama liburu batekin.

— Baina eman zenizkion eskerrak orduan — oihu egin zuen Yvettek.

— Ohar bat bidali nahi nioke.

— Postaratu egingo dugu —oihu egin zuen Lucillek.

— Ez, ez! Zuek eramatea nahi nuke. Orain hurrena Lady Louth etorri zenean...

Gazteak eserita zeuden arrainkume saila urazalean lelo-lelo ahozka bezala, amonak Lady Loutheri buruzkoekin jarraitzen zuen bitartean. Izeba Cissie, bi neskek bazekiten, gauza ez zela zegoen oraindik, cake-arengatiko amorrualdiak gainezka eragin eta ia zentzumena galduta. Otoitzean arituko zen beharbada, gaxoa.

Bedeinkazio bat izan zen lagunek alde egin zutenean. Ordurako, ordea, bi neskak begiradak galduta zeuden. Eta orduan ikusi zuen Yvettek bat-batean, beste aldera begiratzean, botere-nahi gogor gupidagabea, itxura amatiarreko amona zaharrarengan. Han zegoen hura bere aulkian tronpoilo atzerantz eserita, hunkigaitz,

bere aurpegi zahar gorritzatza gogorria erabat pikardaturik, ia zentzumenik gabe, baina damugaitz, aurpegiak zirudiela maskara bat, zerbait gogorra, ankerra, ezkututzen zuena. Bere botere makurraren inertzia estatikoa zen. Baina berehala zabalduko zuen aho antzinakoa Leo Wetherelleri buruzko xehetasun guztiak jakiteko. Momentuz negu-lozorroturik zegoen bere zahartasunean, bere atsotasunean. Baina berehala zabalduko zuen ahoa, piztuko zitzaion gogoa eta ase-ezinezko bizitza-gosez, besteren bizitza-gosez, hasiko zen xehetasun guztien berri galdezka. Halakoxea zen apotzar hura ere, Yvette, liluraturik, begira egon zitzaiona, erlauntzaren apalean jarri, erleak irteten diren atakatxoaren parez pare, eta, tximista baino bizkorrago masail izurtuei grausk eraginez, kanpora aireratzen ziren erle guztiak harrapatu eta bata bestearen atzetik irensten zituen, erlauntzakada osoa kontsumitu ahal balu bezala bere zimurtasun zahar, puztu, zorro modukoaren barruan. Erleak udaberriko airera irten ahala, haiek irensten aritu zen, urteak joan eta urteak etorri, urteak joan eta urteak etorri, belaunaldiz belaunaldi.

Baina baratzaina, Yvettek deituta, haserrez bete zen, eta harri batekin akabatu zuen izaki hura.

— Marraskilo'ntzat ona izango haiz —esan zuen baratzainak, harriarekin etorri zenean—. Baina ne'i ez di'k erlauntza tripazorro'a hustuko.



Hurrengo eguna goibel eta pisu agertu zen, eta bideak beldurgarriak zeuden, euria eginez baitzeramatzan asteak, baina gazteak beren txangoan irten ziren, amonaren mandatua hartu ere egin gabe. Isilka irten ziren amona bere bazkalondoko goiko buelta geldia egiten zen bitartean. Ezergatik ez zuketan Lady Louthen etxean aterik joko. Noble egindako doktore baten alar-gun hura, kaltegabeko pertsona noski, gogaimen bat bihurtu zitzaien.

Sei gazte errebelde, autoan eserita barbuilerian zihoazen lokatzetan aurrera kirriski-karraska. Bazuten, ordea, halako itxura erori bat ere. Azken finean, ez zuten zeren kontra errebelaturik, inortxok ere. Askatasunez mugitzen uzten zieten. Gurasoek ia nahi zuten guztia egiten uzten zieten. Ez zegoen, egotez, ez hautsi beharreko katerik, ez zerratu beharreko espetxe-barroterik, ez bota beharreko sarrailarik. Eskuetan zituzten bizitzako giltzak. Eta hantxe zeuzkaten dilin-dilin geldi.

Askoz errazagoa da espetxe-barroteak haustea, bizitzari ate berriak irekitzea baino. Belau-naldi gazteenak nolabait bere desilusiorako ikasi ohi duen bezala. Egia, amona zegoen. Baina amonaxo zahar gaixoari ezin esango zenion: «Etzan eta hil zaitez, atso zahar hori!» Traba handia izango zen, baina inoiz ez zuen ezer egin. Ez zen bidezkoa hura gorrotatzea.

Gazteak, bada, beren ibilaldia egitera joan ziren, pozez gainezka agertzen saiatuz. Nahi zutena egin zezaketen. Eta, jakina, ez zegoen beste zereginik: autoan eserita jendea galanki kritikatu eta galaikeria-maitakeria txepel aspergarrietan jardun. Egon balira behintzat «agindu zorrotz» bakar batzuk desobeditu ahal izateko! Baina ezer ez, Lady Loutheri mezua eramateko errefusaz gaindikorik, eta hori erretoreak onartuko zukeena, ez zelako bera ere begiko fitsaren zale.

Abesten zihoazen, lakatz samar, azken abesti komiko-ustekoak, herrixka muzinak igarotzen zituzten bitartean. Parke handian oreinak taldeka zeuden bide ondoan, orkatzak eta adarzabalak, arratsaldeko goibeltasunean elkarrengana

bilduta bide ondoko harizpeetan, giza lagunartearen arrimura bezala.

Yvettek gelditu eta haiei hitz egitera irten behar zelako seta hartu zuen. Neskak, beren bota errusiarrekin, belar bustitan tapa-tapa sartu ziren, oreinak, begi handi izugabez begira gertzen zitzaizkien bitartean. Orein arra emeki urrundu zen trostan, burua atzera tiraka zuela, adarren pisuagatik. Baina orein emea, belarri luzeak zabuka, ez zen arbolapetik irten, bere kume koskortuekin, neskak ia gainean izan zituen arte. Arin urrundu zen orduan, isatsa ipurtalde pintotik gora jasota, kumeak trosta bizkorreran zituela.

— Ez didazue esango izugarri politak ez direnik! —esan zuen Yvettek—. Ez dakit nola egon daitezkeen belar busti beldurgarri horren gainean etzanda hain goxo.

— Pentsatzen dinat noizbait ere etzan behar ko dutela —esan zuen Lucillek—. Eta arbolapean nahiko lehor zegon.

Oreinak etzanda egondako guneko belar zapalduari begiratu zion Lucillek. Joan zen Yvette

eta eskua lurrera eraman zuen, nolakoa zegoen ikusteko.

—Bai! —esan zuen duda eginez—, uste dut epel antzekoa dagoela.

Oreinak metro batzuk harantzago samaldataurik ziren, eta geldi-geldi zeuden arratsaldeko goibeltasunean. Urrunago, belardi eta zuhaizti malden barrenean, ibai bizi, zubi barandaduna zuenaren beste aldean, duketxe galanta ageri zen, tximinia bat edo bestetik ke urdinka zeriola. Haren atzetik baso gorritzak ikusten ziren.

Neskak, anokiei belarrietaraino tira eginez, beste besoa alboan dilindan, begira zeuden isilik, bota errusiar handiek belar bustitatik babes-ten zituztela. Lau kantoiko etxetzarra zapal eta gris-horizta ageri zen behean. Oreinak, talde txikietan, inguruko arbola zaharren azpian zeuden sakabanaturik. Dena zegoen hain geldi, hain apal, eta hain triste.

— Non ote da orain dukea? —esan zuen Ellak.

— Hemen ez, edozeinetara ere —esan zuen Lucillek—. Pentsatzen dut kanpoan leku eguzki-
tsuren batean izango dela.

Autoaren tutuak dei egin zuen bidetik, eta Leoren ahotsa entzun zuten:

—Tira, mutilak! Headeraino iritsi eta terako Amberdalera jaitsi behar badugu, mugitzea izango dugu onena.

Auto barrean pilatu ziren berriro, oinak hozturik, eta jarraitu zuten parkean aurrera, elizako orratz isila igaro, irteerako ate handiak zeharkatu, eta zubia gaindi Woodlinkingo herrixka zabal, heze, harkaiztsu, ibaiak korritzen zueneraino. Eta handik aurrera, denbora luzean, ibarreko basatze, ilunpe eta hezetasunean ibili ziren, buruz goitik sarritan haitz bizia zutela: ura lehian alde batean, haitz malkarra edo arbola ilunak bestean.

Harik eta, arbola gailenen ilunpean, aldapari ekin eta, Leok abiada aldatu zuen arte. Poliki-poliki eta nekez egin zuen autoak basatze gris-zurixkatan gora, Bolehillgo herrixka harkaiztsu, maldan esekitakora; inguratu zuten gurutze zaharra, harmailaduna, bidea elkartzen zen gunean zegoena, utzi zituzten basetxeak atzean, te-opil bero usain zoragarria zeriela, eta aurrera, aldatze gora jarraitu zuten, arbola tantatsuen

azpitik eta garadi bizkarrak gaindi, igo eta igo. Harik eta haitzartea leundu, arbolak amaitu, eta bi aldeetan malda soilak, belardi laiotzak, harrizko pareta baxuz inguraturik agertu ziren arte. Head gainera irteten ari ziren.

Lagun taldeak isilik zeraman hainbat denbora. Bidearen bi aldeetara belarra zegoen, hurrena harrizko itxitura baxu bat, eta mendi gailuraren kurba puztua, harrizko pareta baxuz marraztua. Gainean, zero astuna.

Autoa bazihoan, zero gris astunaren azpian, gainalde biluzietan aurrera.

— Geldituko gara une batean? —galdetu zuen Leok.

— Bai, bai! —oihu egin zuten neskek.

Eta arrapastaka kanporatu ziren berriro, ingurura begiratzera. Lekua oso ondo ezagutzen zuten. Baina hala ere, Headera iritsiz gero, begiratzera irten behar izaten zen.

Tontorrak eskuko behatz-koskorrak bezalakoak ziren, azpian zeuden haranak, hatzen artean, estuak, maldatsuak eta ilunak. Sakanean trena zihoan lurruna zeriola, iparraldera astiro arrastan: azpimunduko gauza ñimiño bat. Loko-

motorearen hotsak oihartzun harrigarria egiten zuen goialdera. Gero, harrobiko eztanden soinu hil ezaguna etorri zen.

Leo, zertan edo hartan beti, azkar mugitu zen.

—Abiatuko al gara? —esan zuen—. Jaitsi nahi al dugu Amberdalera terako? Ala nonbait gertuago probatuko dugu?

Denek Amberdaleren alde, Granthamgo markesaren alde, eman zuten botoa.

— Beno, nondik itzuli behar dugu? Codnortik Crosshill igaroz joango gara, ala Ashbournetik joango gara?

Betiko dilema zen. Azkenean Codnorreko gainbidea hartzea erabaki zuten. Abiatu zen autoa, airoski.

Munduaren gainean zeuden orain, ukabilaren gainean. Biluzik zegoen hura ere, ukabilaren gaina bezala, zeruaren azpian garai, eta berde ilun, goibel. Soilik harrizko pareta zaharrezko sare batek zaineztatzen zuen, lur-sailetan zati-tzen zuela, eta han-hemenka berun meategi zaharren hondakinek eta obra-lanek hausten. Harrizko baserri eskas bat gailentzen zen sei

arbola soildu zorrotzekin. Urrunean harri grisezko gune ketsu bat zegoen: auzo bat. Landa batzuetan ardi gris ilunak zebiltzan larrean isiltsu, itzaltsu. Baina ez zen hotsik ez mugimendurik. Ingalaterraren sabaia zen hura, gogorra eta idorra edozein sabai bezala. Harantzago, behean, konderriak zeuden.

«*Eta hara hor konderri koloretsuak*», esan zuen Yvettek bere artean. Hemen behintzat ez zeuden koloretsu. Oskilaso ilara bat hegaldatu zen ezerezetik bezala. Pausatuta ibili ziren, mokoka, simaurtutako lurgorri batean. Autoak aurrera jarraitu zuen mendi-bideko belardi eta harrizko pareten artetik, eta gazteak isilik zihoazen, begiak jarririk harrizko itxitura sare urrunean, zero azpian, azpiko haran ezkutu baten jauspidea erakusten zuten goitik beherako kurben bila.

Aurrean karro arin bat zihoan, gizonezko batek gidaturik, eta aldamenean trikili-trakala oinez emakume bat, sendoa eta adinekoa, bizkarrean fardel bat zuela. Karroko gizonak atzetik harrapatu zuen, eta orain elkarren parean zihoazen.

Bidea estua zen. Leok tutua jo zuen gogor. Karro gaineko gizonak atzera begiratu zuen, baina oinezko emakumeak trikili-trakala jarraitu zuen tinko, bizkor aurrera, bururik jiratu gabe.

Yvetteren bihotzak jauzi egin zuen. Karroko gizonazkoa ijitoa zen, beltzaran, soin-zinbel, eder horietakoa. Karroan eserita jarraitzen zuen, autozaleengana begiak luzatuz, bisera ertzaren azpitik. Jarrera lasaia zuen, lotsagabea begirada indiferentziaren indiferentziaz. Bibote fin bat zuen sudur fin zuzenaren azpian, eta zetazko zapi gorri eta horia lepoan lotuta. Zerbait esan zion emakumeari. Emakumea gelditu egin zen segundo batean, sendo, atzera jiratu eta autozaleei begiratzeko, autoa orain ondo-ondora gerturaturik zela. Leok tutua jo zuen berriro, zorrotz. Emakumea, buruzapi zuri-gris bat burutik behe-ra lotuta zuela, brastakoan itzuli zen atzera, karroaren parera heltzeko, karroaren gidaria ere berriro zuzen eserita, hedeak jasotzen ari zela, bere sorbalda malgu arinak mugituz. Ez zen, ordea, bazterreratu.

Leok garrasi eragin zion tutuari, freno sartu eta autoa karrotik hurbil geldia gotzen zuela. Iji-

toa atzera jiratu zen zaratara, bisera berde ilunaren azpian aurpegi beltza barrez zuela, eta entzun ez zuten zerbait esan zuen, bibote beltzaren marraren azpitik hortz zuriak erakutsiz, eta esku beltz zinbelaz keinu eginez.

—Ken zaitez paretik! —garrasi egin zion Leok.

Erantzun gisara gizonezkoak emeki hedeei tira eginez zaldia gelditu zuen, bide bazterrera okertzen zuela. Zaldi gorri on bat eta karro berde ilun, apain, on bat ziren.

Leok ere, haserrez beterik, freno zapaldu eta gelditu egin behar izan zuen.

— Ez al dute andereño polit hauek beren fortuna entzun nahi? —esan zuen karro gaineko ijitoak barrez, baina begi ilun zelatariak, serio, aurpegiz aurpegi eramane eta Yvetteren aurpegi gazte leunean pausatzen zituela.

Yvettek segundo batez topo egin zuen ijitoaren begi ilunekin, haien miaketa sarkorrarekin, haien ausardiarekin, Leo eta Bob bezalako pertsonenganako erakusten zuten indiferentzia erabatekoarekin, eta suren bat pieu zitzaion bula-

rrean. Pentsatu zuen: «Ni baino indartsuagoa da!
Ez du ezerk ikarutzen!»

— Bai, bai! Goazen! —esan zuen Lucillek segituan.

— Bai, bai! —koru egin zioten neskek.

— Aizue! Eta ordua zer? —atera zen Leo.

— Zorioneko ordua! Beti bada norbait okasio-
ari oina hartzeko —bota zuen Lucillek.

— Beno, zuei axola ez badizue noiz itzultzen
garen, niri ere ez! —esan zuen Leok heroikoki.

Ijitoa karroaren alde batean patxadaz eserita
egon zen, aurpegiak zaintzen. Gero gurtagatik
jauzi egin zuen bigunki, belaunak pixka bat
gogorturik. Ikusten zen hogeita hamar urte baino
gehixeagoko gizona zela, eta galaia bere hei-
nean. Soinean zamarra moduko bat maman,
gurutzatua, aldaketaraino baizik iristen ez
zitzaiona, friza-oihal berde ilun eta beltzekoa;
galtza beltz oso estuak, bota beltzak, eta bisera
berde ilun bat; lepoko painelu hori-gorri handi
bat lepoan. Itxura harrigarri dotorea zuen, eta
nahiko garestia ijito-janzkerarako. Ederra zen,
gainera, ijito-harrotasun antzinakoaz kokotsa
sartzen zuela; eta orain ezezagunei kasu egitea-

ri utzita, zaldi gorri ona bidetik atera eta karroa atzeratzera zihoan.

Orduantxe ikusi zuten neskek sargune sakon bat bide ertzean, eta bi karabana kea zeriela. Yvette bizkor jaitsi zen. Bat-batean harrobi abandonatu, bide ertzeko maldan zulatu batean ziren, eta ustekabeko ezkutaleku horretan, kobazuloa ia, hiru karabana zeuden, negurako tresnagabeturik. Bazen, atze-atzean, arbaz eginiko aterpe bat ere, zaldiarentzat tegi bezala. Harkaitz gris biziak altuera handia hartzen zuen karabanen gainetik, eta bide aldera borobiltzen zen. Zoruan harri-koskoak zeuden pilan, tartean belar mototsak irteten zitzaizkiela. Neguko kanpamendu ezkutu babes bat zen.

Adineko emakume fardelduna karabanetako batean sartu zen, atea zabalik utzita. Bi haur zeuden kanpora kirika, buru beltzak agerian. Gizon ijitoak aupadatxo bat egin zuen, karroa harrobian sartu zuenean, eta adineko gizon bat irten zen tresnak kentzen laguntzera.

Gizon ijitoa bera ere mailetan gora joan eta karabana berrienean sartu zen; hango atea itxita zegoen. Azpitik, lotutako txakur bat irten zen.

Txakur zuri pintagorri arrunt bat zen. Gurgur sakona atera zuen Leo eta Bob gerturatu zirenean.

Une horretan bertan, emakume ijito aurpegi-beltz bat, burutik behera txal edo buruzapi arrosa bat zuela eta urrezko belarritako handiak belarrietan, karabana berrieneko mailetan behera etorri zen, gona berde bolantedun harroa dantzatuz. Halako edertasun bisaje-ilun, beltz, ausart bat zuen, otso-tankerako antzekoa. Espainiako ijito ausart, zangada luzeko horietakoa ematen zuen.

— Egun on, nire jaun-andreok —esan zuen, begi zorrotz harrapariez neskei begiratzen ziela. Atzerritarraren zurruntasun pixka bat zuen hizeketan.

— Arratsalde on! —esan zuten neskek.

— Andereño eder hauetako zeinek entzun nahi du fortuna? Zeinek emango dit eskutxoa?

Emakume garaia zen, lepoa mehatxuan bezala beldurra emateko moduan luzatzen zuena. Begiak aurpegitik aurpegira erabili zituen, bizi-bizi, gupidagabe nahi zuenaren bila. Bitartean gizona, senarra inondik ere, karabana-

ko mailen buruan agertuzen pipa errez, eta haur txiki ile-beltz bat besoetan zuela. Zango zaluen ganean zegoen tente, arretagabe beheko taldeari goitik begira, urrunetik bezala, bere begi beltz, tinko, harro, lotsagabeen gainetik betile beltz luzeak jasota. Halako transfusio-indar berezi bat zuen begirakune hark. Sentitzen zuen Yvettek, belaunetan sentitu ere. Txakur zuri pinta-gorriarekin interesatuko balitz bezala egin zuen.

— Zenbat eskatzen duzu, gu denon fortuna esateagatik? —galdetu zuen Lottie Framleyk, sei kristau gazte aurpegi-guriak emakume paria jentilarenganako uzkur samar zeudelarik.

— Zuek denak? Jaunak eta andreak, denak? —esan zuen emakumeak maltzurki.

— Nik ez dut nirea esaterik nahi! Jarrai zuek! —atera zen Leo.

— Ezta nik ere — esan zuen Bobek—. Zuek lau neskak.

— Lau andereñoak? —esan zuen ijitoak, neskei maltzurki begiak ganean ezartzen zizkiela, mutilei begiratu ondoren. Eta prezioa ezarri zuen.

— Emango bakoitzak txelin bat, eta pixka bat gehiago zortea izateko? Pixkatxo bat!

Egiten zuen irribarrea gehiago zen otsoarena losintxazkoa baino, eta bere borondatearen indarra sentitzen zen, burdina bezain astuna hitzen eztiaren azpian.

— Ondo da —esan zuen Leok—. Egin txelin bat buruko. Ez gehiegi luzatu.

— E, aizu! —oihu egin zion Lucillek—. Dena entzun nahi dugu.

Emakumeak bi zurezko aulki motz hartu zituen, karabana baten azpitik, eta gurpilaren ondoan jarri zituen. Heldu zion gero eskutik Lottie Framley garai beltzaranari, eta esertzeko agindu zion.

— Ez dizu axola denek entzuten badute? —esan zuen, Lottieren aurpegira begiak jakin-minez jaso.

Lottie gorri-gorri egin zen urduritasunez, emakume ijitoak eskua hartu eta behatz gogor, itxura krudelekoekin ahurra laztandu zionean.

— Ez, ez dit axola —esan zuen.

Ijitoak ahurraren gainera ñarroto zituen begiak, eskuko arrastoei hatz erakusle beltz

gogorrez jarraika. Baina emakumeak garbia zirudien.

Eta poliki-poliki fortuna esan zion, besteek, entzuten jarrita, oihuka ziharduten bitartean: «Oi, Jim Baggaley da hori! Oi, ezin dut sinetsi! Oi, hori ez da egia! Arbola baten azpian bizi den emakume eder bat! Baina nor arraio da hori?» harik eta Leok gizonki ohar eginez isildu zituen arte:

— Isil zaitetze, neskak! Dena aireratzen ari zarete.

Lottie masailak gorri eta nahasturik erretiratu zen, eta Ellaren txanda etorri zen. Ella askoz lasaiago eta maltzurrago egon zen, orakuluzko hitzak ulertzen ahaleginduz. Lucillek egiten zuen etengabe: «Oi, hara!». Mailburuko gizon ijitoa ikaragaitz zegoen, inolako adierazpenik gabe. Baina haren begi ausartek Yvetteri begira jarraitzen zuten, Yvettek masailetan, lepoan sentitzen zituen, eta ez zen begiak jasotzera ausartzen. Framleyk ordea begiratzen zion batzuetan gora, eta berdinez-berdineko begirada tinkoa jasotzen zuen ijitoaren aurpegi ederretik, begi beltz hantuts harroetatik. Begirada berezia zen, xumeen

leinuko begi haiek zutena: pariaren harrotasuna, baztertuaren, gizon lege-begiraleei irri egin eta bere gisara dabilenaren erronka erdi-burlosoa. Denbora guztian, ijitoa han egon zen zutik, haurra besoetan zuela, arduragabe begira.

Lucillek zuen eskua irakurtzeko emana.

— Itsasoz harantzik izan zinen, eta han gizon bat aurkitu zenuen... gizon ile gaztaina-koloreko bat... baina zaharregia zen...

—Oi, hara! —oihu egin zuen Lucillek, Yvette-rengana jiratuz.

Baina Yvette gogo-urrundurik, artega, arretarik ia eskaintzen ez zuela zegoen: bere hipnosial-dietako batean.

— Urte gutxitara ezkonduko zara... ez orain, baina urte gutxitara... lau beharbada... eta ez zara aberatsa izango, baina asko izango duzu... nahikoa... eta kanpora joango zara, bidai luze batean.

— Senarrarekin, ala gabe? —esan zuen Lucillek.

— Senarrarekin...

Yvetteren txanda etorri zenean, eta emakumeak zorrotz, krudelki begiratu zionean, aurpegia luzaroan arakatus, Yvettek urduri esan zuen:

— Uste dut ez dudala nahi nirea esatea. Ez, ez dut nahi nirea esatea! Ez dut nahi, benetan!

— Beldurra ematen dizu ala? —esan zuen emakume ijitoak krudelki.

— Ez, ez da hori... —mugitu zen egonezinik Yvette.

— Sekreturen bat daukazu? Nik esango dudan beldur zara? Tira, sartu nahi duzu karabana, inork adituko ez digun lekura?

Emakumea losintxan ari zitzaion interesaturik; Yvettek, berriz, ezezkoan jarraitzen zuen, zital. Zitalkeria adierazten zuen haren aurpegi gazte leun samurrak orain, eta gogortasun estrainio bat ematen zion.

— Bai! —esan zuen bat-batean—. Bai! Horixe egin nezake!

— E, aizu! —oihu egin zioten besteek—. Jokatu garbi!

— Ez huke hori egin behar! —esan zion Lucillek.

— Bai! —esan zuen Yvettek, bere jarreratxo petral harekin—. Horixe egingo dut. Karabanan sartuko naiz.

Emakume ijitoak zerbait oihukatu zion mailetako gizonari. Gizona karabanan sartu zen une batez, agertu zen berriro, eta mailetan behera etorri zen, haur txikia bere oin ez-seguruen gainean utzita, eta eskutik helduta zuela. Dandy bat irudi, bere bota beltz lustretu, fraka beltz estu eta jertse berde ilun estuarekin, astiro igaro zen haurra tipi-tapa zuela, harkaitz grisen hobian arbaz eginiko aterpean, zoruko harri-koskoen gainean garo iharra botata, ijito zaharra zaldi gorriari oloa ematen ari zen lekuraino. Pasatzerakoan Yvetteri begiratu zion, bete-betean begietara, pariaren begirada ausart eta makurrez. Yvettek barrutik gogor eutsi zion begiradari. Baina soin-azala urtzen bezala zuen. Nolanahi ere, barruan grabatu zitzaizkion ijitoaren aurpegiaren forma garbi apartak, sudur zuzen perfektuarenak, masaila eta lokienak. Jertse berdearen azpitik nabarmentzen zen gorputz osoaren perfektio ilun, suabe, harrigarria: irri biziarena bezalako perfektioa.

Eta oinkada luzean, mehaka zaluen gainean, astiro ondolik igaro zitzaionean ere, Yvetteri bera baino indartsuagoa zela iruditu zitzaion. Ikusi zituen gizon guztietatik, hura zen bera baino indartsuagoa zen bakarra, indarrez, eta adimenez.

Orduan, jakin-minez, Yvettek emakumeari jarraitu zion karabanako mailetan gora, abrigo arre ondo ebakiaren barrena bilin-balan zuela eta belaunak ia ikusten zitzaizkiola, oihal berde argizko soinekoaren azpitik. Oinkada luzeko zango luze dotoreak zituen, meheak, lodiak baino gehiago, eta artile finezko galtzerdi nabar marrazki bitxizkoak, animalia delikaturen baten hankak gogorarazten zituztela.

Mailen buruan gelditu eta jiratu egin zen, alaitsu, besteengana, bere molde xalo, handiki, hain naturalean esaten zuela:

— Ez diot luzatzen utziko.

Larruzko anoki grisa zabaldua zuen, lepo leuna eta soineko berde argia agerian uztez zizkiola, eta larru-koloreko kapela txiki trezaturia belarrietaraino sartuta, aurpegi leun guriaren bueltan. Itxura gozo eta aldi berean agintzailea,

eskrupulu gabea, zuen. Bazekien gizon ijitoa jiratu egin zela berari begiratzera. Sumatzen zuen haren lepondo ilun perfektua, ile beltz ondo orraztua. Begira zegokion haren etxera sartzera zihoala.

Emakume ijitoak Yvetteri zer esan zion, inork ez zuen jakin. Luze jotzen zuela, iruditu zitzaien besteei. Ilunabarra sartzen ari zen, eta giroa hozten eta gordintzen. Bigarren karabanako tximiniatik kea eta janari sendoaren usaina zetorren. Jaten emanda zegoen zaldia, manta hori bat gainetik behera uhalezaturik zuela, eta bi gizon ijito ari ziren urrunean elkarrizketan, ahots baxuan. Isiltasun eta ezkutukotasun giro berezi bat zegoen harrobi gorde bakarti hartan.

Azkenean zabaldu zen karabanako atea, eta Yvette agertu zen, aurrera makurka eta zango mehe, luze, sorginarenak bezalakoan pausoan mailetan behera. Isiltasun itzaltsu, sorgindurazkoan bezalakoan bildurik agertu zen Yvette ilunabarrean.

— Luze iruditu al zaizue? —esan zuen lausoki, inori begiratu gabe eta sekretua ondo gordeirik zuela bere setakeria leun lausoaren azpian—

. Espero dut ez zinetela aspertuko! Bai ederki etorriko litzaigukeela tea! Joango gara?

— Sartu zuek! —esan zuen Bobek—. Nik ordainduko dut.

Emakume ijitoaren jade-koloreko alpaka berdezko gona harro metalikoa mailetan behera etorri zen dantzan. Tente-tente eginda jarri zen, garaile-itxuran, otso-aurpegi beltzeko emakume handia. Katxemirezko txal arrosa lore gorriduna alde batera irristatzen zitzaion ile beltz kizkurtuaren gaintetik. Ilunabarrean ziren gazteei begiratu zien burgoikeria nabarmenez.

Bobek bi koroa-erdiko jarri zizkion eskuan.

— Pixka bat gehiago, zortea izateko, zure andereño gaztearen zorterako —esan zuen losintxari, otso losintxaria bezala—. Beste txanpon txiki bat, zortea izan dezazun.

— Baduzu txelin bat zorteagatik, nahikoa da hori —esan zuen Bobek poliki eta eratsu, auto aldera abiatzen zirela.

— Zilar pixka bat! Pixkatxo bat bakarrik, maitasunean zortea izan dezazuen!

Yvette, bere soin-adar luzeei blaustadan ezusteko mugimendua eraginez, bueltatu egin

zen autora sartzera zihoala, eta besoa luzatuta, hiruzpalau pauso eman eta zerbait jarri zuen emakume ijitoaren eskuan, eta gero, bere gorputz garaia makurtuz, autoan sartu zen.

— Zorion andereño gazte ederrari, eta ijitoaren bedeinkapena beretzat —egin zuen emakumearen ahots iradokior, erdi-isekazkoak.

Burrun! egin zuen motorrak, burrun! berriz ere zorrotzago, eta abiatu egin zen. Leok argiak piztu zituen, eta berehalaxe geratu zen ijitoen harrobia atzean gauaren belztasunean galduta.

— Gabon pasa! —dei egin zuen Yvettek, autoa abiatu zenean. Baina berea izan zen altxa zen ahots bakarra, kantaria eta lotsagabea bere nagitasunean. Autoaren argiek dizdiz egin zuten harrizko bidexkan behera.

— Yvette, esan behar digun emakume ijitoak zer esan dinan —esan zuen Lucillek Yvetteren galde ez ziezaioten nahi isilari buru eginez.

—A, zirraragarririk ezer ez —esan zuen Yvettek, bizitasun faltsuz—. Betiko kontua: zorte ona adierazten duen gizon beltzaran bat eta zorte txarra adierazten duen horail bat; eta heriotza bat familian, baldin amonarena esan nahi badu,

hain ikaragarria izango ez dena; eta hogeita hiru urterekin ezkonduko naizela, eta diru pila eta maitasun pila izango dudala, eta bi haur. Oso polita dena, baina politegia, badakizue.

— A! Orduan zergatik eman dion diru gehiago?

— Ba, nahi nuelako! Handiki antzean agertu beharra zegon horrelako jendearekin...

IV

Istilu ikaragarria izan zen erretore-etxean, Yvette eta Leihoaren Fondoa zirela eta. Gerra ondorenean, izeba Cissieri buruan sartu zitzaion elizan beirate bat jartzea, erori ziren elizbarrutiko gizonen oroigarri. Baina eroritakoen gehien-goia ez-konformistak izan zirenez, oroigarria kapera metodistaren aurrean ezarritako monumentu txiki itsusi batean geratu zen.

Ez zuen izeba Cissiek horregatik etsi. Boto bila ibili zen, ongile-azokak antolatu zituen, antzerki-ikuskitun amateurrak muntarazi zizkien neskei, bere leiho kuttunaren alde. Yvettek, antzeztearen eta norbere burua erakustearen alderdi hori oso atsegin baitzuen, *Mari Ispiluan* izeneko fartsaren ardura hartu zuen eta salmenta-diruak, kontuak egindakoan Leihoaren Fondori ordainduko zitzaizkionak bildu zituen. Neska bakoitzak bere itsulapikoa izango zuen Fondorako.

Izeba Cissie, batutako diru-kopuruak honez-kerokero ia aski izango zirela iritzita, Yvetteren itsu-

lapikokoak jasotzera joan zen. Hamabost txelin zeuden. Une lazgarria izan zen.

— Non da gainerako guztia?

— A! —esan zuen Yvettek arreta gabe—. Maileguan hartu dut. Ez zen hainbeste ere.

— Eta non dira *Mari Ispiluan*-ekin ateratako hiru libra eta hamahiruak? —galdetu zuen izeba Cissiek, infernuak ahoa zabaldu balu bezala.

— Bai, ba! Maileguan hartzea baino ez dut egin. Itzuliko ditut.

Izeba Cissie gaixoa! Gorrotoaren bunpuilu garratza lehertu zitzaion barrenean, eta eszena ikaragarria, itxuragabea, gertatu zen, zeinek bel-durrez eta gorrotoz dardaraz utzi baitzuen Yvette.

Erretoreak ere gogor egin zion.

— Dirua behar bazenuen, zergatik ez didazu esan? —esan zion lehor—. Ukatu al zaizu inoiz arrazoizko gauzarik?

— U ...uste nuen ez ziola axolarik —totelka esan zuen Yvettek.

— Eta zer egin duzu diruarekin?

— Uste dut gastatu egin dudala —esan zuen Yvettek begi asaldatuak zabal-zabalik eta aurpegi-goibel.

— Gastatu, zertan?

— Dena ez dut gogoan: galtzerdiak eta gauzak, eta zerbait eman ere egin dut.

Yvette gaixoa! Bere molde eta jarrera handikien ordainak jasotzen ari zen, bueltan. Erretorea haserre zegoen: aurpegian zakurrarena bezalako irri gaizto bat zuen. Beldur zen alaba ez ote zitzaion arituko Cynthia-zelako-haren ezaugarri mordoilo kutsaturen batzuk garatzen.

— Besteren diruarekin eskuzabaltasunez jokatzeko bazara, orduan? —esan zuen zakur-irri lehor batekin, zeinek erakusten baitzuen sinesgogor hutsa zela, bihotzez. Ez sinesmen berorik barrean, ez duintasunik bizitzan duen bihotzaren menpekotasuna. Erretoreak ez zuen Yvetteren gan konfiantzarik.

Yvettek zurbildu egin zen, eta oso urrundu. Haren harrotasuna, mundu guztiak itzali nahi zion gar hauskor preziatu hura, haize hotzak putz egindako garra bezala kikildu zen, itzali bezala, eta aurpegiak, orain negu-txilintza beza-

la zuri eta geldiak, erretorearen harrotasuna zen elur-lili zuriak, ez zuen ageri bizi-aztarnarik: abstrakzio huts estrainioa soilik.

— Ez du nigan konfiantzarik! —pentsatu zuen Yvettek ariman—. Ez naiz ezertxo ere beretzat. Ez naiz ezer, lotsaizuna besterik. Dena da lotsaizuna, dena da lotsaizuna!

Grina edo haserrealdi baten garrak, Yvette abail edo amorruz bete bazezakeen ere, ez zukeen degradatuko aitaren mesfidantzak, erakutsi zion jarrera sarkastikoak, degradatu zuen bezala.

Erretorea pixka bat izutu egin zen, gogoeta antzuaren isiltasunean. Azken finean, beharrezkoak zituen maitasun, konfiantza eta bizitza argi baten itxurak, ez zen ausartuko bihotzean zebil-kion sinesgorgorkeriaren har lodiari aurpegi ematera.

— Zer duzu esateko zeure burua zuritzeko? —galdetu zion.

Begiratu bakarrik egin zion Yvettek, erreto-reari izua sortzen zion negu-txilintxa aurpegi kordegabe harekin, eta errudun sentiarazi zuen. Beste hark, Cynthia-zelako-hark ere beldur hits

sor berarekin begiratu zion: sinesgogorkeria degradatzailearen, erretoreak bihotzaren erdian zuen harraren beldurrez. Erretoreak bazekien bihotzaren erdian har lodi ikaragarri bat zuela. Beste inork jakiteari zion beldur. Gorroto eria erakusten zion jakin eta atzera egiten zuen inori.

Atzera egiten ikusi zuen Yvette, eta bertan-
txe jarrera aldatu eta hartu zuen ziniko mundu-
tar umoretsuaren itxura.

— Beno! —esan zuen—. Itzuli egin behar duzu atzera, neskato, hori da guztia. Neuk aurre-ratuko dizut zure saritik. Baina hilean ehuneko lauко интереса kargatuko dizut. Deabruak berak ere ordaindu behar izaten du portzentaje bat zorren gainean. Hurrengoan, ziur ez bazaude, ez erabili zurea ez den dirurik. Tranpa egitea ez dago ongi.

Yvette hondatuta geratu zen, eta desloratuta eta umiliatuta. Burumakur arrastatu zen, harrotasun izpiak tarraka zituela. Bere buruak ere nazka ematen zion. Zergatik ukitu ote zuen, ukitu, diru legentsua! Haragi guztia kizkurtu zitzaion usteldurik bezala. Zergatik zen hori? Zergatik, zergatik zen hori?

Aitortu zion bere buruari dirua gastatzea gaizki egin zuela.

— Ez nuen egin behar, ez. Arrazoiz osoz haserretu dira —esan zion bere buruari.

Baina nondik zetorren haragiaren kizkurtze izugarri hura? Zergatik iruditzen zitzaion gaitz kutsakorren bat harrapatu zuela?

— Horren tuntuna bahaiz, horrexegatik dun, Yvette —eman zion errietan Lucillek; Lucille gai-xoa oso atsekabeturik zegoen—, heuk saltzen dienalako heure burua. Pentsa hezakeen konturaturako zirela. Diruak neuk jaso banitu hire orde, ez hukeen iskanbila hau guztia gertatuko. Penagarria dun, benetan! Baina hik ez dun inoiz aurretik pentsatuko nora eramango hauten hire ekintzek! Pentsa izeba Cissiek esan dizkin guztiak! Izugarriagorik! Zer esango zinan amak, entzun izan balu?

Gauzak oso okertzen zirenean, amarengan pentsatzen zuten, eta aita eta Saywelltarren etorki apaleko guztiak mesprezatzen zituzten. Amarena, noski, mundu garaiagoa izan zen, nahiz arriskutsuagoa eta «ezmoralagoa». Mundu berekoiagoa, zalantzarik gabe. Baina itxura begi-

ragarriagoa zuena. Eskrupulu gabeagoa eta destainarako joera handiagokoa, baina ez hain umiliagarria.

Yvettek beti pentsatu izan zuen bere haragi eder delikatua amarengandik jaso zuela. Saywelltar guztiak larrutsu samarrak ziren, eta barrutik har-joak. Baina bestalde Saywelltarrek ez zintuzten inoiz abandonatzen. Cynthia-zelakohark, aitzitik, erretorea abandonatu zuen danbateko batekin, eta harekin batera haurtxoak. Bere haurtxoak! Ezin zioten inola barkatu.

Errietaren ondoren, Yvette barrundatzen hasi zen bere beste sakratutasuna, bere haragi eta odol sentikor garbiaren, Saywelltarrek beren moraltasun izenekoarekin orbantzea lortu zutenaren sakratutasuna. Orbandu egin nahi izan zioten beti. Bizitzan sinesten ez zutenak ziren haiek. Cynthia-zelako-hura, berriz, agin izan zen moralean sinesten ez zuena soilik.

Yvette zorabiatu, eroririk eta nahasturik zebilen. Erretoreak itzuli zion dirua izeba Cissieri, andrearen haserre handirako. Amorru menderaezinaren bunpuilua hazita zuen artean. Ilobaren gaiztakeriaren berri elizbarrutiko aldizkarian

ematea gustatuko zitzaiokeen. Samingarria zen emakume hondatuarentzat albistea mundu guztira zabaldu ezin izatea. Nolako berekoikeria! Nolako berekoikeria! Nolako berekoikeria!

Gero erretoreak alabari bien arteko kontuaren egoera luzatu zion: zor ziona, horren gaineko interesa, Yvetteren sari murrizetik kendutako zenbatekoa. Baina ginea bat jarri zuen Yvetteren hartzekoan: erretoreak bere konplizitateagatik pagatu behar zuen ordaina.

— Errudunaren aita naizenez —esan zuen umoretsu—, ginea bateko isuna ezartzen zait. Eta horrekin garbitasunak eginda geratzen naiz.

Eskuzabala zen beti diruari zegokionean. Baina pentsatzen bide zuen dirua askatasunez erabiliz gero bere burua oso gizon eskuzabaltzat eduki zezakeela. Eta dirua erabiltzen zuen, are eskuzabaltasuna, Yvette mendean edukitzeko.

Eta afera ahaztutzat eman zuen. Dagoeneko ez dakit zer baino jostariago zebilen, itxurei bagagozkie. Uste zuen oraindik seguru zegoela.

Izeba Cissiek, ordea, ezin zuen bere alditxarra gainditu. Gau batean, Lucille party batera irtenda zela, Yvette aski goiz, oso triste, oheratu

zenean, eta, soin-adar bigun eroriak halako zurruntasun eta orbandura batez minbera, etzanda zegoela, atea zabaldu zen emeki, eta izeba Cissie agertu zen, bere aurpegi berdotza ate zirrikitutik luzatuz. Yvette izaturik tentetu zen.

— Gezurtia! Lapurra! Pizti berekoia! —eraso zuen txilioka izeba Cissieren maniako-aurpegiak—. Hipokrita hori! Gezurti hori! Pizti berekoi hori! Pizti ase-ezin hori!

Hain gorroto inpertsonal itzela zegoen maskara berdotz hartan, eta hitz frenetiko haietan, ezen Yvettek ahoa ireki zuen histeriak hartuta garrasi egiteko. Baina izeba Cissiek atea itxi zuen zabaldu zuen bezain ustekabean, eta desagertu egin zen. Yvettek ohetik jauzi egin eta giltzari eman zion. Eta berriro oheratu zen, gauza anormal nazkagarri hark eragindako izuak erdi eroturik, harrotasun kaltetuak paralizatu eta erdi sorgoturik. Eta horren guztiaren erdian, barre ero baten bunpuilua igo zitzaion. Hain barregarrikeria zikina zen!

Izeba Cissieren jokabideak ez zuen neska hainbeste mindu. Gauza fantastikoa zen azken

finean. Baina minduta zegoen egotez: soin-ada-rretan, gorputzean, sexuan, minduta. Minduta, sorgortuta, eta erdi deseginda, nerbioen bibrazioa eta kirrinka beste ezer gabe. Eta hain gaztea oraindik, ez zuen ulertzen zer gertatzen ari zen.

Etzan eta ijito izatea besterik ez zuen desiratzten. Kanpamendu batean, karabana batean bizitzea, eta gehiago etxe batean oinik ez jartztea, parrokiarik denik ez jakitea, eliza bati inoiz ez begiratzea. Bihotza gogorturik zuen erretore-etxeari zion nazkaz. Gorroto zituen barne-saneamendu eta bainugelaz hornitu etxe okarazleak. Gorroto zuen erretore-etxea, eta hark inplikatzten zuen guztia. Bizimodu maeldu, estoldako gisako hura, estoldarik inoiz aipatu ez arren, erditik hasi eta bi hankako bizilagun guztienganainokoei, amonarengandik zerbitzarienganainokoei usaina zeriena, zikina zen. Ijitoek bainugelarik ez zuten izango, baina behintzat estoldarik ere ez. Aire garbia zuten. Erretore-etxean ez zen inoiz aire garbirik. Eta pertsonen arimetan, itxita egondako airearen kiratsa.

Gorrotoa piztu zitzaion bihotzean, soin-ada-
rrak sorgorturik etzanda zegoela. Eta emakume
ijitoaren hitzak gogoratu zituen:

— Bada gizon beltzaran bat inoiz etxe batean
bizi izan ez dena. Maite zaitu. Gainerakoak biho-
tza zapaltzen ari zaizkizu. Bihotza zapalduko
dizute hilda duzula uste izango duzun arte. Baina
gizon beltzaranak geratzen den txinparta su
bihurtuko du, su ederra. Ikusiko duzu nolako su
ederra.

Emakumea hori esaten ari zitzaiola ere, Yve-
ttek nolabaiteko bikoiztasun bat sumatu zuen.
Baina ez zion axola. Haurraren gorroto hotz
garratzarekin gorroto zuen Yvettek erretore-
etxearen barrunbea, hango bizitzaren usteldura
modukoa. Atsegin zuen otso-itxurako emakume
ijito azal-beltz handi hura, urrezko uztai handiak
belarrietan, ile beltz uhintsuaren gainean zapi
arrosa, belusezko gerruntze marroi estua, eta
abaniko gisako gona berdeduna. Atsegin zituen
haren esku ilun, indartsu, gupidagabeak, Yvette-
ren ahur biguna hain gogor, otsoaren erpeak
irudi, estutzen zutenak. Atsegin zuen emakume
hura. Atsegin zituen haren arriskua eta barrengo

beldurrik eza. Atsegin zuen haren sexu sekretu, menderakaitza, ezmorala, baina berezko harrotasun gogor erronkaria zuena. Ezerk ez zukeen azpiratuko emakume hura. Mesprezatu egingo zituzkeen hark erretore-etxea eta erretore-etxe-ko moralitatea, guztiz! Amona esku batekin itoko zukeen. Eta destaina bera ziekeen aitari eta osaba Fredi, gizon bezala, eta Rover ternu-zakur zahar gizen adurtiari. Ema-destaina sardoniko itzela, beren buruak gizontzat zeuzkaten halako etxe-zakurrei.

Eta gizon ijitoa bera! Yvette dardaratu egin zen bat-batean, ijitoaren begi handi ausartak desirazko iradokizun nabarmenez beterik beregan jarrita ikusi balitu bezala. Desirazko iradokizun ezin nabarmenagoak ahozpez eta indarge etzanda utzi zuen ohean drogaren batek galdatu eta molde berriren batera isuri balu bezala.

Ez zion inori aitortu adu gaiztoko Leihoaren Fondoko bi libra emakume ijitoaren eskuetara joan zirenik. Aitak eta izeba Cissiek balekitez! Yvette boluptuoski mugitu zen ohean. Ijitoaren oroimenak berpiztu zizkion soin-adarrak, eta erretore-etxearenganako gorrotoa bihotzean

hormatu: orain, bada, indartsu sentitzen zen, indarge ez baino.

Yvettek, geroago, kontatu zionean Lucilleri izeba Cissiek gelako atean eginiko agerraldi dramatikoa, Lucille haserre bizian jarri zen.

— O, madari! —egin zuen oihu—. Utz zezaken behingoz. Uste dinat nahikoa aditu dugula honezkero! Jesus, esango litzateke izeba Cissie paradisuko hegazti perfektua dela! Aitak ahaztuztat eman din, eta azken finean, aitaren egitekoa dun morena badun. Isil dadila izeba Cissie!

Hain zuzen ere erretoreak ahaztu izateak, eta berriro Yvette lauso axolagabea baimen berezia lukeen izakia bezala tratatzeak, iraunarazten zion izeba Cissiren behazunari tantaka. Yvette gehienetan besteren sentimenduez ez jabetzeak, eta jabetzen ez zenez, arduratu ere ez egiteak, erotzeko puntuan jartzen zuen izeba Cissie. Zergatik bizi behar zuen kreatura gazte, ama gaizkilea zuen hark, izaki pribilegiatua bezala, beste pertsona batzuk ere bazirela konturatu ere egin gabe, muturraren aurrean zituen arren?

Lucille aldi honetan oso suminbera zebilen. Oreka pixka bat galtzen zuela ematen zuen, erretore-etxean sartzen zenean. Lucille gaixoa, hain zen serioa eta arduratsua. Harentzat izaten ziren egunerokoez gainerako ardurak, haren kontu izaten ziren sendagileak, botikak, zerbitzariak, eta gauza horiek guztiak. Lana beltz eta gogotik egiten zuen egun osoz hirian, argi artifiziala zuen gela batean hamarretatik bostak arte jardunez. Eta etxera etorri eta amonaren etengabeko galdetu-behar jasanezinak eta zahartasun bizkarroiak nerbioak aldean jartzen zizkionten.

Leihoaren Fondoaren afera itxura batean ahazturik zen, baina tentsio astun bat geratzen zen airean. Eguraldiak txarrean jarraitzen zuen. Lucille etxean geratu zen erdi-jai zuen eguneko arratsaldean, eta horrekin ez zion bere buruari batere onik egin. Erretorea bere estudioan zen; Lucille eta Yvette soineko bat egiten ari ziren azken andereño horrentzat; amona sofan zegoen atsedeten.

Soinekoa zetazko belusa urdinezkoa zen, oihal frantsesa, eta oso egoki emango zion. Luci-

Ilek berriro probarazi zion Yvettek: oso urduri eta disgustura zegoen besapeko erorkera zela eta.

— Bai aspergarria! —esan zuen Yvettek, ume-beso luze, guri, hotzarekin urdinkatzera egiten zutenak, luzatuz—. Ez hadi huskeriei begira ibili, Lucille! Oso ondo zegon!

— Hori beste eskerrik jasotzen ez badinat, nire arratsalde librea hiretzat soinekoa egiten pasatuta, hobe ninan nerontzat zerbait egitea.

— Tira, Lucille! Badakin nik ez dinadala eskatu! Badakin ez haizela gustura geratzen azken ikusia heuk ematen ez badion —esan zuen Yvettek, bere leuntasun amorragarri harekin, ukondo biluziak jaso eta sorbalda gaintetik ispilu luzera begiak ñarrotuz.

— Jakina! Hik ez didan eskatu! —oihu egin zuen Lucillek—. Igarri ez banio bezala zer nahi huen, batera eta bestera hasperen eta purrust hasi haizenean.

— Ni? —esan zuen Yvettek, harridura lauso batekin—. Zer, noiz hasi naun ni batera eta bestera hasperen eta purrust?

— Bai, andrea, badakin baietz.

— Bai? Ez, ez nekinan! Noiz hori? —Yvettek higuin berezi bat adierazteko gaitasuna zuen bere galdera suabe iheskorretan,

— Ez zionat besterik egingo soineko honi, geldi egon eta isiltzen ez bahaiz —esan zuen Lucillek, bere ahots gartsu nahiko ozenarekin.

— Badakin? Erabateko marmartia eta erretxi-na haiz, Lucille —esan zuen Yvettek, adreilu gorien gainean bezala.

— Aizan, Yvette! —oihu egin zuen Lucillek, begietatik tximista bezalako distirak jaurtikitzen zituela ahizparen aurpegira—. Isil hadi segituan! Zer uste dun, mundu guztiak men egin behar diola hire jenio gaizto eta agintzaileari?

— Ez zekinat, ba, zer jenio —esan zuen Yvettek, erdi eginiko soinekotik astiro irtenez, eta berriro bere soinekoa jantziz.

Gero, zaputz-aurpegia jarrita, berriro mahaian eseri zen, arratsalde goibelean, eta oihal urdina josten hasi zen. Gelako zorua oihal-izpi urdinez beterik zegoen, guraizeak lurrean, joste-saskia mahai gainean nahas-mahas iraulita, eta bigarren ispilu bat pianoaren gainean arriskutsu zutika jarrita.

Amona, lo-kuluxka zeritzon erdi-koma egoeran egonda, tentetu zen sofa bigun handian, eta txanoa zuzendu zuen.

— Ez dut bake handirik begi-bildu bat egiteko —esan zuen, ile zuri fina astiro haztatuz, txukun zegoela ziurtatzeko. Hots zehazgabe batzuk entzun zituen.

Izeba Cissie sartu zen, bonboi-zorro bati haztamuka.

— Ez dut horrelako nahaspilarik inoiz ikusi! —esan zuen—. Has zaitez lurreko horiek garbitzen, Yvette.

— Bai —esan zuen Yvettek—. Berehalaxe.

— Alegia inoiz ez! —esan zuen izeba Cissiek ironiaz, bat-batean makurtu eta guraizeak jasotzen zituela.

Isiltasuna izan zen tarte batean, eta Lucillek eskuak ile artean labaintzen zituen emeki, liburu bat irakurtzen ari zela.

— Garbi ezazu, Yvette —jarraitu zuen berean izeba Cissiek.

— Garbituko dut, tea baino lehen —erantzun zuen Yvettek, berriz ere altxatu eta soineko urdina burutik behera sartuz, beso luze biluziak

mahuka gabeko beso-zuloetatik ateratzen zituela. Gero ispiluen artera joan zen, bere buruari berriro begiratzera.

Horretan ari zela, bidali zuen bigarren ispilua, pianoaren gainean kontugabe ipinia zuena, labaindu eta klank lurrera. Zorionez, ez zen hautsi. Baina denak aztoratu ziren.

— Hautsi du ispilua! —egin zuen oihu izeba Cissiek.

— Ispilua hautsi? Zer ispilu? Zeinek hautsi du? —egin zuen amonaren ahots sarkorrak.

— Nik ez dut ezer hautsi —egin zuen Yvette-ren ahots lasaiak—. Oso-osorik dago.

— Ez ezan berriro hor goian jar —esan zion Lucillek.

Yvette, hainbeste zalapartaren aurrean ezinenezko keinu bat eginez, ispilua beste leku batean zutikatzen saiatu zen. Ez zuen lortu.

— Nork bere gelan sua balu —esan zuen haserre—, batek ez luke jende pila bat inguruan zirrikaka duela ibili beharrik josi nahi duenean.

— Zer ispilu da atzera eta aurrera darabilkizun hori? —galdetu zuen amonak.

— Bikario-etxetik ekarritako gure bat —esan zuen Yvettek zakar.

— Etxe honetan ez dadila hautsi, nonahitik ekarritakoa dela ere —esan zuen amonak.

Halako higuin bat zion familiak Cynthia-zelako-harena izandako altzariteriari. Gehiena sukaldean eta zerbitzarien geletan sartuta zegoen.

—A, ez naiz superstizioduna —esan zuen Yvettek—, ez ispilu ez beste horrelako ezerekiko.

— Zu baliteke ez izatea —esan zuen amonak—. Bere ekintzen erantzukizunik hartzen ez duen pertsona ez da arduratu ohi izaten gertatuko denaz.

— Dena den —esan zuen Yvettek—, nire ispilua da behintzat, puskatu izan banu ere.

—Eta nik esaten dut —esan zuen amonak—, etxe honetan ez dela inolako ispilurik puskatuko, galarazi ahal badugu; nornahirenak direla, edo izan direla. Cissie, zuzen al daukat txanoa?

Izeba Cissie joan zen eta andre zaharra zuzendu zuen. Yvettek ozen eta arnegagarri doinu doinugabe bat txorrotxiatu zuen.

— Eta orain, Yvette, garbituko al duzu mese-dez? —esan zuen izeba Cissiek.

— Bai aspergarria! —egin zuen Yvettek hase-
rre—. Izugarria da gero beti marmarrean eta
ezer ez eta festa dabilen jende pila batekin bizi-
tzea.

— Zer jende, jakin baliteke? —esan zuen
izeba Cissiek amenazuti.

Beste sesio bat zen gainean. Lucillek burua
jaso eta begietan argitasun estrainio bat zuela
begiratu zuen. Bi nesken baitan, Cynthia-zelako-
haren odola pizturik zen.

— Horixe jakin daitekeela! Oso ondo dakizu
etxe nazkagarri honetako jendeaz ari naizela —
esan zuen Yvette iraintzaileak.

— Gu behintzat —esan zuen amonak—, ez
gara erdi galduen jatorrikoak.

Bigarren isilaldi elektriko bat izan zen.
Orduan Lucillek jauzi egin zuen bere aulki baxu-
tik, txinpartak zerizkiola.

— Zu zaude isilik! —garrasi egin zuen, bete-
betean andre zaharraren majestate pikardatua-
ren gainera oldartuz.

Andre zaharraren bularra pilpiraz hasi zen
Jainkoak daki zer emozioz. Isilaldia oraingoan,
trumoiaren ondorenean bezala, jelazkoa zen.

Orduan izeba Cissiek, zurbil, Lucilleren gainera saltatu zuen, deabruak hartuta bezala bultzatzen egiten ziola.

— Segi zure gelara! —oihu egin zuen erlasturik—. Segi zure gelara!

Eta gelatik kanpora bultzatzen zion Lucille zuri baina begi-gartsuari. Lucillek bultzadari amore eman zion, izeba Cissiek deiadar egiten zion bitartean:

— Ez gelatik irten honegatik barkamena eskatu arte!... honegatik amonari barkamena eskatu arte!

— Ez dut barkamenik eskatuko! —etorri zen Lucilleren ahots garbia, korridoretik, izeba Cissiek bultzatzen zeramala.

Izeba Cissiek are zakarrago eraman zuen eskaileretan gora.

Yvette sor eta lor geratu zen egongelan, duintasun iraindua eta aldi berean nahasmena adierazten zuen bere jarrera bitxi harekin. Oraindik beso-hutsik zegoen, soineko urdin erdi-egina soinean. Bera ere erdi izaturik zegoen Lucillek adinaren maiesteari egindako erasoaren aurrean. Baina baita amorru sortez ere, zainetan

zeramaten ama-odolari amonak egindako laido-arengatik.

— Ez nuen inor iraintzeko asmorik noski — esan zuen amonak.

— Ez? —esan zuen Yvettek lehor.

—Ez horixe. Bakarrik esan dut ez garela giza-galduak, ispiluak puskatzeari dagokionean superstiziodunak garelako bakarrik.

Yvettek ia ezin zuen sinetsi entzuten zuena. Ondo aditu ote zuen? Ez zen posible! Edota ari zen amona, zuen adinarekin, kopeta guztiarekin gezurra esaten?

Yvette konturatu zen andre zaharra lasai-lasai eta kopeta guztiarekin gezurra esaten ari zela. Baina dagoeneko, hain azkar, amonak sine-tsirik zuen esan zuena.

Erretorea agertu zen, gauzak baretzeko denbora utzita gero.

— Zer gertatzen da? —galdetu zuen kontuz, lagunkiro.

—A, ezer ez! —esan zuen Yvettek hitzak luzatuz—. Lucillek isiltzeko esan dio amonari, zerbait esaten ari zela. Eta izeba Cissiek gelara eraman

du. *Tant de bruit pour une omelette!* Nahiz eta Lucille marratik pixka bat pasatu den, oraingoan.

Andre zaharrak ez zuen ondo aditzen Yvettek esaten zuena.

— Lucillek ikasi beharko du horratik nerbioak menderatzen —esan zuen andre zaharrak—. Ispilua erori da, eta kezkatu egin naiz. Hala esan diot Yvetteri, eta berak superstizioak eta etxe izugarri honetako pertsonak direla-eta zerbait esan du. Nik esan diot etxe honetako pertsonak ez direla gizagalduak, ispilu bat puskatzeak kezkatzen baditu ere. Eta orduan Lucille oldartu zait eta isiltzeko esan dit. Lotsagarria da nola jartzen diren ume hauek nerbioen mende. Badakit ez direla nerbioak besterik.

Izeba Cissie hitzaldi horren erdian sartu zen. Hasieran bera ere mutu geratu zen. Gero iruditu zitzaion, amonak esan bezala zela.

— Debekatu egin diot behera jaistea Materrari barkamena eskatzen ez dion bitartean —esan zuen.

— Duda egiten dut barkamena eskatuko due-nik —esan zuen Yvettek baretsu, erregina gisara, beso biluziei helduz.

— Nik ez dut desenkusarik nahi —esan zuen andre zaharrak—. Nerbioak besterik ez dira. Ez dakit zertara iritsi behar duten, horrelako nerbioak badituzte, adin horretan! Vibrofat hartu behar luke Lucillek. Ziurrenera Arthurrek tea nahiko du, Cissie.

Yvettek joste-lanak bildu zituen, gora joateko. Eta berriro bere doinua txorrotxiatu zuen, oso ozen eta desberdin. Dardaraz zegoen barrutik.

— Beste trapu berri bat! —esan zion aitak, lagunkiro.

— Beste trapu berri bat! —errepikatu zuen Yvettek eratsu, eskaileretan gora astiro zihoalarik, egunezko soinekoa besoan hartuta. Lucille kontsolatu nahi zuen, eta oihal urdina orain nola egokitzen zitzaion galdetu.

Lehen solairuko eskailburuan geratu zen ia beti egin ohi zuen bezala, bidera eta zubira ematen zuen leihotik begiratzeko. Shalotteko Anderearen gisara, imajinatzen bide zuen norbait etorriko zela ibai ertzean aurrera *Tira-lira* edo era horretako gauza argiren bat kantari.

V

Te-garaia zen berehala. Negu-txilintxak zeuden kanpoan etxe ondotik sarrateraino zihoan sarbide laburraren bazterretan, eta baratzaina zebilen zirri-mirri, erre kara makurtzen zen zelai bustiko parterre borobil hezeetan. Sarratetik aurrera jarraitzen zuen bide zurixka lokaztuak, ia berehalaxe harrizko zubia gurutzatu, bihurgunean buelta hartu eta gora, kea zerion ipar herrizka aldapatsu metatu mugerrera, zeina baitzegoen kokaturik harrizko errota goibelen harantzik, eta errota horiek ikusten zituen Yvettek aurrean ibar estuaren hondoan, tximinia luzeak garai eta zut zituztela.

Erretore-etxea Pappleren alde batera zegoen, ibar sakonean sartua; herria, berriz, beste muturrean goian, askoz aurrerago, erreka biziaren beste aldetik. Erretore-etxearen atzean mendi aldapatsua gailentzen zen, alertze soildu iluneko basoxka batekin, han barrena desageritzen zelarik bidea. Eta erretore-etxetik erreka igaro eta bertan, etxearen parez pare, ezponda

sakon eta sastrakatsua heltzen zen gaineko belardi goibel aldapatsuetaraino, eta horien maldak, berriz, oraindik gorago, zuhaiztiz ilundutako mendi-hegal, harkaitz grisez zipriztinduetaraino.

Baina etxearen muturretik, Yvettek bidea bakarrik ikusi ahal zuen bihurgunean buelta hartzen, pareta eta bere erramu-hesia igaro eta zubira jaisten, eta handik gaingora berriro bizkarrara gaindi Papplewick herriko lehen etxe-sail gogor hartara, landa maldatsuetako harrizko paretetatik aurrera.

Yvette beti zerbait etorri behar zuelakoan egoten zen Papplewickeko bidean behera, eta beti eskailburuko leihoan geratzen zen. Askotan gurdi bat etortzen zen, edo auto bat, edo kamioi bat harriz kargaturik, edo nekazari bat, edo zerbitzarietako bat. Baina inoiz ez ibai ertzean *Tiralira* abesten zuenik. Joanak ziren, antza, tiraliragaraiak.

Egun horretan, ordea, bide zurixkaren ertzetik, belar eta harrizko pareta baxuen artean, zaldi gorri bat zetorren pauso kementsu eta bizkorrean mendian behera, gizon biseradun batek, karro armaren aurrealdean kokaturik, gidatzen

zuela. Gizona karroaren zabura kulunkatzen zen aske, zaldia mendian behera zetorrela, arratsaldeko goibeltasun isilean. Karroaren atzean, lezkazko eta lumazko erratz luze hautsak kentzekoak ageri ziren, kanaberazko kirtenetan astinka.

Yvette leihora arrimatu zen, eta tapizezko gortinak bere atzetik jarri zituen, besagain biluziak eskuekin oratzen zituela. Maldaren oinetan zaldiak trosta bizkorrari ekin zion zubi aldera. Karroak kirrin-karran egin zuen harrizko zubi gainean, bilin-bolon astindu ziren erratzak, ametsetan bezala zihoan eserita gidaria, zabu eta zabu. Lotan ikusitako zerbait zirudien.

Baina zubiaren azken muturra gurutzatu zue-nean, eta erretore-etxeko paretaren ondotik pasatzean, gizonak begiak jaso zituen harrizko etxe goibel, sarratetik atzera eginda bezala, mendipean zegoenera. Yvettek agudo igurtzi zituen besoak eskuekin. Eta baita agudo ere, bisera hegala azpitik, ikusi zuen gizonak, eta atzartu zitzaion aurpegi beltzaran harraparia.

Bat-batean gelditu zen sarrate zurian, eskailburuko leihora begira jarrita; Yvette berriz, beso

hoztu eta pikardatuak oratuta zituela, baitaraturik begira zegokion, leihotik.

Gizonak buruari mugimendu arin bizkor bat eraginez zeinu egin zuen, eta zaldiari barter-bazterrera eragin zion, belar gainera. Gero, malgu eta erne, atzera bota zuen karroaren estalkia, gai batzuk atera zituen, tira egin zien lezka eta indioilar-lumazko bizpahiru erratz luzeri, karroa estali eta etxe aldera hartu zuen, Yvetteri gora begiratzen ziola sarrate zuria zabaltzean.

Yvettek buruarekin keinu egin zion, eta aldean bainugelara joan zen soinekoa janztera, bere keinua disimuluan pasatuko ahal zelakoan, gizonak ziur jakin ez zezan keinu egin zionik. Bien bitartean Rover erotzar haren orro sakon erlatsa entzun zuen. Trixie idiota gazte haren aiuriek etenda.

Yvette eta neskamea biak batera iritsi ziren egongelako atera.

— Gizon erratz-saltzailea al zen? —esan zion Yvettek neskameari—. Ondo da! —eta atea zabaldu zuen—. Izeba Cissie, erratzak saltzen dituen gizon bat da. Joango naiz?

— Zer gizon? —esan zuen izeba Cissiek, erre-torea eta Materrarekin tea hartzan ari zela, behingoagatik neskak otordutik kanpo utzita.

— Gizon karrodun bat —esan zuen Yvettek.

— Ijito bat —esan zuen neskameak.

Izeba Cissie berehala altxatu zen noski. Begi-ratu behar zion.

Ijitoa atzeko atean zegoen zutik, alertzeak zeuden begi ilun aldapatsuaren barrenean. Erratz luzeak erakusten zituen esku batean, eta kobre eta latoi distiratsuzko hainbat gauza zituen bestetik zintzilik: eltze bat, kandela-ontzi bat, kobre jozko platerak. Gizona bera garbi eta txukun zegoen, ponpox kasik, bere bisera berde ilunarekin eta zamarra berde koadrodun gurutzuarekin. Baina jarrera apala zuen, oso isila, eta aldi berean harroa, etorkortasun eta erreserba puntu batekin.

— Gaur ezer, andre? —esan zuen, izeba Cissieri begiratzen ziola begi ilun maltzur sarkorrekin, baina oso ahots xamur apala ipiniz.

Izeba Cissiek ikusi zuen zein ederra zen ijitoa, ikusi zuen haren ezpainen kurba malgua bibote beltzaren marraren azpian, eta aztoratuta zego-

en. Gizonaren aldetiko zakarkeria edo eraso seinalerik txikienak izeba Cissiek destainaz atea aurpegian danba ixtea zekarkiokeen. Baina hain sotilki asmatu zuen ijitoak bere ar-jasari menezotasun itxura ematen, non izeba Cissie duda egiten hasi baitzen.

— Polita da kandela-ontzia! —esan zuen Yvettek—. Zuk egin al duzu?

Eta gizonarengana jaso zituen ume-begi inozenteak, esanahi bikoitzak adierazteko gizonarenak berarenak bezain trebeak.

— Bai, andereño!

Gizonak begietara begiratu zion une batez, desirazko iradokizun nabarmen, Yvette sorginduta bezala eta borondate gabe uzten zuen harekin. Yvetteren aurpegi xamurrak lokartua zirudien.

— Izugarri polita da! —murmuratu zuen Yvettek lausoki.

Izeba Cissie tratuan hasi zen kandela-ontziatik: zeina baitzen kobrezko kirten lodi motz bat, gopor bikoitz baten erditik irteten zena. Ego-narriz eta zuhurtziaz atenditu zuen ijitoak izeba

Cissie, begiratu ere egin gabe Yvetteri, zeina baitzegoen atean apoiatuta gogoetatsu begira.

— Zer moduz emaztea? —galdetu zion bat-batean Yvettek, izeba Cissie barrura sartu zenean kandela-ontzia erretoreari erakustera, eta merezi ote zuen galdetzera.

Gizonak bete-betean begiratu zion, eta ozta-ozta nabari zen irribarreak kizkurtu zion ezpaina. Begietan ez zuen irribarrerik: suzko begiradak indartuagotzen zion iradokizuna soilik.

— Ondo dago. Noiz etorri behar duzu berriro alde hartara? —xuxurlatu zuen, ahots apal ferekari barnekoiez.

— Ba, ez dakit —esan zuen Yvettek lausoki.

— Etorri ostiralez, orduan han izaten naiz eta —esan zuen gizonak.

Ivettek ijitoaren sorbalda gainetik urrunera luzatu zituen begiak aditu ez balio bezala. Izeba Cissie itzuli zen, kandela-ontziarekin eta hura ordaintzeko diruarekin. Jiratu eta nagitsu alden-du zen Yvette, bere doinu kraskatuetako bat txorrotxiatuz, halako arrunkeria batez dena bertan behera utzita.

Alabaina, eskailburuko leihoan ezkutatuta oraingoan, gizona joaten ikusten geratu zen. Jakin nahi zuena zen, ea ba ote zuen gizon hark egiazko botererik beregan. Yvettek oraingo honetan ez zuen ijitoak ikusterik nahi.

Sarrate aldera joaten ikusi zuen, bere erratz eta lapikoekin, eta sarratetik irten eta karrora. Lapiko eta erratzak berriro beren lekuan jarri zituen tentuz, eta estalkia karro gainera bota eta egokitu zuen. Gero, esfortzurik gabe jauzi txiki bat ipurkain malguei eraginez, karroratu zen berriro, eta hedeekin ukitu zuen zaldia. Zaldi gorria segituan aldendu zen, karroaren gurpilak mendian gora kirrinka, eta berehala desagertu zen gizona, atzera begiratu gabe. Ametsa baizik izan ez den ametsa bezala joan zen, eta hala ere Yvettek burutik kendu ezin zuen.

— Ez, ez du niregan inolako botererik —esan zion Yvettek bere buruari, nahiko desilusionaturik egia esan, nahi baitzuen norbaitek, edo zerbaitek, beregan boterea izan zezan.

Gora igo zen, Lucille zurbil eta asalduarekin arrazoitzera, eta errietan eman zion hutsagatik horrela jarri zelako.

— Zer axola din —protestatu zuen—, amonari isiltzeko esan badion? Zer ba! Edozeinek merezi din isiltzeko esatea, gaiztoa jartzen denean. Baina ez zinan intentzio txarrik, badaikin? Ez, ez zinan intentzio txarrik. Eta asko sentitzen duela esan din. Ez zegon motiborik hainbesteko garrantzia emateko. Tira, jantzi eta jaitsi gaitezen afaltzera dukesak bezala. Horrela pegatuko dizkinagu. Tira, Lucille!

Halako sentrazio estrainio eta katramilatsu bat, aurpegian amaraunak eransten direnean bezalakoa, sortzen zuen Yvetteren bozkario lausoak, desatsegina zitzaiona saihesteko zuen modu arraro, lainotsuak. Alaigarria ere bazen. Baina udazkeneko lanbro arte horietan armiarma sareak aurpegian erasten direla ibiltzea bezala zen. Batek ez daki oso ondo non dagoen.

Lortu zuen, dena den, Lucille konbentzitzea, eta neskek jai-soineko onenak atera zituzten: Lucillek berde eta zilar-kolorekoa jantzi zuen, Yvettek lila argi turkesa-koloreko brodatuduna. Ezpainak pixka bat gorritu eta masailak pixka bat hautsezatu, zituzten oinetakorik onenak jantzi, eta paradisuko jardinak loratzen hasi

ziren. Yvettek huumm egin eta bere buruari begiratu zion, eta markesa gazte baten manera *dégagé*-enak hartu zituen. Modu xelebreaan okertzen zituen bekainak eta zimurtzen zituen ezpainak, eta itxura guztien arabera kontsiderazio material guztietatik apartaturik, bere perla-kolorereko pentsamenduen lainoan flotatzen zuen. Barregarria zen, eta ez oso konbentzigarria.

— Jakina nagoela polita, Lucille —esan zuen ilaunki—. Eta hi benetan zoragarri hago; beno, haserre-itxura pixka bat dunala. Hori bai, hi haiz biotan aristokratikoena, sudur horrekin! Eta gero begi haserreak ditun, eta horrek itxura erakargarriagoa ematen din, eta ezin hobeto hago, ezin zoragarriago. Baina ni distiratsuago nengoen, alde batera... Ez zain iruditzen?

Sinpletasun artetsu konplikatuz itzuli zen Lucillerengana.

Egiazko sinpletasunez esan zuen esan zuena. Pentsatzen zuena baino ez zen. Baina ez zuen iragartzen kezkatzen zuen oso bestelako sentimendu bat ere bazuela: begiz neurtua izandako sentimendua, ez kanpotik, baizik eta barrutik, bere emetasun gordetik. Jantzi onenak jantzen

eta bere burua ahalik eta distiratsuen ipintzen ari zen, arintzeko hain zuzen ere ijitoak egin zion efektua, begiratu zionean eta ikusi ez bere aurpegi polita edo manera politak, baizik eta bere birjintasunaren sekretu indartsu, dardarati, iluna.

Bi neskak eskaileretan behera abiatu ziren ponpa handiz afaritarako gong-ak jo zuenean; baina itxaron egin zuten gizonen ahotsak entzun zituzten arte. Orduan arranditsu jaitsi eta egongelan sartu ziren, Yvette gandorturik bere jarre-ra lauso alaitsuan, zertxobait distraiturik beti; eta Lucille lotsati, negarrari emateko puntuan.

— Jainko maitea! —esklamatu zuen izeba Cis-siek, artean puntuzko txaketa marroi iluna jantzita zegoela—. Hau agerpena! Nora joan behar duzue?

— Familiarekin afaldu behar dugu —esan zuen Yvettek xaloki—, eta ditugun zirtzileria one-nak jantzi ditugu okasiorako.

Erretoreak barre ozena egin zuen, eta osaba Fredek esan zuen:

— Familia, berriz, oso ohoratua sentitzen da. Bi gizon nagusiak oso adeitsu zeuden: Yvettek nahi zuena.

— Zatozte eta utzidazue soinekoak ukitzen, tira! —esan zuen amonak—. Dituzuen onenak al dira? Tamalgarria da nik ezin ikusi izatea.

— Gaur, Mater —esan zuen osaba Fredek—, andereñoei lagundu beharko diegu afaltzera, ohore honi dagokion bezala erantzuteko. Joango zara Cissierekin?

— Bai horixe —esan zuen amonak—. Gaztetasuna eta edertasuna dira lehenik.

— Gaur behintzat, Mater! —esan zuen erreto-reak atseginez.

Eta besoa eskaini zion Lucilleri, osaba Fredek Yvette eskoltatzen zuen bitartean.

Baina otordu narras tristea izan zen, hala eta guztiz ere. Lucille alai eta adiskidetsu egoten saiatu zen, eta Yvette egia esan oso adeitsu egon zen, bere jarrera lauso amarauntsuan. Ilunki, bere gogoaren zokondoan, pentsatzen zuen: Zergatik gara denok altzari pieza hilkorrak bezalakoak? Zergatik ez dago ezer garrantzizkorik?

Hori zuen bere arteko etengabeko leloa: Zergatik ez dago ezer garrantzizkorik? Elizan baze-
goen, edo gazteen party batean, edo hiriko hote-
lean dantzan, galderatxo bitxi bera etortzen
zitzaion behin eta berriz gogora: Zergatik ez
dago ezer garrantzizkorik?

Mutil gazte asko ziren gorteatzen zutenak:
leialki gainera. Baina Yvettek lehenbailehen
uxatu behar izaten zituen ondotik. Zergatik ziren
hain garrantzi gabeak? Hain amorragarriak?

Ijitoarengan ez zuen gehiago pentsatu. Bate-
re muntarik gabeko pasadizo bat izan zen hura.
Hala ere ostiralaren gerturatzeak ustekabeko
garrantzia hartu zuen.

— Zer egin behar dinagu ostiralean? —galde-
tu zion Lucilleri.

Eta Lucillek erantzun zion ez zutela ezer egin
behar. Eta horrek nahigabetu egin zuen Yvette.

Etorri zen ostirala eta, gogoz beste izan
arren, egun osoan Bonsall Head gaineko bide
ondoko harrobian pentsatzen egon zen Yvette.
Han egon nahi zuen. Hori besterik ez zekien. Han
egon nahi zuen. Bertara joatea ez zitzaion buru-
tik ere pasatu. Gainera, euria ari zuen berriz ere.

Baina soineko urdina josten ari zela, biharko Lambley Closeko party-rako bukatzeko, sentitzen zuen gogoa han goian zuela, harrobian, karabana artean, ijitoekin. Galdu dena bezala, edo gogoa ebatsi diotena bezala, ez zegoen gorputzean, gorputzaren oskolean, presente. Gorputz intrintsekoa harrobian zuen, karabanen artean.

Hurrengo egunean, party-an, ez zen konturatu Leo maitekiro tratatzen ari zenik. Ez zen konturatu Ella Framley tormentatuari harrapatzen ari zitzaionik. Ez harik eta, pistatxoeko izozkia jaten ari zela, Leok esan zion arte:

— Zergatik ez gara zu eta ni konprometitzen, Yvette? Konbentzituta nago hori dugula biok onena.

Leo arrunt samarra zen, baina bihotz onekoa eta diruduna. Yvettek oso gogoko zuen. Baina konprometitu! A zer lelokeria! Zetazko azpiko arropa joku bat eskaintzeko gogoa ematen zion, konpromiso seinale bezala.

— Baina uste nuen Ella zela! —esan zuen Yvettek, harriturik.

— Beno, izan zitekeen, zu izan ez bazina. Zure jokabidea izan da, badakizu? Ijito horiek fortuna esan zizutenetik, sentitu dut ni beste inor ez dela, zuretzat, eta zu beste inor ez, niretzat.

— Benetan? —esan zuen Yvettek, txundiduraz galduta—. Benetan?

— Ez al duzu zuk ere gauza bertsua sentitu? —galdetu zion mutilak.

— Benetan? —jarraitzen zuen Yvettek esaten, txatxuaren moduan.

— Gauza bertsua sentitu duzu, ezta? —esan zion Leok.

— Zer? Zertaz? —galdetu zuen Yvettek, senera etorriz.

— Nireganako, nik zureganako sentitzen dudan bezala.

— Zer? Zer? Konprometitu, diozu? Ni? Ez! Baina nola egingo dut horrelakorik? Ez zait inoiz burutik pasatu ere egin hain gauza ezinezkorik.

Ohiko xalotasun arduragabez mintzo zen Yvette, Leoren sentimenduak batere aintzako-tzat hartu gabe.

— Zerk galarazten dizu? —esan zion Leok, zertxobait minduta—. Uste nuen baietz.

— Hori uste zenuen benetan? —arnastu zuen txunditurik Yvettek, miresleak eta etsaiak sortzen zizkion xalotasun leun, birjinazko, arduragabe harekin.

Hain zegoen txunditurik, ezen Leok ezin baitzuen ezer egin, higuinez eskuak antxumatu besterik.

Musika hasi zen, eta Leok Yvetteri begiratu zion.

— Ez! Ez noa dantza gehiago egitera —esan zuen Yvettek, burua tentetu eta harroxko samar taldearen gainetik beste aldera begira, Leo ez balego bezala. Harridura eta nahasmen ukitu bat zuen bekokian, eta bere birjina-aurpegi zurbil leunak zinez gogorarazten zuen aitaren imajinateria patetikoko negu-txilintxa.

— Baina zuk dantza egingo duzu noski —esan zuen, berehalako etorkortasunez Leorengana jiratuta—. Eskaiozu norbaiti hau zurekin dantza-tzeko.

Jaiki zen Leo, haserre, eta gelan barneratu zen.

Yvette leun eta urrun geratu zen bere txundiduran. Leok ezkon proposamena egingo ziola uste! Rover ternu-zakur zaharrak ezkon proposamena egingo ziola uste izatea bezala. Konprometitu, munduko edozein gizonekin ere? Ez, arranetan, gauza itxuragabeagorik ez zitekeen imajina!

Orduan ohartu zen, zehar-pentsamendu bizkor baten eraginez, ijitoa bazela. Istanteko, amorruz bete zen. Hura, zein eta hura! Hura! Ezta inola ere!

— Baina zergatik? —galdetu zion bere buruari, berriro txundi eta mutu—. Zergatik? Guztiz ezinezkoa da hori: guztiz ezinezkoa! Zergatik orduan?

Ez zen korapilo samurra askatzen. Mutilei begiratu zien dantzan ari zirela: ukondoak kanpoaldera, mehaka irtenak, gerria dotore sartuta. Ez zioten aztarnarik eman bere arazoarentzat. Baina bereziki desatseginak zitzaizkion gerrien dotorezia behartua eta mehaka irtenak, zeinen gainera erortzen baitziren txaketa ongi egitura-tuak txukuntasun emetu batekin.

— Badut nik horiek ikusten ez duten eta inoiz ikusiko ez duten zerbait —esan zion haserre bere buruari. Eta aldi berean lasaitu egin zuen ez zutela ikusten eta ez zutela ikusiko jakiteak. Askoz errazagoa bihurtzen zuen horrek bizitza.

Eta berriz ere, irudi bidez pentsatzen duten pertsona horietakoa zenez, ijitoaren galtza beltzen goiko jertse berde iluna, haren mehaka fin, bizi, begiak bezain erneak ikusi zituen. Haiek dotoreak ziren. Dantzari hauen dotoretasunak hain zirudien puztua: haragi hutsez beteak mehakak. Berdin Leo, bere burua hain dantzari iaioztat, hain itxura ederreko mutiltzat zeukana!

Eta ijitoaren aurpegia ikusi zuen: sudur zuzena, ezpain lirain mugikorrak, eta begirada sarkor adierazgarria begi beltzetan, zeinek bai baitziruditen Yvetteren gune bizi, deskubritu gaberen batera tirokatzen zutela, huts egin gabe. Burua tentetu zuen Yvettek haserre. Nola ausartu zitzaion horrela begiratzera? Eta begiak sutan begiratu zien dantzalekuko galai gatzgabeei. Eta mesprezatu egin zituen. Emakume ijito zarpajarioek ijito ez diren gizonak mesprezatzten dituzten bezala, kolean zehar daramaten zakur-ibile-

ra mesprezitzen duten bezala, bera ere konturatu zen mesprezua ziola talde horri. Non zuten horiek bera uki zezakeen erronka sotil, bakarti, iradokior hura?

Ez zuen elkartu nahi etxe-zakur batekin.

Sudur sentikorra zimurtzen zuela, gaztaina koloreko ile leunak zorro leun batek bezala lore-aurpegi xamurra biltzen ziola, gogoetari zegoen Yvette eserita. Hain zirudien birjinazkoa. Eta aldi berean, bazuen birjina gazte zut sorginaren ukitu bat, gizon etxe-zakurrak urrunarazten zituena. Gauza misterioitsu batean metamorfosa zitekeen inor konturatzerako.

Horrek bakardadea ekartzen zion, gorteaketak gorteaketa. Gorteaketek ez zioten agian bakardade handiagoa ekarri besterik egiten.

Leo, artzain-zakur moduko bat etxe-zakurren artean, dantza saioaren ondoren itzuli zen, animotsu eta adoreberriturik.

— Pentsatu duzu pixka bat horretan, ezta? — esan zuen, Yvetteren ondoan esertzen zela: modu oneko mutila, ondo elikatua, erabakikoa. Yvettek ez zekien zer zen hain arrazoigabe amorrarazi zuena, Leo, galtzei tira egin belaur

parean gora, zango proportzionatu baina ez oso printzipalen gainera, eta ziurtasunez aulki batean eseri zenean.

— Pentsatu? —esan zuen Yvettek lausoki—. Zer?

— Badakizu zer —esan zuen Leok—. Erabaki al duzu?

— Zer erabaki? —esan zuen Yvettek, xaloki. Kontzientziaren maila gorenean, benetan zegoen ahazturik.

— O! —esan zuen Leok, berriro galtzei eraginez—. Zu eta ni konprometitzearena, badakizu.

— Ia Yvette bezain natural zegoen.

— Guztiz ezinezkoa da hori —esan zuen Yvettek, adeitasun onberaz, gainerako guztietatik aldentzen zen gaia balitz bezala—. Begira, ez dut horretan gehiago pentsatu ere egin. Tira, ez ezazu horrelako zentzugabekeriarik esan! Guztiz ezinezkoa da hori —errepikatu zuen umea bezala.

— Guztiz ezinezkoa hori? —esan zuen Leok, Yvetteren baieztapen lasai, urrunaren aurrean irribarrestrainio bat eginez—. Beno, eta zer da

posible, orduan? Ez duzu, ba, neskazahar hil nahiko, ala?

— Ez dit axola —esan zuen Yvettek distraiturik.

— Niri bai —esan zuen Leok.

Yvettek burua jiratu eta Leori begiratu zion harriturik.

— Zergatik? —esan zuen—. Zergatik axola behar dizu zuri ni neskazahar izateak?

— Munduko arrazoi guztiengatik —esan zuen Leok Yvetteri begiratzen ziola irribarre ausart esanguratsu batekin, esanahia argi eta garbi, ukaezin ez esateagatik, agertu nahirik.

Baina Yvetteren toki sakon sekreturen batean sarta eta han jo ordez, Leoren irribarre ausart argi eta garbiak gorputzaren kanpoko aldean jo zuen Yvette, tenis pilota batek bezala, eta gisa bereko amorruzko erreakzioa eragin zion bat-batean.

— Nik uste, kontu hau ergelkeria galanta da —esan zuen, mokoti batena bezalako higuinez—. Tira, esateko moduan konprometituta zaude beste... beste... —hitzekin batera bere burua tentetzen zuen— ...beharbada dozena erdiren

bat neskarekin. Ez nau lausengatzen esan dida-
zunak. Ez nuke nahi inork jakiterik!... Inork!... Nik
ez dut hitzik aterako honetaz, eta espero dut zuk
ere izango duzula hainbeste zentzun. Hor dago
Ella!

Eta Leori begiratu gabe, lore garai leun bat
bezala arranditsu aldendu zen, Ella Gramley gai-
xoarekin elkartzera. Leok bere goante zuriak
zaplatu zituen.

— Katakume sorgin maltzurra! —esan zuen
bere artean. Baina Leo artzain-zakurretakoa zen,
gustatu egiten zitzaion kasik katakumeek mutu-
rrean purrust egin ziezaioten. Yvette besteen
artetik erabat bereizten hasi zen.

VI

Hurrengo astean ere euria goian-behean egin zuen. Eta horrek sortzen zion amorru estrainioa-rekin erreta zebilen Yvette. Eguraldi ona izango zela espero zuen. Batez ere asteburu aldera ona egingo zuela sinetsita zegoen. Zergatik, ez zion bere buruari galdetu.

Osteguna, egun erdiko jaia, izotz latz eta eguzki etorri zen. Leo heldu zen autoarekin: betiko taldea. Yvettek zakarki eta ezustean uko egin zion joateari.

— Ez, eskerrik asko, ez dut gogorik —esan zuen.

Mari-desberdin izatea gustatzen zitzaion.

Eta bakarrik joan zen paseatzera, mendi izoztuetan gora, Black Rocks aldera.

Biharamuna ere eguzkitsua eta izoztua etorri zen. Otsaila zen, baina iparraldean eguzkiak ez zuen lurreko izotza urtzen. Yvettek jakinarazi zuen bizikletan buelta bat ematera zihoala, eta bazkaria eramango zuela agian arratsaldea arte itzuliko ez zenez.

Abiatu zen, presarik gabe. Izotz eta guzti, eguzkiak udaberriko ukitua zuen. Parkean, oreinak ikusten ziren urrunean, eguzkitan, epelean. Orein eme pintazuri batek zeharkatu zuen poliki-poliki paisaia geldia.

Bizikletan, Yvetteri zaila gertatzen zitzaion eskuei epel eustea, gorputza aski bero bazuen ere. Aldapa luzean gora, tontorrera bidean, oinez joan behar izan zuenean, eta haizeak jotzen ez zuenean bakarrik.

Gainaldea oso soila eta argia zen, beste mundu bat bezalakoa. Beste maila batera igoa zen. Poliki-poliki eragiten zion bizikletari, pixka bat beldurturik bide okerra hartuko ote zuen, harrizko hesitura ugarien labirintoan. Zuzena iritzi zion bidean aurrera zihoala, kaska-kaska hots itzali bat, erresonantzia metaliko arin batekoa, entzun zuen.

Gizon ijtoa zegoen lurrian bizkarra karroaren gurtagaren kontra eserita, kobrezko ontzi bati mailuka. Eguzkitan zegoen, buru-hutsik, baina jertse berdea jantzita. Hiru haur txiki zebiltzan lasai batera eta bestera, zaldiaren aterpean jolasean; zaldia eta karroa ez zeuden. Emakume

zahar bat, makurtuta, painelua buruan, arbaz eginiko suaren gainean kozinan ari zen. Mailu txikiak kobre bigunaren gainean egiten zuen tak-tak-tak bizkorraren txirrina beste hotsik ez zen.

Gizonak segituan jaso zuen burua, Yvette bizikletatik jaitsi zenean, baina ez zen mugitu, mailukatzeari utzi bazion ere. Garaipen-irribarre arin, ozta-ozta suma zitekeen bat zuen aurpegian. Emakume zaharrak burua jiratu eta begiratu zuen, jakin-minez, ile gris zikinaren azpitik. Erdizka entzun zen zerbait esan zion gizonak, eta emakumea atzera bere sura itzuli zen. Ijitoak Yvetteri begiratu zion.

— Zer moduz zarete denok? —galdetu zuen Yvettek gizabidez.

— Ondo. E! Eseri nahi minutu batean?

Ijitoa eserita zegoen lekuan jiratu zen, eta aulki motz bat atera zuen karabanaren azpitik Yvetterentzat. Gero, Yvettek bizikleta harrobi bazterrera zeraman bitartean, mailuka hasi zen berriro, txoriarena bezalako kolpe arin bizkor harekin.

Yvette suaren ondora joan zen eskuak bertzera.

— Bazkaria al da? —galdetu zion umearen modura ijito zaharrari, hotzak gorritu esku luze xamurrak txingarren gainera zabaltzen zituela.

— Bazkaria, bai! —esan zuen andre zaharrak—. Horrentzat! Eta umeentzat.

Sardexka luzearekin seinalatu zituen hiru haur begi-beltz begiratiak, kopetile beltzen azpitik begirik kendu gabe zegozkionak.

Baina haiek garbi zeuden. Andre zaharra bakarrik zegoen zikin. Harrobia bera ere oso garbi zeukaten.

Yvette pikotxean zegoen isilik, eskuak berotzen. Gizonak mailuari eragiten zion bizkor tartetka isiluneak eginez. Atso zahar enasa astiro igo zen hirugarren karabanako, karabana zaharreneko mailetan gora. Haurrak jolasean hasi ziren berriro, animaliatxo basatiak bezala, lasai eta bizitsu.

— Zure haurrak al dira? —galdetu zuen Yvettek, sutondotik altxatu eta gizonarengana joanda.

Gizonak begietara begiratu zion, eta baietz egin zion buruaz. —Eta non da zure emaztea?

— Saskiarekin irtenda da. Irtenda dira denak, karro eta guzti, gauzak saltzera. Ni ez naiz joaten gauzak saltzera. Nik egiten ditut, baina ez naiz saltzen ibiltzen. Ez askotan. Ez naiz askotan ibiltzen.

— Zuk egiten dituzu kobrezko eta latoizko gauza guztiak? —esan zuen Yvettek.

Buruaz baietz egin zion ijitoak, eta aulki motza eskaini zion berriro. Yvette eseri egin zen.

— Esan zenuen hemen izaten zinela ostirale-tan —esan zuen Yvettek—. Eta alde honetara etorri naiz, eguraldi ederra zegoen eta.

— Oso egun ederra! —esan zuen ijitoak, erreparatzen ziela Yvetteren masaila artean zertxobait hotzak urdinduei, eta belarri gorrituen gaineko ile leunari, eta belaunen gainean zituen esku luze belunduei.

— Hoztu bizikletan? —galdetu zion ijitoak.

— Eskuak! —esan zuen Yvettek, urduri estutzen zituela.

— Ez zenuen goanterik?

— Bai, baina ez didate askorik balio izan.

— Hotza sartu egiten dela! —esan zuen ijitoak.

— Bai! —Yvettek erantzun.

Andre zaharra astiro, modu groteskoan jaitsi zen karabanako mailetan behera, plater esmaltatu batzuekin.

— Bazkaria egosirik, ez? —dei egin zion gizonak bigunki. Andre zaharrak ahopean zerbait esan zuen, platerak suaren inguruan zabaltzen zituen bitartean. Bi pertz zeuden zintzilik burdinazko barra horizontal batetik, sutako txingarren gainean. Eltzetxo bat pol-pol burdinazko hiru-hankako batean. Eguzkitan, beroak eta lurrinak batera ñirñir egiten zuten.

Utzi zituen ijitoak erremintak eta ontzia, eta lurretik altxatu zen.

— Zer edo zer jango gurekin? —galdetu zion Yvetteri, begiratu gabe.

— Ekarri dut nik nire bazkaria —esan zuen Yvettek.

— Egoskari pixka bat jango? —ijitoak.

Eta isilka, gordeka deitu zion berriro ere andre zaharrari, eta ahopean erantzun zion hark, burdinazko pertza barraren muturrera irristatzen zuen bitartean.

— Babarrun batzuk, ardiki pixka batekin —
esan zuen gizonak.

— Ez, mila esker! —esan zuen Yvettek.

Gero, bat-batean adorea bilduz, erantsi zuen:

— Beno, bai, pixkatxo bat bakarrik, posible bada.

Yvette bizikletan lotuta zeukan bazkaria hartzera joan zen, eta gizona mailetan gora bere karabanara. Minutu barru agertu zen, eskuzapi batean eskuak lehortuz.

— Igo eta eskuak garbitu nahi dituzu? —esan zuen.

— Ez, ez dut uste —esan zion Yvettek—. Garbiak dauzkat.

Garbitzen erabili zuen ura harrika bota zuen ijitoak, eta bidean behera abiatu zen latoizko pitxer luze batekin, putzu txiki batera zerion iturritik ur garbia hartzera, ura jasotzeko edalontzi bat hartuta.

Itzuli zenean, sutondoan jarri zituen pitxerra eta edalontzia, eta enbor motz bat ekartzera joan zen, esertzeko. Haurrak lurrean eseri ziren, suaren inguruan, txordoan, babarrunak eta haragi pusketak koilarez nahiz eskuz jaten. Enbo-

rrean eseritako gizona isilik, baitaraturik bezala ari zen jaten. Emakumeak kafea egin zuen hiruhankakoaren gaineko eltze beltzean, eta herrenka joan zen mailetan gora katiluak ekartzera. Isiltasuna zegoen kanpamenduan. Aulki motzean eseri zen Yvette, kapela kendu eta ilea eguzkitan astinduta.

— Zenbat haur dituzu? —galdetu zion Yvettek bat-batean ijitoari.

— Bost bat —erantzun zuen astiro ijitoak, Yvetteri begietara begira.

Eta Yvetteren bihotzaren txinta zapuztu zen berriro eta mututzear zirudien. Lausoki, ametsetan bezala, kafe katilua hartu zuen ijitoarengandik. Ijitoaren irudi isila bakarrik hautematen zuen, itzal bat bezala enborrean eserita, katilu esmaltatu bat eskuetan, isilik kafea edaten. Borondatea aienaturik zen Yvetteren soin-adarretatik; bazuen beregan boterea ijitoak: haren itzala zuen gainean.

Eta ijitoak, bere kafe beroari putz egiten zion bitartean, gauza bat bakarrik hautematen zuen: Yvetteren birjintasunaren fruitu misteriotsua, haren gorputzaren xamurtasun perfektua.

Azkenik, utzi zuen kafe katilua sutondoan, eta Yvetteri begiratu zion. Yvetteri aurpegira erortzen zitzaion ilea, katilu berotik txurrut egiten saiatzen zen bitartean. Lore guztiz zabaldurik burua makurtzen duenean bezalako lo-itxura gozoa zuen aurpegian. Lore goiztiar misteriotso baten gisara, guztiz zabaldurik zen, hiru hego zuriak loraldi laburraren lo-beilara hegaldatzen dituen negu-txilintxa bezala. Birjintasun loratuaren lo-beilan zegoen Yvette, negu-txilintxa bezala eguzkitara murgildurik.

Ijitoa, Yvettez oroz gain oharturik, zain zegoen itzala bezala, zain eta bertan, itzala bezala.

Azkenean ijitoaren ahotsak, sorgindura eten gabe, esan zuen:

— Joan nahi duzu orain nire karabanara, eskuak garbitzera?

Yvettek birjintasun perfektuzko une hartan zituen ume-begi itzarririk lokartuek ijitoarenei begiratu zieten, ikusi gabe. Ijitoaren indar ilun estrainioak soin-adarrak blaitzen zizkiola, azkenean borondate gabe uzteraino: ez zen bestez ohartzen. Ijitoa hautematen zuen, botere ilun erabatekotzat.

— Uste dut baietz —esan zuen Yvettek.

Isilik altxatu zen ijitoa, jiratu eta andre zaharrari hitz egin zion, ahots baxuan agintzen ziola. Eta ondoren Yvetteri begiratu zion berriro, eta bere boterea ezarri zion: Yvettek, bada, ez zuen izan ez bere buruaren ez bere ekintzen erantzukizunik.

— Etorri! —esan zion ijitoak.

Yvettek jarraitzea besterik ez zuen egin, jarraitu egin zion aurretik zihoan gorputz haren mugimendu isil, sekretu, menderatzaileari. Ez zitzaion batere kostatzen. Ijitoaren borondatean galdurik zen.

Ijitoa mailen buruan zela, eta oinetan Yvette, neskak hots bat tartekatu zela sumatu zuen. Gelditu egin zen, mailen barrenean. Auto bat zetorren. Ijitoa mailen buruan geratu zen, jiratu eta estrainioki begira. Andre zaharrak zerbait hots egin zuen gogor, azkar handiagotzen zen hotsez auto bat hurbiltzen ari zela. Pasatzera zihoan.

Orduan emakumezko baten oihua entzun zuten, eta autoa frenatzen. Gelditurik zen autoa, harrobiaren beste aldean.

Ijitoa mailetan behera etorri zen, karabanako atea itxita.

— Kapela jantzi beharko duzu —esan zion Yvetteri.

Zintzo-zintzo joan zen Yvette sutondoko aulki motzera, eta kapela hartu zuen. Ijitoa karroaren gurpilaren ondoan eseri zen, betilun, eta erre-mintak hartu zituen. Mailuaren tak-tak-tak bizkorrak ekin zion, bizkor eta haserre orain metraile-ta txiki baten hotsa bezala, justu emakumearen deia entzun zenean:

— Berotu al ditzakegu eskuak kanpamenduko sutan?

Aurrera egin zuen emakumeak, pitotx-larruzko abrigo dotore eta astun bat jantzita zuela. Gizon batek jarraitzen zion, abrigo sendo urdin bat soinean, larruzko goanteak kendu eta pipa ateratzen zuela.

— Hain itxura tentagarria zuen —esan zuen hainbat animaliatxo hildakoren larruz egindako abrigoa zeraman emakumeak, txolin-irribarre zabal, erdi etorkor, erdi zalantzazko bat eginez, taldeari.

Inork ez zuen ezer esan.

Suaren ondora hurreratu zen emakumea, abrigoan bilduta pixka bat dardaratzen zelarik, hotzez. Auto ireki batean etorri ziren.

Oso emakume txikia zen, sudur-handi samarra: judua ziurrenera. Ia haurra bezain txikia izaki, pitotx-larruzko abrigo harekin askoz buelotsuagoa ematen zuen zegokiona baino, eta judu mizkearen begi beltz handi zertxobait minduek modu bitxian begiratzen zuten arropaia garestiaren artetik.

Su baxuaren gainera makurtu eta bere esku txikiak zabaldu zituen, esku gainetan diamante eta esmeraldak dizdiz zituela.

— Ufa! —egin zuen hotzikaraz—. Jakina, ez genuen auto irekian etorri behar! Baina senarrak ez dit utzi ere egingo hotzak nagoela esaten!

Senarrari begiratu zion ume-begi handi erre-suminduekin, zeinetan ageri baitzen emakume judu burgesaren —ziurrenik aberatsaren— buruargitasun maltzurra.

Bistan zen maitemindurik zegoela, emakume juduaren era berezian, gizon handi horailaz. Gizonak ere begiratu zion bere begi urdin bestetaratatu, betilerik ez zutela ziruditenekin, eta irriño

batek zimurtu zizkion masaila leun, harrigarri biluziak. Irribarreak ez zuen ezer adierazten.

Batek berehalaxe negu-kirolekin, eskia eta patinaiarekin, erlazionatzen duen gizon horietakoa zen. Atletiko, bizitzatik deskonektaturik, astiro bete zuen pipa, behatz luze indartsu gorrituarekin tabakoa estutuz.

Judua begira zegokion ea inolako erantzunik ematen ote zion. Ezta ezer ere, irribarre estrainio arol hura besterik. Emakumea berriro suaren aldera jiratu zen, bekainak jaso eta bere esku txiki zuri zabaldui begira.

Gizonak bere abrigo ondo forratua erantzi zuen, eta puntuzko jertse eder deigarri bat, horia, grisa eta beltza, agertu zuen, ondo jositako galtza aski lasaien goitik. Bai, biak ziren garestiak! Eta gorpuzkera bikaina zuen, bularralde atletiko irtena. Kanpo-gizon zailduaren gisara, sua suspertzen hasi zen, trankil, soldadua kanpaina bezala.

— Gaizki irudituko ote zaie pinuburu batzuk botatzen baditugu, garra egiteko? —galdetu zion Yvetteri, mailuan ari zen ijitoari begirada isil bat luzatzen ziola.

—Izugarri ondo, nik uste —esan zuen Yvettek, zorabioan, ijitoaren sorgindurak poliki-poliki abandonatu zuenean, desanparaturik eta husturik sentitzen zela.

Gizona autora joan zen, eta pinuburu zakuto batekin itzuli eta eskutada bat atera zuen bertatik.

— Garra egitea axola? —dei egin zion ijitoari.

— E?

— Pinuburu batzuekin garra egitea axola?

— Egin! —esan zuen ijitoak.

Gizona pinuburuak jartzen hasi zen han-hemenka, txingar gorien gainean tentuz. Eta berehalaxe, banan-banan, su hartu zuten, eta garrezko arrosak bezala erre ziren, usain gozo batekin.

— Zoragarria! Zoragarria! —egin zuen judu txikiak, berriro bere gizonari begira. Gizonak maitekiro begiratu zion, eguzkiak izotzari bezala.

— Ez zaizu sua gustatzen? Niri, izugarri! —oihu egin zion judu txikiak Yvetteri, mailu hotsaren artean.

Mailu hotsak higuin ematen zion emakumeari. Jiratu egin zen bekain txiki finen tarte zimir-

tuxe zuela, gizonari gelditzeko eskatu nahian bezala. Yvettek ere burua jiratu zuen. Ijitoa kobrezko ontziaren gainera makurtuta zegoen, hanka-zabalka, burua behera sartuta, besoa bizkor jasotzen zuela. Dagoeneko oso urrun zirudien beregandik.

Judu txikiari lagun egiten zion gizona geldigeldi ijitoaren ondora joan zen, eta begira gertatu zitzaion isilik, pipa ahoan hartuta. Bi gizon zeuden orain, bi zakur ar estrainio bezala, elkarri usainka.

— Ezti-ilargitan gaude —esan zion judu txikiak Yvetteri, begirakune gogor erresuminezko batekin. Nahiko ahots ozen erronkariaz mintzatzzen zen, txoriren bat, eskinosoa, edo belea, deika bezala.

— A, bai? —esan zuen Yvettek.

— Bai! Ezkondu baino lehen! Simon Fawcettten aditzerarik baduzu? —ipar eskualdeko ingeniari aberats oso ezagun bat izendatu zuen—. Ba, Fawcett andrea naiz ni, eta dibortziatu hurren nago!

Erronka eta malenkonia bitxi batekin begiratu zion Yvetteri.

— A, bai? —esan zuen Yvettek.

Orain ulertzen zuen judu txikiaren ume-begi handietan zegoen erresumin eta erronka. Emakumea pertsonatxo onesta zen, baina bazitekeen haren onestasuna arrazoizkoegia izatea. Horrek esplika zezakeen aldez Simon Fawcett entzutetsuaren eskrupulu gabetasun ezaguna.

—Bai! Dibortzioa lortzen dugun bezain laster, Eastwood komandantearekin ezkonduko naiz.

Emakumearen karta guztiak mahai gainean zeuden orain. Ez zihoan inor engainatzera.

Haren atzean, bi gizonek esaldi laburrak gurutzatzen zituzten. Emakumeak burua jiratu zuen, eta ijitoari erreparatu zion bere begi beltz handiekin.

Ijitoak gora begiratzen zion, lotsati bezala, gizon jertse distiragarridunari, hura, berriz, pipa ahoan zuela zutik, gizonez gizon, behera begira zegokiola.

— Zaldiekin Arrastik bueltan —esan zuen ijitoak, ahots apalez.

Gerra kontuan ari ziren. Ijitoak artilleriako zaldiekin zerbitzatu zuen, komandantearen erregimentu berean.

— Ein schöner Mensch! —esan zuen juduak—

. Gizon ederra, e?

Emakumearentzat ere ijitoa soldadu soil arruntetako bat zen.

— Oso ederra! —esan zuen Yvettek.

— Bizikletaz zoaz? —galdetu zion juduak harridurazko tonuan.

— Bai! Papplewickera. Nire aita Papplewickeko erretorea da: Saywell jauna!

— A! —esan zuen juduak—. Ezagutzen dut! Idazle argia! Oso argia! Irakurri dut.

Erabat kontsumiturik ziren dagoeneko pinuburuak; txingar-arrosa pila handi birrindua, apurtua, zen orain sua. Zerua lainotzen ari zen arratsaldea sartu ahala. Bazitekeen iluntze aldera elurra egitea.

Itzuli zen komandantea, eta abrigoa jantzi zuen.

— Aurpegi ezaguna iruditu zait! —esan zuen—. Gure zaldi-zainetako bat, punta-puntako gizona zaldiekin.

— Aizu! —deitu zion juduak Yvetteri—. Zergatik ez zatoz Normantoneraino gurekin autoz. Gu

Scoresbyn bizi gara. Bizikleta atzean lotu deza-kegu.

— Hori egin beharko dut —esan zuen Yvettek.

— Etorri! —dei egin zien juduak haur kurikariei, gizon horaila bizikletarekin urruntzen zen bitartean—. Etorri! Etorri hona! —eta poltsatxo hartuz, txelin bat eskaini zien.

— Etorri! —esan zuen—. Etorri hartzera!

Ijitoa lana utzi eta karabanara joan zen. Andre zaharrak gogorki deitu zien hurrei, bere itxituratik. Bi haur zaharrenak isilgordeka aurreratu ziren. Juduak bi zilarrezko txanpon eman zizkien, txelin bat eta florin bat, poltsatik, eta ikusten ez zen andre zaharraren ahots lakarra entzun zen berriz ere.

Ijitoa karabanatik jaitsi eta suaren ondora joan zen astiro. Juduak aurpegia aztertu zion bere arrazakoen ausardia burges bereziarekin.

— Gerran izan zinen, Eastwood komandantearen erregimentuan? —esan zion.

— Bai, andrea!

— Pentsa, orain biok hemen topo egin! Elurra egin behar du —gora begiratu zuen zerura.

— Geruxeago —esan zuen gizonak, zerura begira.

Ijitoa ere hurbilgaitza bilakatu zen. Haren arraza oso zaharra zen, gizarte eratuarekin zera-man borroka berezian, eta ez zuen garaipenik espero. Noiz edo noiz bakarrik markatu ahal zuen tantoren bat.

Baina gerraz geroztik, noiz edo noiz tantoren bat markatzeko aukerak ere dezente hoztu ziren. Ez zegoen amore ematerik. Ijitoaren begietan bazen oraindik ausardia, baina gogor-ragoa eta urrunera zuzendua: desagerturik zen kutuntasun lotsagabearen ukitua. Gerra bizi izan zuen.

Yvetteri begiratu zion.

— Autoan itzuli behar? —esan zion.

— Bai! —erantzun zuen Yvettek, halako afektazio milika batez—. Hain eguraldi traidorea dago!

— Eguraldi traidorea! —errepikatu zuen ijitoak, zerura begira.

Yvettek ez zekien zein ziren ijitoaren sentimenduak. Egia esan, hori ez zitzaion gehiegi interesatzen. Liluratuagorik zeukan orain, judu

txiki, bi haurren amak, zituen aberastasunak ingeniari entzutetsuari kendu eta Eastwood komandante gazte kirol-zale sosgabeari, bera baino bost edo sei urte gazteago izan behar zue-nari, eskuratzera zihoakionak. Jakingarria oso!

Gizon horaila itzuli egin zen.

— Zigarro bat, Charles! —esan zion judu txi-kiak, intzirika.

Gizonak kaxa atera zuen, astiro, mugimendu astitsu atletikoz. Alderdi sentikorren batek izana-razten zion astitsua, zuhurra, jendearekin min hartuta balego bezala. Zigarro bat eman zion emazteari, eta beste bat Yvetteri, eta kaxa eskaini zion, sinpletasun osoz, ijitoari. Ijitoak bat hartu zuen.

— Eskerrik asko, jauna!

Eta isil-isilik sutondora joan zen ijitoa, eta makurtuta, txingar goritan pieu zuen. Bi emaku-meak begira geratu zitzaizkion.

— Agur, ba! —esan zuen juduak, burgesaren kamaraderiaz—. Eskerrik asko su beroagatik.

— Sua denona da —esan zuen ijitoak.

Haur txikiena inguratu zitzaion kili-kolo.

— Agur! —esan zuen Yvettek—. Ez diezazuela elurrik egin.

— Elur pixka batek ez gaitu ikaratzen —esan zuen ijitoak.

— Ez? —esan zuen Yvettek—. Baietz usteko nukeen!

— Ez! —esan zuen ijitoak.

Yvettek handikiro bota zuen bufanda sorbaldara, eta juduaren larruzko abrigoari jarraitu zion, zeinek bai baitzirudien berezko zango txikien gainean zihoala.

VII

Yvette jakin-minez beterik zegoen Eastwood-tarrekin, horrela deitzen baitzien berak. Judu txikiari hiru hilabete bakarrik geratzen zitzaizkion orain, azken dekretua arte itxoiteko. Ausarki, udako baserritxo bat hartu zuen errentan, Scoresbyko basa-lurretan, mendietatik urrutira gabe. Negu-negua zen orain, eta komandantea eta biak neurri bateraino isolaturik bizi ziren, batere neskamerik gabe. Komandanteak utzia zion dagoeneko armada erregularreko zerbitzuari, eta Eastwood jauna izenez ematen zuen bere burua ezagutzera. Izatez, Eastwood jaun-andreak ziren jada, mundu arruntean.

Judu txikiak hogeita hamasei urte zituen, eta bere bi haurrak hamabi urtetik gorakoak ziren. Senarra bat etorri zen haurren zaintza emazteak izatean, Eastwoodekin ezkontzen zen bezain laster.

Horra hor bada, bikote bitxi hori, judu fin txikitxoa, bere begi handi erresumindu eta agirikorrekin, eta ile-sapa beltz kizkur ondo zainduare-

kin, emakumetxo dotorea bere heinean, eta gizon handi begi-zurbila, indartsua eta hotza, antzinako etorki daniar misterioetsuren bateko aztarna ziurrenera, elkarrekin bizitzen etxetxo moderno batean basa-lur eta mendietatik hurbil, eta etxeko lanak beraiek egiten zituztela.

Etxebizitza bitxia zen. Baserria altzari eta guzti alokatu zuten, baina judu txikiak bere altzari pieza kutunenak ere ekarri zituen. Halako gustu bitxi bat zuen kurba estrainiozko arasa rococo, nakarrez, kareiz, ebanoz, batek daki zerez inkrustatuetarako; bazituen gar-irudiko sila garai estrainioak, Italiakoak, brokatu urdin-berdedunak; santu txundigarriak, jantziak hai-zeak harrotuta bezala eta kolore oparoz landuak eta aurpegi-arrosak; apalak betean Saxe zahar eta Capo di Monteko iruditxo arraroak; eta azkenik, kristalaren atzean pintatu koadro sail harri-garri bat, hemeretzigarren mende hasieran, edo hemezortzigarrenaren amaieran, eginak ziurrenera.

Barrunbe pilatu eta ohizkanpoko horretan errezibitu zuen juduak Yvette, azken horrek isilkako bisita egin zionean. Goitik beherainoko

berogailu sistema zegoen jarrita baserrian; txoko guztiak epel zeuden, bero ia. Eta han ari zen juduaren iruditxo rococo ñimiñoa, soineko-txo egoki batekin, eta amantalarekin, urdaiazpiko xerrak platerean jartzen, komandante elurtxori handiak, berriz, txaketa zuria eta galtza grisak soinean, ogia ebaki, mostaza nahastu, kafea prestatu, eta beste guztia egiten zuela. Komandanteak egina zen jaki hotz eta kabiarraren ondorengo erbi estofatua ere.

Zilarra eta portzelana balio handikoak ziren: andregaiaren ezkonsarikoak. Komandanteak garagardoa edan zuen zilarrezko antoisin bate-tik; judu txikiak eta Yvettek xanpaina hartu zuten kopa polit batzuetan; komandanteak kafea ekarri zuen. Solasean aritu ziren. Judu txi-
kia haserrez erretzen zegoen lehen senarraren aurka. Moraltasun zorrotzeko emakumea zen, hain zorrotzekoa, ezen dibortziatu egin baitzen. Komandantea ere, negu-txori estrainioa, hain indartsua, ederra gainera, bere heinean, nahiz izan betinguru zurbilekoa betilerik ez balu beza-la, txorien antzera, hura ere, haserreturik zego-en bizitzarekin, moraltasun faltsuaren kausaz.

Bularralde indartsu atletiko hark, halako gorroto hotz estrainio bat gordetzen zuen. Eta judu txikiarenganako xamurtasuna justizia laidotuaz zuen zentzuan oinarritzen zen, iparraldeko moraltasun abstraktuak bultzatzen zuela, haize estrainio batek bezala, isolamendura.

Arratsaldea aurreratu zenean, sukaldera joan ziren, eta komandanteak maukak goratu zituen, beso zuri indartsu atletikoak agerian jartzen zituela, eta kontu handiz, trebeki, platerak garbitu zituen, eta emakumezkoek, berriz, lehortu. Ez zituen alferrik zailduak giharrak. Gero etxe txiki-ko berogailuei kontu egitera joan zen, egunean behin edo bitan begiratzea aski baitzuten. Eta horren ondoren, auto txiki estalia atera eta Yvette eraman zuen etxera, euritan, eta atzeko sarratean utzi zuen, alertze arteko ataka txikian, zeinetatik behera jaisten baitziren etxeraino lurrezko mailak.

Yvette txunditurik zegoen bikote horrekin.

— Benetan, Lucille! —esan zuen—. Inon den jenderik harrigarriena ikusten dinat.

Eta deskribapen zehatza egin zion.

— Nahiko itxura atsegina hartzen zienat! —
esan zuen Lucillek—. Gustatzen zaidan koman-
danteak etxeko lanak egite hori, eta halako kate-
goria handia erakustea edozertan. Pentsatzen
dinat oso libertigarria izango dela horiek ezagu-
tzea, ezkontzen direnean.

—Bai! —esan zuen Yvettek lausoki—. Bai!
Bai, noski!

Judu txikiaren eta ofizial gazte atletiko begi-
zurbil haren arteko loturaren estrainiotasun
horrek berak ekarri zion berriro gogora Yvetteri
bere ijitoa, zeina oroimenetik guztiz joanda
eduki baitzuen, baina orain bat-batean indar
mingarriz itzuli baitzen.

— Zer dun, Lucille —galdetu zuen Yvettek—,
pertsonei elkartzera eragiten diena? Eastwood-
tarrak bezalako pertsonak, adibidez? Eta aita eta
ama, hain egokigaitzak? Eta fortuna esan zidan
emakume ijito hura, zalditzarra bezalakoa, eta
gizon ijitoa, hain egokia eta ondo egina? Zer dun
hori?

— Sexua edo dena delakoa izango dun —
esan zuen Lucillek.

— Bai, zer dun hori? Ez dun inola ere gauza arrunta, sentsualitate arrunta bezalakoa, entenditzen dun, Lucille. Ez dun.

— Ez, pentsatzen dinat ezetz —esan zuen Lucillek—. Ez din behintzat zertan izanik, nik uste.

— Ze, begira, mutil arruntak, badakin, neskarri baxu sentiarazten diotenak; inork ez zien kasu handirik egiten. Inork ez din horienganako erakarpenik sentitzen. Eta hala ere sexualenak jotzen ditun.

— Uste dinat —esan zuen Lucillek—, bi sexu mota daudela: baxua den sexua, eta bestelakoa, baxua ez dena. Izugarri konplikatua dun, benetan! Gorroto dizkinat mutil arruntak. Eta inoiz ez dinat sentitzen ezer sexualik —nazka pixka batekin indartu zuen hitza— arruntak ez diren mutilenganako. Beharbada ez dinat sexurik.

— Horixe bera! —esan zuen Yvettek—. Beharbada ez dinagu ez hik eta ez nik. Beharbada ez dinagu benetako sexurik, gizonekin harremanak izateko.

— Izugarria zirudin horrela esanda: *gizonekin harremanak izan!* —esan zuen Lucillek nazkaz—

. Ez zain iruditzen gorrotagarria gizonekin era horretako harremanak izatea? Nik uste, pena handia dun sexua izatea! Askoz hobe huke gizon eta emakume izatea, horrelako gauzarik gabe.

Yvette pentsatzen geratu zen. Han hondoan urrunean zegoen ijitoaren irudia, Yvettek «Hain eguraldi traidorea dago!» esan zionean jiratu eta begiratu zionekoa. Pedro oilarrak jo zuenean bezala sentitu zen Yvette, ijitoa ukatu zuenean. Edo hobeto esan, ez zuen ijitoa ukatu; edozein modutara, ez zion axola hark zer paper jokatzen zuen. Bere izatearen alderdi ezkuturen bat zen Yvettek ukatu zuena: modu misterioitsu eta aitorezinez ijitoari erantzuten zion alderdia. Eta oilar beltz distiratsu estrainio bat zen Yvetteri isekaz kukurruku jo ziona.

— Bai! —esan zuen Yvettek lausoki—. Bai! Sexua gogaimen izugarria dun, Lucille. Ez dunanean, beharra sentitzen dun, nolabait esan. Eta dunanean, edo baldin badun —burua jaso eta sudurra zimurtu zuen destainaz— gorroto dion.

— Ba, ez zekinat! —esan zuen Lucillek—. Uste dinat gustatuko litzaidakeela gizonen batekin izugarri maiteminduta egotea.

— Hori uste dun! —esan zuen Yvettek, berriro sudurra zimurtuz—. Baina baldin bahengo, ez huke usteko.

— Hik nola dakin? —galdetu zuen Lucillek.

— Beno, jakin ez zekinat —esan zuen Yvettek—. Baina hori uste dinat! Bai, hori uste dinat!

— Bai, oso litekeena dun! —esan zuen Lucillek nazkaz—. Eta nolana ere batek bazekin ziur egunen batean maiteminduta egoteari utziko diola, eta hori nazkagarrikeria hutsa dun.

— Bai —esan zuen Yvettek—. Arazo bat dun. Doinutxo bat kanta-marmaratu zuen.

— O, utz ezan, oraindik ez dun-eta guretzat arazo. Gu ez geuden benetan maitemindurik, eta baliteken inoiz ez egotea; beraz, konponduta geratzen dun horrela arazoa.

— Ni ez nagon horren ziur! —esan zuen Yvettek zuhurki—. Ni ez nagon horren ziur. Uste dinat, egunen batean, bortizki maiteminduko naizela.

— Ziurrenera inoiz ez —esan zuen Lucillek zakarki—. Hori dun neskazahar gehienek denbora guztian pentsatzen dutena.

Yvettek ahizpari begiratu zion pentsati baina kezkatu-itxurarik gabe.

— Bai? —esan zuen—. Hori uste dun benetan, Lucille? Izugarria dun, gaixoentzat! Zergatik kezkatzen ditun horregatik?

— Zergatik kezkatu? —esan zuen Lucillek—. Beharbada, kezkatu, ez ditun kezkatzen. Baliteken dena izatea jendeak esaten duelako: «*Neskazahar gaixoa, ezin izan du gizonik harrapatu.*»

— Horregatik izango dun! —esan zuen Yvettek—. Azkenean aintzakotzat hartzera iristen direla jendeak neskazaharrei buruz esaten dituen itsuskeriak. Lotsagarria dun!

— Dena dela, guk ondo pasatzen dinagu, eta mutil pila dinagu guri gutizia nola egingo dabil-tzanak —esan zuen Lucillek.

— Bai! —esan zuen Yvettek—. Bai! Baina ezingo ninduken horietako inorekin ezkondu.

— Ezta ni ere, —esan zuen Lucillek—. Baina zergatik ez? Zergatik kezkatu behar dinagu ezkontzeaz, ezin hobeto pasatzen dugula mutilekin, eta direla izugarri jatorrak, eta aitortu behar dun, Yvette, oso gizabidetsuak eta begiratuak gurekin.

— Hala ditun, bai! —esan zuen Yvettek distraiturik.

— Nik uste dinat ezkontzea pentsatzeko garaia —esan zuen Lucillek—, ondo pasatzeari utzi dionala konturatzen haizenean iristen dela. Orduan ezkondu, eta bizibidea hartu.

— Jakina! —esan zuen Yvettek

Baina orain, bere adikortasun bigun leunaren azpian, gogaiturik zegoen Lucillerekin. Bat-batean hari bizkarra emateko gogoak eman zion.

Gainera, begira Lucille gaixoaren betondo beltzak, eta begi eder haietan nabari zen tristura. O! Baldin gizon on-on maitagarri babesle horietako batek ezkontzeko eskatuko balio! Eta Lucille zintzoak onartu!

Yvettek ez zien ezer esan erretoreari eta amonari Eastwoodtarrei buruz. Hizpide ugari sortu besterik ez zukeen egingo eta Yvettek gorroto zuen hori. Erretoreak, beregatik, pribatuan, ez ziokeen garrantzirik emango. Baina hark ere bazekien ahalik eta urrunen egon behar zela suge pozoitsu buru-anitz harengandik, jendearen mihitik.

— Baina nik ez dut nahi zu hona etortzea aitak jakin gabe —esan zion judu txikiak.

— Esan egin beharko diot —esan zuen Yvettek—. Ziur naiz axolarik ez diola, benetan. Baina jakiten badu, behartuta sentituko da, nik uste.

Ofizial gazteak Yvetteri begiratzen zion begirada jostari bitxi bat zuela, txoriarena bezalakoa eta emozio gabea, begi zorrotzetan. Hura ere, Yvettez maitemintzeko bidean zen. Yvetteren birjinazko xamurtasun bereziak, eta gogo iheskor, besteratu, gauzei atxikimendurik gabeak erakartzen zuen.

Yvette konturatuta zegoen gertatzen ari zenaz, eta zertxobait gandortu egin zen. Eastwoodek fantasia kilikatzen zion. Nahasgarria zen ikustea halako ofizial gazte dotorea, izugarri klase handikoa, harrigarri lasaia autoa gidatzen, eta txapeldun petoa igerian, han isil-isilik, pipa errez, lasai-lasai platerak garbitzen, bere lana hain kontuz eta taxuz egiten. Edo, automobil baten barru misteriotsua aztertzen zuen tentu eta interes berarekin, baserriko sukaldean erbi estofatua kuzinatzen. Eta kanpoko izotzetara irten eta autoa garbitzen, harik eta gauza bizidu-

na bezala uzten zuen arte, bere burua miazkatu duen katua irudi. Eta etxean sartu eta handikeriarik gabe eta seriotasunez, nahiz laburki, judu txikiarekin hizketan. Eta inoiz aspertu gabe, antza. Eguraldi txarrarekin, pipa hartu eta leiho ondoan eserita, orduak eta orduak isilik, besteraturik, gogoetari, eta hala ere gorputz atletikoa eme zuela bere geldian.

Yvettek ez zuen flirteatu komandantearekin. Baina gustatu bai, gustatzen zitzaion.

— Eta zure etorkizuna zer? —galdetu zion Yvettek.

— Zer gertatzen zaio nire etorkizunari? —esan zuen gizonak, pipa ahotik ateraz, irribarre-puntu emozio gabea txori-begietan zuela.

— Karrera bat! Ez al du gizon orok karrera bat prestatu behar? Antzara handi bat saltsan bezala?

Xalotasun estrainioz begiak zabal-zabalik begiratzen zion Yvettek.

— Ondo baino hobeto naiz gaur, eta ondo izango naiz bihar —esan zuen gizonak, tonu hotz erabakiorrez—. Zergatik ez du izan behar nire etorkizunak gaur eta bihar etengabe bat?

Yvetteri begirutzen zion higi gabe aztertzen zuela.

— Jakina! —esan zuen Yvettek—. Gorroto dut lana, eta bizitzaren alderdi hori guztia —Baina juduaren diruan pentsatzen zuen.

Gizonak ez zion erantzun. Haren haserrea biguna zen, elurraren gisakoa, arima gozoro biltzen dutenetakoa.

Iritsiak ziren elkarrekin filosofikoki hitz egiteko puntura. Judu txikiak aurpegi nekatuxea zuen. Harrigarri xalo agertzen zen, eta ez zuen jarrera posesiborik gizonarekiko. Ez zegoen zapuzti ere Yvetterekin. Nekatuxe soilik, eta mutu.

Yvettek, bat-bateko eragin batek bultzatuta, pentsatu zuen hobe izango zuela bere burua zuritzea.

— Iruditzen zait izugarri zaila dela bizitza! —esan zuen.

— Bai horixe! —esklamatu zuen juduak.

— Okerrena da, suposatzen dela batek maitemindu eta ezkondu egin behar duela! —esan zuen Yvettek, sudurra zimurtuz.

— Ez duzu maitemindu eta ezkondu nahi? —
esklamatu zuen juduak, begi harrituak zabal-
zabalik kontra egiten ziola.

— Ez, ez bereziki! —esan zuen Yvettek—. Batez ere sentitzen duzunean ez dagoela beste ezer egiterik. Markatutako bidetik ibili behar.

— Baina ez dakizu maitasuna zer den? —
esklamatu zuen juduak.

— Ez! —esan zuen Yvettek—. Eta zuk?

— Nik! —marru egin zuen judu txikiak—. Nik!
Jainko nirea, jakinez!

Malenkoniazko gogoetan begiratu zion East-woodi, zeina pipa erretzen ari baitzen, bere olgeta partikularraren irriñoa ageri zuela aurpegi leun garbian. Oso azal fin leuna zuen, baina hala ere eguraldiak erasaten ez ziona, eta horregatik ematen zuen haur jaioberriarena bezain aurpegi biluzia. Baina ez zen aurpegi borobila: bazuen aski nortasun, eta ironiazko txulotxo bitxiak formatzen zitzaizkion masailetan, maskara komiko baina zurrunaren antzera.

— Esan nahi duzu maitasuna zer den ez dakizula? —insistitu zuen juduak.

— Ez! —esan zuen Yvettek axolagabekeria inozentez—. Ez dut uste dakidanik! Txarra al da, nire adinean?

— Ez dago gizon bat ere guztiz... guztiz desberdin sentiarazten zaituenik? —esan zuen juduak, berriro begiak zabal-zabalik Eastwoodi begiratzen ziola.

Gizonak erretzen jarraitzen zuen, zeharo desinplikaturik.

— Ez dut uste —esan zuen Yvettek—. Ez baldin bada... bai! ez baldin bada ijito hura —Burua alde batera okertu zuen pentsati.

— Zer ijito? —marru egin zuen judu txikiak.

— Soldadu izan zen hura, gerran Eastwood komandantearen erregimentuan zaldia zain-tzen zituen hura —esan zuen Yvettek lasai.

Judu txikia zur eginda begiak zabal-zabalik geratu zitzaion Yvetteri.

— Ez zara ijito horretaz maiteminduta egongo! —esan zuen.

— Beno! —esan zuen Yvettek—. Ez dakit. Hark bakarrik sentiarazten nau... desberdin! Hark bakarrik!

— Baina nola? Nola? Inoiz ezer esan dizu?

— Ez! Ez!

— Nola orduan? Zer egin du?

— A! Begiratu egin dik bakarrik!

— Nola?

— Ba, egia esan, ez dakit. Baina desberdin!

Bai, desberdin! Desberdin, oso desberdin beste edozein gizonek inoiz begiratu didanaren aldean.

— Baina nola begiratu dizu? —insistitu zuen juduak.

— Ba... benetan, baina bene-benetan, desiratuko banindu bezala —esan zuen Yvettek, bere aurpegi gogoetatsuak lore-pipita zirudiela.

— Zitala halakoa! Zer eskubide du zuri horrela begiratzeko? —esklamatu zuen judu haserretuak.

— Katuak begira diezaioke erregeri —sartu zen komandantea, eta katu-irribarrea zuen orain aurpegian.

— Uste duzu ez zuela egin behar? —galdetu zuen Yvettek, komandantearengana jiratzuz.

— Horixe ezetz! Ijito batek, dozena erdi bat emakume zikin atzetik arrastaka dituenak! Hori-xe ezetz! —esklamatu zuen judu txikiak.

— Duda egiten nuen! —esan zuen Yvettek—. Zeren zoragarria zen, benetan. Oso bestelako zerbait zen nire bizitzan.

— Nik uste dut —esan zuen komandanteak, pipa ahotik kenduz—, desira dela bizitzako gauzarik ederrena. Hori benetan senti dezakeen nor-nahi, errege da, eta ez diot beste inori inbidiarik!

Ahora eraman zuen berriro pipa.

Juduak sor eta lor begiratu zion.

— Baina Charles! —esklamatu zuen—. Halifaxko gizon arrunt baxu guztiek ez dute besterik sentitzen!

Komandanteak pipa ahotik kendu zuen berriro.

— Hori ez da gosea besterik —esan zuen.

Eta ahora eraman zuen berriro pipa.

— Uste duzu ijitoarena egiazkoa dela? —galdetu zion Yvettek.

Komandanteak sorbaldak jaso zituen.

— Ez dagokit niri esatea —erantzun zuen komandanteak—. Ni zu banintz, jakingo nuke, ez nintzateke ibiliko inori galdezka.

— Bai... baina... —etenda geratu zen Yvette.

— Charles! Oker zaude! Nola izango da egiazkoa! Yvette ijitoarekin ezkondu eta karabanan bueltaka ibili ahal balitz bezala!

— Nik ez dut esan harekin ezkondu behar duenik —esan zuen Charlesek.

— Maitasun abentura bat orduan! Baina hori izugarria da! Zer pentsatuko luke Yvettek bere buruaz? Hori ez da maitasuna. Hori... hori prostituzioa da!

Charlesek erretzen jarraitu zuen pixka batean.

— Ijito hori zen genuen gizonik onena, zaldiekin. Ia hilean egon zen pulmoniaz. Hilik izango zela uste nuen. Gizon berpiztua da niretzat. Neu ere gizon berpiztua naiz, nolabait esan — Yvetteri begiratu zion komandanteak—. Ehortzirik egon nintzen hogeitaz hamar orduz elur azpian —esan zuen—. Eta hori beste okerrik ez, atera nindutenean.

Jelazko isilunea izan zen solasaren erdian.

— Izugarria da bizitza! —esan zuen Yvettek.

— Kasualitatez atera ninduten —esan zuen gizonak.

— O!... —luzatu zuen astiro Yvettek—. Hala-
beharra izango zen, aizu.

Gizonak ez zion erantzun.

VIII

Heldu zen erretorearen belarrietara Yvettek Eastwoodtarrekin zituen harreman estuen berri, eta neska nolabait ere izaturik geratu zen emaitzarekin. Uste zuen aitek ez ziola garrantzirik emango. Hitzez, agertzen zuen jarrera umoretsu-ustekoan, hain ez-konbentzionala zen erretorea, hain gizaseme jatorra. Esaten zuen bezala, anarkista kontserbadore bat zen; esan nahi baita jende asko eta asko bezalakoa zela: sinesgogor hutsa. Anarkia hedatzen zitzaion hizketa umoretsura eta pentsamendu ezkutuetara. Kontserbadorismoak, anarkiaren beldur artean oinarrituak, ekintza oro kontrolatzen zion. Erretorearen pentsamenduak ezkutuki, beldur izatekoak ziren. Horregatik, eguneroko bizitzan, beldur itsua zion itxurak ez gordetzeari.

Kontserbadorismoa eta beldur doilorra nagusitzen zitzaizkionean, beti ezpaina jaso eta hortzak erakusten zituen pixka bat, zakurrarena bezalako irri gaiztoz.

— Esan didate lagun berriak dituzula Fawcett andre erdi dibortziatua eta Eastwood *maquereau* hori —esan zion Yvetteri.

Yvettek ez zekien *maquereau*-a zer zen, baina pozoia sumatu zuen erretorearen betortzetan.

— Ezagutu berriak ditut —esan zuen Yvettek—. Izugarri atseginak dira, benetan. Eta hila-bete barru edo ezkonduko dira.

Erretoreak gorrotoz begiratu zion Yvetteren aurpegi kezka gabeari. Erretorea bere baitan, koldarra zen, koldar jaio zen. Eta koldar jaio direnak esklabo dira berez, eta sena sakonak eraginda beldur izaten diete, beldur pozoitsua, lepoan katea erantsi diezaieketenei.

Arrazoi horregatik kikildu zen hain doilorki erretorea, eta hain doilorki kokildu Cynthia-zelako-haren aurrean ere: esklaboaren beldurra ziolako haren mesprezuari, jaiotzez aske den izakiak morroi jaiolari dion mesprezuari.

Yvettek ere aske jaioarene ezaugarriak zituen. Hark ere, egunen batean, ezagutuko zuen erretorea, eta lotuko zion mesprezuaren esklabokatea lepoan.

Baina ahal izango al zuen? Hil arteraino borrokatuko zen erretorea, oraingo honetan, lehenbizi. Barrean zeraman esklaboa inguratuta zegoen orain, inguratutako arratoia bezala, eta inguratutako arratoiaren kuraiaz beterik.

— Elkarrekin ondo etorriko zarete! —egin zuen irri gaiztoz.

— Ba, bai, oso ondo, —esan zuen Yvettek, lausotasun alai harekin—. Izugarri gustatzen zaizkit. Hain dirudite serioak, badakizu, hain onestak.

— Onestasuaren nozio berezia daukazu! —egin zuen irri gaiztoz erretoreak—. Aprobetxati gazte bat bera baino emakume zaharrago batekin dabilena, haren dirutik bizi ahal izateko! Emakumea, berriz, etxea eta haurrak abandonatu dituena! Ez dakit nondik jaso duzun onestasuaren ideia hori. Ez niregandik, espero dut... Eta oso ondo ezagutzen bide dituzu, esan duzun bezala ezagutu berriak dituzula esateko. Non ezagutu zenituen?

— Bizikletan irten nintzenean. Haiek autoz zihoazen, eta elkarrekin hitz egitea fortunatu

zitzaigun. Emakumeak berehalaxe esan zidan nor zen, tronpa ez nendin. Ondratua da.

Yvette gaixoak lanak zituen eusten.

— Eta zenbat aldiz ikusi dituzu geroztik?

— Ba, bitan bestetan ez naiz joan.

— Joan, nora?

— Scoresbyn duten baserrira.

Erretoreak gorrotoz begiratu zion, hil nahiko balu bezala. Eta atzeraka aldendu zen Yveterengandik, bere estudioko leihoko gortinen kontrara, inguratutako arratoia bezala. Buruaren zokoren batean esan ezin ahalako gaiztakeriak pentsatzen zituen alabaz, Cynthia-zelako-hartaz pentsatu izan zituen bezala. Ez zuen indarrrik gogoaren iradokizun txikienari ere kontra egiteko. Eta aurrean oraindik koldartu gabe baina ikaraturik zuen neskari egozten zizkion gaiztakeria horiek, atzera eragiten zioten, betortz guztiak agerian zituela aurpegi ederrean.

— Ezagutu berriak dituzu orduan, ez? —esan zuen—. Gezurra daramazu odolean, ikusten dut. Ez dut uste niregandik datorkizunik.

Yvettek erdi ernatu zuen aurpegi mututua, eta amonak kopeta guztiarekin esandako faltsukerian pentsatu zuen. Ez zuen erantzun.

— Zeren bila joaten zara horrelako bikoteen inguru-minguruan ibiltzera? —egin zuen erreto-reak irri gaiztoz—. Ez al da zuretzat adina pertsona taxuzko munduan? Edozeinek pentsatuko luke txakur galdu bat zarela, bikote gisa-gabeen atzetik ihesi joateko, gisa onekoek nahi ez zaituztela eta. Gezurra hain zerbait okerragoa al daramazu odolean?

— Zer daramat odolean gezurra baino okerragoa? —galdetu zuen Yvettek.

Hildura hotz bat nagusitzen ari zitzaion. Anormala, anormal erdi-kriminal horietako bat ote zen? Heriozko hotza sentitu zuen.

Erretorearen begietarako, Yvettek lotsagabe-ki eutsi baino ez zion egiten bere txori-aurpegi xamur birjinazkoaren azpian zuen galdukeriari. Cynthia-zelako-hura horrelakoa izan zen: elur-lilia. Eta sadismo latzak astintzen zuen erreto-rea, Cynthia-zelako-haren galdukeria benetan nolakoa izango zen pentsatzean. Izan zion maitasuna bera ere, koldar jaioaren maitasun lizuna,

galdukeria izan zen, barru-barruan, erretorea-
rentzat. Zer izango ote da orduan legez-kanpoko
maitasuna?

— Zerorrek dakizu ondoen, zer daramazun —
egin zuen irri gaiztoz—. Baina hobe izango duzu
muga jartzea, eta lehenbailehen jartzea, ero kri-
minalentzako egoitza batean bukatu nahi ez
baduzu.

— Zergatik? —esan zuen Yvettek, zurbil eta
mututurik, beldur hotzak zurrunduta—. Zergatik
ero kriminala? Zer egin dut nik?

— Hori zeuk eta zeure Egileak bestek ez daki
—barre egin zion—. Ez dut galdetuko. Baina zen-
bait joera erotasun bihurtzen dira azkenean,
garaian muga jartzen ez bazaie.

— Eastwoodtarrak tratatzea bezalakoengatik
diozu? —galdetu zuen Yvettek, beldurrez sorgor-
tuta une batean egon ondoren.

— Galdetzen didazu ea Fawcett andrea,
judua, eta Eastwood komandante ohia, diruaga-
tik bera baino emakume zaharrago batekin dabi-
len gizona bezalako jendearen inguruan muturra
sartzen ibiltzeagatik diodan? Ba, bai, hain zuzen
ere!

— Baina ezin duzu hori esan! —esklamatu zuen Yvettek—. Komandantea izugarri gizon laua eta zuzena da.

— Ematen duenez gogoko duzu.

— Ba... Neurri batean, baietz uste nuen. Pentsatzen nuen zuri ere gustatuko zitzaizula —esan zuen lauki, zer esaten zuen gehiegi ez zekiela.

Erretorea gortinetara atzeratu zen, neskak gauza beldurgarriren batekin mehatxatuko balu bezala.

— Ez ezazu besterik esan —orro egin zuen, zitalki—. Ez ezazu besterik esan. Esan duzu gehiegi, zeure burua konpromisoan jartzeko. Ez dut ikaragarrikeria gehiago entzun nahi.

— Baina zer ikaragarrikeria? —eutsi zion Yvettek.

Yvetteren inozentzia eskrupulu gabearen xalotasun berberak eragiten zion erretoreari atzera, koldartzen zuen are gehiago.

— Ezta hitz bat ere gehiago! —esan zuen, ahopean, ziztu eginez—. Baina hilko zaitut amaren bidea har dezazun baino lehen.

Yvettek ikusi zuen erretorea, han bere estudioko belusezko gortinen kontra atzeratuta, aur-

pegia hori, arratoiarenak bezalako begi beldur-tuekin, amorruz eta gorrotoz zorabiatua, eta bakardade hotz gogor bat nagusitu zitzaion. Yvetterentzat ere, zentzua galdu zuten gauza guztiek.

Gaitza izan zen ondorengo isiltasun hotz antzua haustea. Azkenean, ordea, Yvettek begiratu zion. Eta bere gogoz beste, berak jakin ere gabe, erretorearenganako mesprezua ageritu zuen begi gazte garbi harrituetan. Esklabo-katea lepoan bezala egokitzen zitzaion erretoreari, finean.

— Esan nahi duzu ez ditudala Eastwoodtarrak tratatu behar? —galdetu zuen.

— Trata ditzakezu nahi baduzu —erretoreak irri gaiztoz—. Baina ez dezazula espero amonarekin, izeba Cissierekin eta Lucillerekin kidetzerik, hori egiten baduzu. Ez ditut kutsatu nahi. Amona alargun leiala eta ama leiala izan da, inor izan bada. Dagoeneko jasan behar izan du lotsaizunak eta gaitzespenak emandako kolpe bat. Ez da beste baten arriskuan berriz jarriko.

Yvettek dena ilunki entzuten zuen, erdia aditu gabe.

— Gutun bat bidalikodiet ez duzula onartzen esanez —esan zuen ilunki.

— Zeuk ikusi zer egin behar duzun. Baina gogoan izan, aukeratu beharrean zaude: jende garbia, eta amonaren zahartzaro mantxagabeari errespetua, ala gogoz eta gorputzez ez-garbia den jendea.

Berriro isilaldi bat izan zen. Ondoren Yvettek begiratu zion, eta ez dakit zer baino aurpegi txundituagoa zuen. Baina txundiduraren atzean han zegoen gorderik aske jaioak morroi jaioarenganako duen mesprezu bare birjinazko hain berezia. Erretorea, eta Saywelltar guztiak, morroi jaioak ziren.

— Ondo da —esan zuen Yvettek—. Idatzi eta ez duzula onartzen esango diet.

Erretoreak ez zion erantzun. Alde batera lausengaturik zegoen, garaile bere artean, nahiz zitalki.

—Ahalegindu naiz amonak eta izeba Cissiek jakin ez dezaten —esan zuen—. Ez dago zertan publiko eginik, zure adiskidetasuna klandestinitatean eramatea aukeratu duzunez.

Isiltasun beldurgarri bat izan zen.

— Ondo da —esan zuen Yvettek—. Joan eta idatzi egingo diet.

Eta burumakur irten zen gelatik.

Eastwood andreari zuzendu zion ohartxo. «Eastwood andre maitea, aitak ez dio ondo irizten zuek ikustera joateari. Ulertuko duzu, beraz, harremanak eten beharrean bagaude. Izugarri sentitzen dut...» Hori zen guztia.

Baina hustasun triste bat sentitu zuen eskutitza postaratu zuenean. Bere pentsamenduen beldur zen orain. Orain, ijitoaren bularralde lerdan ongi osatuaren kontra estaturik egon nahi zuen. Ijitoak besoetan har zezala nahi zuen, behin bakarrik, behin bakarrik bederen, eta kontsola eta arrazoi eman ziezaiola. Arrazoi eman ziezaiola nahi zuen, aitaren kontra, aitak nazka eta beldurra besterik ez baitzion.

Eta aldi berean koldartu eta kikildu egin zen, ia ibili ere ezin izateraino, pentsamendu lizuna eroa eta kriminala izango zen beldurrez. Bazirudien ibiltzean orpoak urratzen zizkiola, beldurrak. Beldur hotz itzel morroi jaiotakoenak, aitarrenak, giza arraza guztiaren beldurrak. Zingira handi batek bezala irensten zuen gizadiak, eta

bertan hondoratzen zihoan, belaunak indarge, topatzen zuen pertsona ororenganako nazkaz eta beldurrez beterik.

Laster egokitu zen, ordea, jendeari buruz zuen iritzi berrira. Bizi behar zuen. Alferrik da jaten ematen dizunarekin haserretzea. Eta bizi-tzan itxaropen handiak jartzea umekeria da. Beraz, gerra osteko belaunaldiaren moldakortasun bizkorrez, egoera berrira egokitu zen. Zen bezalako zen aita. Hark itxurak zurituko zituen beti. Berak ere gauza bera egingo zuen. Berak ere itxurak zurituko zituen.

Horrela bada, axolagabekeria alaitsu amaraunetan galduaren azpian, halako gogortasun bat formatu zitzaion, bihotzean kristaldu harkaitza bezala. Ilusioak galdu zituen, sinpatiak gain-behera etortzean. Kanpotik, lehengoa zirudien. Barrutik, gogorra eta ezeri atxikimendurik gabea, eta berak ez zekiela, mendekaria.

Kanpotik lehengoa izaten jarraitzen zuen. Hori zuen jokoa. Zirkunstantziak aldatzen ez ziren bitartean, egokitu egin behar zitzaion, itxuraz behintzat, beregandik espero zenari.

Baina mendekua azaldu zitzaion jendea ikusteko modu berrian. Erretorearen itxura eder dotorearen azpian, Yvettek ezereztasun makal ahula ikusten zuen. Eta mesprezatu egiten zuen erretorea. Baina hala ere, neurri batean, gogoko ere bazuen. Hain dira konplikatua sentimenduak.

Amona izan zen Yvettek arima guztiarekin gorrotatu zuena. Andre zahar gizen hura, perretxiko handi tanta-gorri baten gisara han bere itsutasunean eseririk egoten zen hura, lepoa irentsirik zuela sorbalda konkortuen eta kokotsgingila elkargaineratuen artean, lepo gabea, beraz, patata ale bikoitza bezala, hura zen Yvettek benetan gorrotatzen zuena, ia-ia gozamenaren gorroto huts garbi horrekin. Hain zen gorroto garbia berea, ezen biziki sentitzen zuenean, gozatu egiten baitzuen.

Andre zaharra eserita egoten zen bere aurpegi handi gorritua zertxobait atzera-zapaldurik zuela, enkajezko txanoa ile zuri urriaren gainean kokatuta, sudur motza irmo oraindik, eta aho zaharra zepoa bezala itxita. Atso zahar amatiar hura, ahoak salatzen zuen. Estua izan zuen beti.

Baina zahartzaroan, apoarena bezalakoa bihurtu zitzaion, ezpain gabea, masailezurra zepoaren beheko arkua bezala gora estuturik zuela. Yvettek gehien gorrotatzen zuena beheko masailezurra gora irmo estutua ikustea zen, kokotsa urteetako erabakizunez luzatua, modu horretara sudur motza tentetzera behartzen zuela, eta aurpegi guztia atzera-zapaltzen zitzaiola, bekoki zabal horma bezalakoaren azpian. Borondatea, andre zaharraren borondate likits urtetsu nazkagarria, beldurgarria zen, behin ikusten zenean: setakeria nazkagarri jainkogabe bat, eta gizatasunaren azpikoa! Apoen, edo dortoken, arraza zahar iraunkorrari zegokiona. Pentsarazten zion bati amona ez zela inoiz hilko. Bizitzen jarraituko zuela narrasti nagusiago horiek bezala, erdikoma egoeran, betiko.

Yvette ez zen ausartzen aitari amona perfektua ez zenik iradokitzen ere. Ero-etxearekin mehatxatuko zukeen alaba. Hori zen, antza, maukan beti gordeta zuen mehatxua: ero-etxea. Hain zuzen ere amona eta etxe izugarri hartako senitartekoak atsegin ez izate hutsa, berez, ero-

tasun froga, erotasun arriskutsuaren froga, baldin balitz bezala.

Hala ere, bere amorrualdi haietako batean, behin bota zuen bai Yvettek:

— Hauxe bai dela etxe nazkagarria! Etortzen dira izeba Lucy, izeba Nell eta izeba Alice, eta biribilean jartzen dira beleak bezala, amona eta izeba Cissirekin, denak gonak jaso eta sutan zangoak berotzen, Lucille eta ni kanpoan utzita. Kanpotarrak beste ezer ez gara etxe nazkagarri honetan!

Aita adi-adi geratu zitzaion begira. Baina Yvettek asmatu zuen hitzak halako harropuzkeria batez janzten, eta begietan haserrearen zakarkeria baino ez erakusten, eta aitak barre egin ahal izan zuen, ume-kasketaldi baten aurrean bezala. Barrenean, ordea, erretoreak bazekien Yvettek hoztasunez eta makurki benetan sentitzen zuela esan zuena, eta kontuan zegoen.

Yvetteren bizitza orain frikzio sumingarri bat baino ez zen Saywelltarren etxakidetza mikatzaren kontra, non baitzegoen bera murgilduta. Gorroto zuen erretore-etxea bizi-indar guztia kontsumitzen zion gorrotoz, gorroto hain biziz

ezen ezin baitzen lekutik mugitu. Irauten zion bitartean, haren sorginduraren mende egoten zen, nazkaturik.

Ahaztu zituen Eastwoodtarrak ere. Azken finean, zer zen judu txikiak zuen biguina, amonarekin eta Saywelltarren taldearekin konparatuta! Senar bat erdi-menturazko zerbait baino ez zen! Baina familia? Inoiz bananduko ez zen familia zikin nazkagarri, erdi hilean andre zahar perretxikotu baten oinari estekatua? Nola aurre egin horri?

Ijitoa ez zuen erabat ahaztu. Baina ez zuen harentzat denborarik. Yvettek, nahiz asperdurak hiltzen egon, eta egiteko ezer ez eduki, ez zuen denborarik pentsatzeko, seriozki, ezertan. Denbora ez baita, azken finean, arimaren errekaaren isuria baizik.

Bi aldiz ikusi zuen ijitoa. Etxera etorri zen behin, gauzak saltzen. Eta Yvettek, eskailburuko leihotik begira, uko egin zion jaisteari. Ijitoak ere ikusi zuen, gauzak atzera karroan jartzen ari zen bitartean. Baina hark ere ez zuen zeinurik egin. Gure gizartearen aldiriak erasotzeko bestetarako ez den arrazakoa izanik, beti etsai eta harra-

paketatik bizi dena, ondoegi zekien hark bere burua menderatzen, eta kontuz ibiltzen, gure legearen atzapar luze eta beldurgarriaren aurrean ageriki arriskuan jartzeko. Gerran ibilia zen. Gogoz kontra esklabotzara behartu zuten, orduan.

Orain, bada, erretore-etxean azaldu zen, eta astiro, lasai, karroaren egitekoetan aritu zen sarrate zuriaz kanpotik, arrotasun-aire isil eta betiere menderakaitzak ematen zion xarma bakarti harrapari harekin. Bazekien Yvettek ikusi zuela. Eta menderakaitz ikusi behar zuen, lasai-lasai kobrezko ontziak biderik bide saltzen, Yvette bezalakoan aurkako gerrara zeraman bidezidor antzinakoan barrena.

Yvette bezalakoak? Tronpatzen zen agian. Yvetteren bihotzak, taupaka, ijitoaren mailuak kobrearen gainean bezalako hotsa egiten zuen orain, zirkunstantzien kontra jotzean. Baina ijitoak isilgordeka kanpoaldetik kolpatzen zuen, eta oraindik isilago Yvettek ezarkuntzaren barrutik. Gustatzen zitzaion Yvetteri ijitoa. Gustatzen zitzaion haren presentzia lasai isil zehatza. Gustatzen zitzaion haren pairamen-indar misterio-

tsua, aurkako egoerari irauten diona, garaipenean pentsatu gabe. Eta gustatzen zitzaion horretaz gainera zuen gupidagabetasun berezi hura, desilusio etsaitasunez betea, gerra ondorenari dagokiona. Bai, alderdiren batekoa, edo clan-en batekoa izatekotan, ijitoarenekoa zen Yvette. Harekin joateko, eta emakume ijito paria bat izateko bezain bihotz gogorra zuen ia.

Baina gizartearen altzoan jaioa zen Yvette. Eta atsegín zuen erosotasuna, eta halako itzal bat. Erretorearen alaba izate hutsak ere, halako itzal bat ematen zuen. Eta gustatzen zitzaion hori. Halaber gustatzen zitzaion tenpluko pilareak koskatzea, barrutik. Onik egon nahi zuen tenpluaren teilatupean. Baina pilare euskarri zatikiak kentzen gozatzen zuen. Zalantzarik gabe zatiki asko kraskatu izango ziren filistearren pilaretatik, Sansonek tenplua behera bota aurretik.

— Ez dinat ikusten zergatik ez dituen batek bere txorakeriak egin behar hogeita sei urte arte, eta orduan etsipena hartu eta ezkondu!

Hori zen Lucilleren filosofia, emakume zaharragoengandik ikasia. Yvettek hogeita bat urte

zituen. Horrek esan nahi zuen beste bost geratzen zitzaizkiola txorakeria preziatu horietarako. Eta txorakeriak, momentu honetan, ijitoa esan nahi zuen. Ezkontzak, hogeita sei urterekin, Leo edo Gerry esan nahi zuen.

Hartara, emakumeak jan zezakeen tarta eta eskura zezakeen ogia.

Yvette, Saywelltarren etxakidetzaren aurka-ko etsaitasun izugarrian finkaturik, irtenbiderik gabe, oso zahar eta oso zuhur sentitzen zen: gaztearen zahartasun eta zuhurtziarekin, zuhurtzia handiagoa beti, zaharrena, nagusiena baino.

Bigarren aldian kasualitatez topatu zuen ijitoa. Martxoan zen, eta eguraldi eguzkitsua, ikusi ez bezalako euriteen ondoren. Hesietan korradubelar loreak hori zeuden, eta San Jose loreak harkaitz arteetan. Baina artean urrutiko altzairute-gietako sulfuro usaina heltzen zen, altzairuzko zeru urdinetik.

Eta udaberria zen haatik!

Yvette bizikletari astiro eraginez zihoan Codnor Gate aldetik, karobietatik aurrera, eta orduantxe harrizko baserri baten atetik ijitoa etortzen ikusi zuen. Karroa han zuen bidean.

Erratz eta kobrezko gauzekin bueltan zetorren, karrora.

Bizikletatik jaitsi zen Yvette. Ijitoa ikusi zuenean, xamurtasun bereziz maitatu zuen jertse berdearen azpiko soin-egitura liraina, aurpegi isilaren ingurubira. Iruditu zitzaion hobeto ezagutzen zuela hura munduan ezagutzen zuen beste inor baino, Lucille ere baino, eta harena zela, nolabait, betiko.

— Egin al duzu gauza berri politen bat? —galdetu zion xaloki, kobrezko gauzei begira.

— Ez dut uste —esan zuen ijitoak, begiak Yvetterengana itzuliz.

Desira han zegoen oraindik, erne eta ageri, ijitoaren begietan. Baina urrunagoa zen, ez hain lotsagabea. Distira ñimiño bat zuen begiradan, Yvette desatsegin balu bezala. Baina desagertu zitzaion atzera, Yvette kobrezko pieza eta latoi-lanen artean begira ikusi zuenean. Arreta handiz aztertzen zituen.

Bazen latoizko plater txiki obal bat, gainean palmondoaren tankerako irudi bitxi bat grabatua zuena.

— Hauxe gustatzen zait —esan zuen Yvettek—. Zenbat da?

— Nahi duzuna —ijitoak.

Horrek urduri jarri zuen Yvette; ijitoa konfiantza gehiegi hartuta, ia isekari iruditu zitzaion.

— Nahiago dut zuk esatea —esan zion Yvettek, gora begiratzen ziola.

— Eman nahi duzuna —esan zuen ijitoak.

— Ez! —esan zuen Yvettek bat-batean—. Esaten ez badidazu, ez dut hartuko.

— Ondo da —esan zuen ijitoak—. Bi txelin.

Yvettek koroa erdikoa aurkitu zuen, eta ijitoak esku bete txanpon poltsikotik atera eta sei penikekoa itzuli zion.

—Andre zahar ijitoak zuri buruzko emets bat izan du, esan zion gizonak, begi sarkorrez aztertzen zuela.

— A, bai? —esklamatu zuen Yvettek, istanteko interesaturik—. Zer zen?

— Hau esan zuen: Izan adoretuago bihotzez, bestela galdu egingo duzu jokia. Berak honela esan zuen: «Izan adoretuago gorputzez, bestela zorteak ihes egingo dizu.» Eta hau ere bai: «Adi egon uraren mintzoari.»

Yvette oso inpresionaturik geratu zen.

— Eta zer esan nahi du horrek? —galdetu zion.

— Galdetu diot —esan zuen ijitoak—. Ez omen daki.

— Esadazu berriro nola zen —esan zuen Yvettek.

— «Izan adoretuago gorputzez, bestela akabo zortea.» Eta: «Adi egon uraren mintzoari.»

Ijitoak Yvetteren aurpegi leun pentsatiari begiratu zion isilik. Ematen zuen perfumea bezalako zerbait iristen zitzaiola zuzenean Yvetteren papar gaztetik, eskerronezko lotura gisara.

— Gorputzez adoretuago izan behar dudala, eta uraren mintzoa aditu behar dudala! Ederki! —esan zuen Yvettek—. Ez dut ulertzen, baina baliteke egunen batean ulertzea.

Begirada garbiz begiratu zion Yvettek. Gizonak zein emakumeak alde asko ditu. Alde batetik, Yvettek gizon ijito hura maite zuen. Beste alde askotatik, ez zuen kontutan hartzen edota desatsegina zitzaion.

— Ez duzu Headera gehiago igo behar? —galdetu zion ijitoak.

Orain ere Yvettek distraiturik begiratu zion.

— Agian bai —esan zuen—, egunen batean.

Baliteke.

— Udaberri eguraldia! —esan zuen ijitoak, irribarre arin batekin, burua jaso eta eguzkiari begira—. Aurki kanpamendua jaso eta bagoaz.

— Noiz? —galdetu zuen Yvettek.

— Datorren astean edo.

— Nora joateko?

Ijitoak berriro buruarekin keinu egin zuen.

— Iparraldera edo —esan zuen.

Yvettek begiratu egin zion.

— Ederki! —esan zuen—. Igoko naiz behar bada joan zaitezten baino lehen zure emazteari eta mezua bidali didan andre zaharrari agur esatera.

IX

Ez zuen Yvettek agindua bete. Martxoko egun apurrak zoragarriak izan ziren, eta joaten utzi zien. Uzkurtasun harrigarria izaten zuen, beti, zerbaiti ekiteko, edo bere kabuz edozein pauso emateko. Nahi izaten zuen, beti, pausoa bestek eman zezala bere ordeaz, bizitzan egokitzen zitzaion partea jokatu nahi ez balu bezala.

Betiko bizimodua zerman; lagunekin, irteten zen party-etara, eta kikildu ez zen Leorekin dantza egiten zuen. Igo nahi zuen ijitoei agur esatera. Igo nahi zuen. Eta ez zion ezerk galarazten.

Batez ere ostiral arratsaldeaz sentitu zuen joateko gogoia. Eguzkia zegoen, eta sarbideko azken krokus horiak garretan zeuden, zabal-zabal eginda, lehen erleak kiribilka zituztela. Papple lasterka zihoan harrizko zubipean, estrainioki igota, ia arkuak betean. Ereinoztxo arbolaren usaina zegoen.

Eta Yvette sentitzen zen oso nagi, oso, oso nagi. Jardinean ibai ondoan hara-hona zebilen, erdi-ameslari, zerbaiten zain. Udaberriko eguzki-

izpiek zirauten bitartean, kanpoan egongo zen. Etxe barruan, amona, prelatu zahar izugarri baten gisara atzerantz eserita, zeta beltz buelotsua soinean eta enkajezko txanoa buruan, sutondoan zen oinak berotzen, eta izeba Nellek kontatzen zion guztia entzuten. Izeba Nellen eguna zen ostirala. Gehienetan bazkal garairako etortzen zen, eta tea goiz hartuta joaten. Horrela, ama eta alaba, emakume handi nahiko arrunta, berrogei urteko alarguna, sutondoan eserita masiaketan aritzen ziren, eta izeba Cissie, berriz, sartu eta irten. Ostirala zen erretoreak hirira joateko zuen eguna, eta baita neskameak egun erdiz jai zuena ere.

Yvette jardineko egurrezko eserleku batean eseri zen, ibai haziaren ertzetik oin bakar batzuk goraxeago, ibaiak urketa estrainio misterioetsua arrastan zeramala. Krokusak zimeltzen ari ziren parterre apaingarrietan, belarra berde ilun zegoen segatutako lekuan, erramuek zertxobait argiago ziruditen. Izeba Cissie agertu zen portxe-ko mailen buruan, eta Yvetteri dei egin zion ea goiz-te hartatik katilu bat hartu nahi zuen. Ondean behean zuen ibaiagatik, Yvettek ez zuen

entzun izeba Cissiek zer esan zion, baina imajinatu zuen, eta burua astindu zion. Garai horretan tea hartu, etxera sartu, oraindik eguzkia zegoela? Ez, eskerrik asko!

Ijitoarengan pentsatzen zuen, han eguzkitan eserita gogoetari zegoela. Yvetteren gogoak erraztasun erdi-mingarri erdi-aringarri bat zuen bere baitatik irten eta, norabait, irudimenera etorri zitzaion norbaitengana ihes egitekoa. Egun batzuetan Framleytarrenean egongo zen, nahiz eta haiengana hurbildu ere egin ez. Beste egun batzuetan, denbora guztian Eastwoodtarrekin egongo zen izpirituz. Eta gaur, berriz, ijitoekin. Gaur ijitoen harrobiko kanpamendura igoa zen. Ikusten zuen gizona kobreak mailuka, burua jaso eta bidera begira; eta haurrak zaltegian jolasean, eta emakumeak, ijitoaren emaztea eta andre zahar sendoa, beren fardelekin etxera bidean, gizon zaharrarekin batera. Izan ere arratsalde horretan, Yvettek biziki sentitzen baitzuen hura zela bere egiazko etxea: ijito-kanpamendua, sua, aulki motza, mailuan ari zen gizona, sorgin zaharra.

Yvetteren izaeraren parte zen, gogoaren indarrez, ezagutzen zuen lekuren batera joatea, leku jakinen batean egotea, beretzat etxea adierazten zuen norbaitekin. Arratsalde horretan ijitoen kanpamenduan zegoen. Eta gizon jertse berdedunak etxea adierazten zuen beretzat. Hura zegoen lekuan egotea, hori zen etxean egotea. Karabanak, ume-gorriak, beste emakumeak... dena naturala iruditzen zitzaion: bere etxea, han jaio izan balitz bezala. Jakin nahi zukeen ea ijitoa konturatzen ote zen han zela; ikusten ote zuen sutondoan aulki motzean eserita; jasoko ote zuen burua eta ikusiko ote zuen jaikitzen, eta begirada luze eta esanguratsua zuzentzen ziola, haren karabanako mailetara zuzentzen. Konturatzen ote zen? Konturatzen ote zen?

Begiak jaso zituen lausoki etxearen iparraldeko alertze ilunen aldapara, handik gora baitzihoan ikusiezin bidea, Head aldera. Ez zen ezer ageri, eta begiak behera ekarri zituen berriro. Maldaren oinetan bihurrikatu egiten zen ibaia, jotzen zituen bortizki, adu gaiztoz, beste ertza-
ren barreneko harkaitzak, eta jardina igaro

ondoren zubira isurtzen zen. Naturala ez zen moduan beterik zihoan, eta lokatz-kolore zurixkaz, eta astun.

— Adi egon uraren mintzoari —esan zuen Yvettek bere artean—. Adi egon beharrik ez, mintzoak zarata esan nahi badu!

Eta berriro begiratu zion bihurgunera helztean haserrez hausten zen ibai haziari. Haren gainean baratza goibela zegoen esekirik, eta fruta-arbola gogorak. Pendizean zegoen dena, hegora edo hego-mendebaldera, eguzkitara begira. Atzean, etxearen eta baratzaren goitik zegoen zintzilik alertze-baso aldapatsu ihartu-itxurakoa. Baratzaina ari zen baratzean lanean, goiko aldean, alertze-basoaren mugan.

Yvettek dei bat entzun zuen. Izeba Cissie eta izeba Nell ziren. Etxe aurrean zeuden, eskuarekin agurka. Yvettek agurrari erantzun zion. Orduan izeba Cissiek, uren gainetik ahotsa altxatuz, dei egin zion:

— Ez naiz asko luzatuko. Ez ahaztu amona bakarrik dagoela!

— Ondo da! —oihu egin zuen Yvettek eragin gutxirekin.

Eta bankuan eseri eta bi emakume zirtzil abrigo luzedunei begira geratu zen, poliki-poliki oinez zubia igaro eta beste aldeko bihurgunean gora ekiten zioten bitartean, izeba Nell eskuan maleta moduko bat zuela, zeina erabiltzen baitzuen amonari sari batzuk ekartzeko eta itzulera-koan barazkiak edo erretore-etxeko baratzak zein arasak eskaintzen zuenetik eramateko. Poliki-poliki txikiagotu ziren figurak, bide bihurri zurixkan gora, Papplewickeko herrixka aldera neketsu igoz. Izeba Cissie herrira zihoan zerbaitetara.

Eguzkia horitu eta sartzera zihoan. Zer pena! O, zer pena egun eguzkitsua amaitzear egotea, eta barrara sartu behar izatea, gela gorrotagarri haietara, eta amonarengana! Izeba Cissie berehala itzuliko zen: bostak jota ziren. Eta beste guztiak hiritik iristen hasiko ziren, muturtuta eta nekaturik ziurrenera, seietatik aurrera.

Egonezinez jiratu zenean, ur-korrontearen beste aldetik, zaldi eta karro baten zarata zorrotza entzun zuen kirrin-karran zetorrela alertze arteko bide ezkutuan aurrera. Baratzaina ere gora begira zegoen. Beste aldera jiratu zen berri-

ro Yvette eta, luzapenetan, pauso bat edo beste eman zituen ibai betearen ondoan, barrura sartzeko gogorik gabe, aldian behin izeba Cissie ba ote zetorren begiak bidera luzatzen zituela. Ikusten bazuen, sartu egingo zen.

Norbait garrasika entzun zuen, eta burua jiratu zuen. Alertze arteko bidean behera ijitoa jauzika zetorren. Baratzaina ere, harantzago, lasterka zihoan. Une horretan bertan sumatu zuen Yvettek orro handi bat, zeina, mugitu ahal izan zuenerako, burrunba itzel gorgarri bihurtu baitzen. Ijitoa keinuka ari zitzaion. Yvettek atzera begiratu zuen, bizkar aldera.

Eta bere espantu eta txundidurarako, ibaia-
ren bihurgunean urezko uhin-buru kima-hori bat ikusi zuen aurreratzen lehoi pareta bat irudi. Orroaren hotsak irentsi zuen dena. Yvette indar-ge zegoen, txundituegi eta liluratuegi, ikusi egin nahi zuen.

Bi aldiz pentsatzeko denbora baino lehen, ondoan zuen, urezko pareta bat orroka. Konortea ia galdu zuen espantuz. Ijitoaren garrasia entzun zuen, eta gora begiratu eta jauzika bere-

gana etortzen ikusi zuen, begi beltzak aurpegitik irten beharrean.

— Korri! —garrasi egin zion ijitoak, besotik heltzen ziola.

Eta instant berean behetik gora busti zizkion Yvetteri oinak lehen olatuak, eta zurrunbiloak, eromenezko zarataren artean, zeinak une batean batek daki zergatik isiltasuna baitzirudien, jardina uretan ito zuen. Uraren sega izugarria!

Ijitoak Yvette arrastan zeraman astunki, balantzaka, murgilka, baina arean oinen gainean zirautela biek, etxe aldera. Yvette ia zentzumenik gabe zegoen, uholdeak arima ito balio bezala.

Bazen jardinean belarrez estali koska bat, etxe bueltako bide ondoan. Ijitoa atzaparka igo zen koskan gora bidea lehorra zegoen parera, Yvette atzetik arrastan zuela, eta harekin batera oldartu zen leihoak pasatu eta portxeko mailetara. Hara heldu ziren baino lehen, beste ur-uhin handi baten sega etorri zen, arbolak sustraietatik botaz, eta irauli zituen haiek ere.

Ur zurrunbilo izoztuan galduta hilurren sentitu zen Yvette, jira-biraka, eskumuturrean ijitoaren eskuaren estura ikaragarria besterik gabe. Biak azpiraturik eta desagerturik ziren. Yvettek zanpadura sor baina bortitz bat sentitu zuen nonbait.

Orduan ijitoak gora tira egin zion. Goian zegoen ijitoa, ura zeriola, paretaren kontra hazten zen wisteria handiaren enberrari gogor helduta, urak paretaren kontra estutzen zuela. Burua uraren gainetik zuen Yvettek; besoa eten behar balio bezala tira egiten zion ijitoak, baina ez zuen zorurik ukitzen oinekin. Amesgaiztoetan bezalako ondoez hilgarriz, behin eta berriz ahalegintzen zen, baina ez zuen lortzen omen gainean jartzerik. Ijitoaren eskua eskumuturrari itsatsia, ez zuen besterik.

Ijitoak ondorago erakarri zuen, Yvettek esku bakarrez zangotik heldu ahal izan zion arte. Ijitoa ia erori zen berriro. Baina wisteriak eutsi zion, eta beregana gora tira egin zion Yvetteri. Yvettek atzaparrak itsatsi zizkion, desesperaturik, eta zutik jarri zen, ijitoa, bitan zatitu gizona irudi, wisteriaren enberrari estekatzen zitzaionlarik.

Ura belaunetatik gora iristen zitzaion Yvette-ri. Gizona eta biak elkarren aurpegi zurbil blaituei begira geratu ziren.

— Zoaz mailetara! —garrasi egin zion ijitoak.

Kantoian buelta hartzea besterik ez zen: lau pauso! Yvettek ijitoari begiratu zion: ezin zen joan. Ijitoak suak hartuta tigreak bezala begiratu zion, eta bultza egin zion. Yvette paretari itsatsi zitzaion, eta urak pixka bat behera eginda zirudien. Kantoia inguratuz joan zen balantzaka, baina balantzada batean, oreka galdu eta por txeko mailetako barandaren ertzaren kontra jaurtiki zuen urak, gizona atzetik zuela.

Mailetan zirela, orro artean beste orro bat entzun zen, eta etxeko paretak dardara egin zuen. Ura berriro zangoetatik gora zuten, baina ijitoak sarrerako atea zabaltzea lortu zuen. Barrura isuri ziren urarekin batera, zambuluka eskailera aldera. Orduan ikusi zuten amonaren buelo motz estrainioa hall-ean agertzen, jangelako atetik irtenda. Andre zaharrak eskuak goratu eta erpetu zituen, ura zangoen inguruan zirimolatu zitzaionean, eta hilkutxa bezalako ahoa zabaldu zuen garrasi erlats batean.

Yvettek ez zuen eskailera besterik ikusten. Itsuturik, uraren gainetik zeuden mailei beste ezeri kontu egin gabe, lau-oinean igo zen, katu busti dardarati baten antzera, zentzumenik gabe. Eskailburura iritsi eta geratu zen arte, ura tantaka zuela eta dardaraz zutik egon ezinda, barandari helduta, etxea dardaraz eta behean urak purrustean ziren bitartean, ez zen konturatu ijitoa zopa eginda eskailburuan zegoela, ezulka lehertzen, bisera galduta, ile beltza begien gainera erorita, ile bustiaren artetik begiak ñarrotuz beheko hall-eko uraren pulunpa okaztagarriari begira. Yvettek ere, zorabioan, begiratu zuen eta amona ikusi zuen uraren gainean, flotagailu estrainio bat bezala, aurpegia more, begi urdinitsuak jira-biraka, ahotik bitsa zeriola. Esku zahar more bat kakotu zitzaion barandako barra bati, eta une batean eutsi zion, ezkon eraztun baten distira erakusten zuela.

Ijitoak, ezul egiteari utzi eta ileari atzera eraginda, beheko flotagailuaren aurpegi beldurgarriari esan zion:

— Ez dio eusten! Ez dio eusten!

Trumoia bezalako burrunba sakon batek astindu zuen etxea berriro, eta dardarazi zion, eta kriski-kraska, dinbi-danba eta zirti-zarta hots estrainioak hasi ziren. Itsasoa bezala igo zen ura. Desagertu zen eskua, ez zegoen ezeren arrastorik, altxatzen zihoan ura besterik.

Ezaguerarik gabeko aldarte itsuan itzuli zen Yvette, katu bustia bezala aldaroka goiko pisuko eskaileretara, eta korrika igo zen. Gelako atera iritsi zenean gelditu zen, zirti-zarta hots zorabigarri batek paralizaturik: etxea okertzen ari zen.

— Etxea behera dator! —oihu egin zion ijitoaren aurpegi berdotzak, aurrez aurre.

Txinpartak zerizkiola begiratzen zion Yvetteren erotu-aurpegiari.

— Non da tximinia? atzeko tximinia?... zer gela? Tximiniak zutik eutsiko dio...

Suzko begirada basatia zuzendu zion Yvetteri aurpegira, ulertzera behartzen zuela. Eta Yvettek buruarekin baiezko keinu xelebrea, eroarena bezalakoa egin zion, oso lasai keinu egin eta esan zion:

— Hemen barruan! Hemen barruan! Lasai.

Yvetteren gelan sartu ziren; tximinia estu bat zegoen bertan. Atzeko gela bat zen, bi leiho zituen, kebidetaren bi aldeetan bana. Ijitoa, garrazki ezulka eta soin-adar guztiak dardaraz zituela, leihora joan zen kanpora begiratzera.

Behean, etxearen eta mendi maldaren artean, ur-naza bortitza zihoan indarrean zaborraz beterik, Roverren txakurtegi berdea ere tartean zeramala. Ijitoak, ezul eta ezul, ilaunki begiratu zuen behera. Bata bestearen atzetik erortzen ziren arbolak, urak, hamar oin sakon izango baitzen, sustraietatik botata.

Dardaraz eta beso bustiak bularralde bustiaren kontra estuturik, etsipena aurpegi zurbilean, ijitoa Yvetterengana itzuli zen. Zirti-zarta hots beldurgarri batek zartatu zuen etxea, eta gero eztanda sor sakon bat izan zen. Gainbehera etorri zen zerbait, etxearen zatiren bat; zorua altxatuta eta koloka zuten azpian. Une batean biak arnasarik gabe geratu ziren, zur eginda. Ijitoa ernatu zen.

— Ez dio eusten! Ez dio eusten! Honek eutsiko dio. Honek zutik eutsiko dio. Ikusten tximinia

hori? Dorrea bezalako. Bai! Lasai! Lasai! Erantzi arropak eta sartu ohean. Hotzak hilko zara.

— Ondo nago! Oso ondo nago! —esan zion Yvettek, aulki batean eseri eta gora begiratzen ziolarik bere aurpegitxo zuri liluratuarekin, zeinaren inguruan erantsirik baitzuen ile bustia.

— Ez! —esan zuen ijitoak—. Ez! Kendu arropa eta toalla honekin igurtziko zaitut. Eta ni ere bai. Etxea erortzen bada, epel hil behintzat. Erortzen ez bada, berriz, bizi, pulmoniaz hil gabe.

Eztulka, dardara bizian, ijitoak jertse barrena-ri tira egin zion gora, eta dardarak eta hotzikarak uzten zion indar guztiarekin ahalegindu zen jertse busti estua kentzen.

— Lagunidazu! —oihu egin zuen, aurpegia jertsearekin estalita zuela.

Yvettek jertsearen ertzari heldu zion, zintzo, eta indar guztiarekin tira egin zion. Jazkia burua-
ren gainetik pasatu zen, eta ijitoa galtza-uhale-
tan agertu zen.

— Kendu arropak! Igurtzi toalla honekin! —
agindu zion Yvetteri zorrotz, gerrako basatike-
riaz. Eta obsesionatua bezala, atera zituen gal-
tzak, erantzi zuen alkandora busti eranskorra,

eta argal eta belun agertu zen, hotzagatik eta inpresioagatik zain guztiak dardaraz.

Toalla bat hartu zuen, eta azkar-azkar gorputza igurzten hasi zen, hortzak kriskitinak bezala elkar joka zituela. Arrazoizkoa zela ikusi zuen Yvettek lausoki. Soinekoa kentzen ahalegindu zen. Ijitoak erauzi zion herioaren atzaparra bezala itsatsirik zuen arropa busti izugarri hura, eta gero, atzera bere burua igurzten jarraitzen zuela, ate aldera joan zen, zoru bustiaren gainean hanka-puntetan ibiliz.

Han geratu zen, biluzik, toalla eskuan, harri eginda. Begiratu zuen mendebaldera, lehen goiko eskailburuko leihoa zen lekura, eta eguzkia sartzen ikusi zuen, urezko itsaso zentzugabe, arbola erauziz eta zaborraz laztuaren gainetik. Portxea eta eskailerak zireneko etxearen handiko muturra, desagerturik zen. Pareta erorita zegoen, solairuak zintzilik agerian utzirik. Eskailerak desagerturik ziren.

Mugitu gabe, urari begira geratu zen. Haize hotz bat sartu zitzaion. Estutu zituen hortz karraskariak borondatearen indar handiz, eta atzera gelara itzuli zen, atea itxita.

Yvette, biluzik, hain dardara handiek goragalea ematen ziotela, bere burua lehortzeko ahaleginetan ari zen.

— Lasai! —esan zuen ijitoak—. Lasai! Ura ez da gehiago igo! Lasai!

Eskuetan zuen toallarekin Yvette iguzten hasi zen, bera ere burutik oinetaraino dardaraz zela, baina Yvetteri sorbaldatik irmo heldu eta, astiro, sorgorki, gorputz xamurra igurzten zion, buru txikia igurzten zion ile penagarri hura pixka bat lehortu nahirik.

Gelditu egin zen bat-batean.

— Sartu ohean —agindu zion—. Neuk igurtzi behar dut.

Hortzek kask-kask egiten zioten, indar handian, hitzak eteten zizkiotela. Yvette dardaraz eta zentzumena erdi galduan ohean sartu zen. Ijitoa, bere buruari geldi eusteko eta igurtzika berotzeko leherrenak eginez, iparraldeko leihora joan zen berriro, kanpora begiratzera.

Ura gora eginda zegoen pixka bat. Eguzkia sarturik zen, eta argitasun gorrizta bat zegoen. Ilea nahas-mahas beltz heze bat eginda utzi zuen arte igurtzi zuen, eta arnasa hartzeko gel-

ditu zen, bat-batean hotzikaraldi batek erasota; berriz ere kanpora begiratu zuen, bularraldea igurtzi eta eztulka hasi zen, irentsi zuen uragatik. Gorria zeukan toalla: urraturen bat egina zuen nonbait, baina ez zuen ezer sentitzen.

Uraren hots itzel estrainioa, eta pareten kontra jotzen zuten gauzen danbateko izugarriak entzuten ziren oraindik. Haize hotza harrotzen ari zen eguzkia sartzearekin, indartsu. Eztanda-durundek astindu zuten etxea, eta adu gaiztoko zarata beldurgarriak entzun ziren.

Izua arimaraino sartuta zuela, berriz ere atera joan zen ijitoa. Haizea, urekin batera orroka, barrura sartu zitzaion atea zabaldu zuenean. Etxeko zirrikitu erdiragarriaren artetik ikusi zuen mundua: urak, ur espantagarrien kaosa, ilunabarra, ilargi bete-betea goian eguzki sartuaren fits ahularen gainetik, eta hodei beltzak zeruan oldartzen, haize hotzaren purrustadak bultzatuta.

Berriro hortzak estutuz, ariman beldurra eta etsipena, edo fatalismoa, nahasi zituela, ijitoa gelan sartu zen eta atea itxi zuen; Yvetteren toalla hartu zuen ea berea baino lehorragoa, eta

gutxiago odoldua, ote zegoen ikusteko, eta berriz ere burua igurtziz, leihora joan zen.

Itzuli egin zen, hotzikararen astinduak menderatu ezinik. Yvette ohe-estalgarren azpian desagerturik zen erabat, eta ez zen haren aztararik, ohazal zuriaren azpiko konkorraren dardara ezik. Ijitoak eskua jarri zuen konkor dardara-tiaren gainean, lagun egiteko bezala. Baina ez zion dardara egiteari utzi.

— Lasai! —esan zuen ijitoak—. Lasai! Ura jaisten ari da!

Yvettek bat-batean burua desestali eta begiak ñarrotuz aurpegi-zuri begiratu zion. Begira geratu zitzaion ijitoaren aurpegi berdotz baretasun estrainiokoari, erdi kontziente baino ez zegoenari. Ijitoari hortzek karraska egiten zioten konturatu gabe, Yvetteri begira zegoela, begi beltzak oraindik bizi-suz eta halabeharrezko etsipen bare buhames batez.

— Bero nazazu! —murmuratu zuen Yvettek, hortzak karraska—. Bero nazazu! Hotzak hilko naiz!

Zirrada lazgarri batek, zart eragin eta heriotza ekartzeko adinakoak, zeharkatu zuen Yvette-ren gorputz zuri biribilkatua.

Ijitoak buruarekin baietz egin zion, eta besotan hartu zuen, eta tornuaren besoek bezala estutu zuen, bere dardara gelditzeko. Bera ere dardara ikaragarriarekin zegoen, eta erdi kontziente baino ez. Inpresioagatik zen.

Inguratzen zuten besoen tornuaren gisako estekadura iruditu zitzaion Yvetteri puntu egonkor bakarra. Arindura beldurgarria izan zen lehertzear zuen bihotzarentzat. Eta nahiz eta ijitoaren gorputza, garroak bezala Yvetteren inguruan estrainio zinbel eta indartsu kiribildua, elektrizitate korrontea bezala dardaratzen zen, Yvette estutzen zuten giharren tenkadura zurrinak biak baretu zituen, eta pixkanaka-pixkanaka, dardararen indar okagarria, inpresioak eragina, apaldu egin zen, ijitoaren gorputzean lehenik, Yvetterenean gero, eta berotasuna suspertu zen bien artean. Eta biziagotu zenean, bien gogo torturatu erdi kontzienteak ez-kontziente bihurtu ziren, loak hartu zituen.

X

Eguzkia zeruan distiraz zen gizonak esku-eskailera bidez Papple gurutzatu ahal izan zuteneko. Zubia desagerturik zen. Baina apaldurik zen uholdea, eta etxea, errekarari erreberentzia zurrun bat egiten bezala aurrerantz okertua, lokatza eta hondakin artean zegoen orain, hegomendebaleko kantoian pareta eroriak eta hondakin pilak zituela. Beldurgarriak ziren geletako aho-zuloak!

Barrean, ez zen bizi-aztarnarik. Baina errekararen beste aldetik baratzaina etorri zen errekonozimenduan, eta sukaldaria agertu zen, jakinminez erretzen. Sukaldariak atzeko atetik ihes egin zuen eta alertze artetik bidean gora jo, etxearen beste aldean ijitoa jauzika ikusi zutenean, norbait hiltzera zetorrela pentsatuta. Goiko sarrate txikian aurkitu zuen karroa geldi. Zaldia baratzainak eramanean zuen Darleyra, Red Lionera, gaua iritsi zenean.

Hori zen Papplewickeko gizonak jakin ahal izan zutena azkenean esku-eskailera bidez erre-

ka gurutzatu eta etxearen atzeko aldera iritsi zirenean. Urduri zeuden, eraikuntza eroriko zen beldurrez: aurreko aldea erabat hondaturik eta atzeko aldea oztopaturik zeuzkan. Izaturik ikusten zituzten erretorearen liburu-ilaren apalak hutsik, estudio zartatuaren zuloak agerian; amonaren gelako kobrezko ohe handia, hain bigun eta eroso, baina kobrezko ohe-hezurduraren hanka bat hutsartean ganean koloka zuela amiltzeko arriskuan; neskamearen goiko gelako hondakinak. Neskamea eta sukaldaria negarrez zeuden. Gizon bat sartu zen kontu handiz sukaldako leiho apurtu batetik, beheko solairuko nahaspila eta istingatara. Andre zaharraren gorputza aurkitu zuen, edo behintzat haren oin bat ikusi zuen, zapatila beltz laua jantzita zuela, hondakin eta lohi pilaren artetik lokazturik irteten. Eta aldean alde egin zuen gizonak.

Baratzainak esaten zuen bazekiela ziur Yvette etxean ez zela. Ijitoa eta biak urak nola zermatzen ikusi zuela. Baina poliziak bilaketan jarraitzeko agindu zuen, eta Framley inutilak lasterka heldu zirenean, eskailerak sokaz elkarri loturik geratu ziren. Orduan talde guztia deiadar-

ka hasi zen gogor. Baina alferrik Erantzunik ez barrutik.

Eskailera bat zutitu zuten eta Bob Framley igo zen: leiho bat hautsi eta izeba Cissieren gelara sartu zen. Hango gauzen etxekotasun eta familiartasunak izpirituak ikusita bezala izutu zuen. Etxea edozein unetan eror zitekeen.

Eskailera goiko solairuraino luzatuta zuteanean, Darleyko gizonak etorri ziren korrika, esanez ijito zaharra Red Lionen izan zela zaldi eta karroaren bila joanda, eta aditzera eman zuela semeak Yvette etxearen goiko aldean ikusi zuela. Baina ordurako polizia Yvetteren gelako leihoa puskatzen ari zen.

Yvettek, lo astunean baitzegoen, ohe-estalgarrien artetik sustoan irten eta garrasi bat jaurti zuen, kristalak saltatu zuenean. Maindireei estuki helduz estali zuen bere biluztasuna. Poliziaren sorpresazko oihua «Yvette andereño! Yvette andereño!» deiadar bilakatu zen.

Eskaileraren gainean jiratu eta beheko aurpegiei oihu egin zien:

— Yvette andereñoa ohean dago! Ohean!

Eta han geratu zen eskaileraren gainean, gizon ezkongabea, leihoari irmo helduta arriskuan, zer egin ez zekiela.

Yvette ohean eserita zen, ilea nahas-mahas eginda, eta begi izutuekin begiratzen zuen, maindireak bularralde biluziaren kontra estutuz. Hain lo sakonean egonda, oraindik ez zion antzik ematen non zegoen.

Polizia, eskailera makalaren beldur, gelara sartu zen, eta esan zuen:

— Ez ikaratu, andereño! Ez kezkatu gehiago. Salbu zara.

Eta Yvettek, zuen zorabioarekin, pentsatu zuen ijitoagatik zioela. Non zen ijitoa? Hori zen burura etorri zitzaion lehenengo gauza. Non zen mundu-amaierako gau horretako ijitoa?

Alde eginda! Alde eginda! Eta polizia bat gelan! Polizia bat!

Eskuaz igurtzi zuen bekoki zorabiatua.

— Janzten bazara, andereño, behera eramango zaitugu leku segurura. Etxea ia erorian dago. Ez da, ba, inor egongo beste geletan?

Kontu handiz korridorera joan zen polizia eta ikaraturik begiratu zuen etxe mutur amilduaren

zulotik, eta urrutira erretorea ikusi zuen auto batean zetorrela, eguzkiak argitu mendian behe-
ra.

Yvette, aurpegia sorgor eta desilusionaturik, bizkor jaiki zen; ohe-estalgarrak atzera luzatu zituen, eta bere buruari begiratu zion une batez, eta gero arropen kajoak zabaldu zituen. Jantzi zen, begiratu zuen ispilura, eta izuturik geratu zen ile katramilatua ikustean. Baina ez zion axola. Ijitoa joanda zen, nolana ere.

Yvetteren arropa zopatuak lurrean zeuden pila. Bustigune handi bat zegoen alfonbran ijitoarenak egondako lekuan, eta bi toalla zikin odolez mantxatuak. Bestela, ez zen ijitoaren aztarnarik.

Ileari tiraka ari zen Yvette poliziak atea jo zuenean. Sartzeko esan zion. Arindu zen polizia Yvette jantzita eta bere senean ikusi zuenean.

— Hobe izango dugu etxetik lehenbailehen irtetea, andereño —esan zion berriro—. Edozein momentutan eror daiteke.

— Benetan? —esan zuen Yvettek lasai—. Horrenbestera inokoa al da?

Deiadar handiak entzuten ziren. Yvettek leihora joan behar izan zuen. Han zegoen, behean, erretorea, besoak zabal-zabalik, aurpegian behera malkoak zerizkiola.

— Ondo nago, aitatxo! —esan zuen Yvettek, bere sentimendu kontrajarrien baretasunarekin. Aitarengandik sekretuan gordeko zuen ijitoa. Aldi berean, malkoak erortzen zitzaizkion aurpegian behera.

— Ez egin negarrik, andereño, ez egin negarrik! Erretoreak ama galdu du, baina eskerrak ematen dizkio alaba berreskuratzeko izan duen zoriari. Denok uste genuen galdu zinela zu ere, horra!

— Amona ito egin al da? —esan zuen Yvettek.

— Zoritxarrez bai, andre gaixoa! —esan zuen poliziak, aurpegi serioz.

Yvettek malkoak lehortu zituen, kajoira joan eta hartu behar izan zuen paineluarekin.

— Ausartuko zara eskailera horretatik jaisten, andereño? —esan zuen poliziak.

Yvettek begiratu zion inklinazio sakonari, eta bertantxe esan zuen bere artean: «Ez! Ezta ezer-

gatik ere!»... Baina orduan ijitoaren hitzak gogoratu zituen: «Izan zaitez adoretzu gorputzez.»

— Beste gela guztietan izan zara? —esan zuen Yvettek, malkoen artean, poliziarengana jiratur.

— Bai, andereño! Baina zu zara etxean zen pertsona bakarra, zera, andre zaharraz gain. Sukaldariak irteteko denbora izan zuen, eta Lizzie amarenean zen. Zuk eta andre zahar gaixoak bakarrik eduki gaituzue kezkatan. Ausartuko ote zara eskailera horretatik jaisten?

— Bai, bai! —esan zuen Yvettek, indiferentziaz. Ijitoa joanda zen nolana ere.

Eta orain erretore tormentatuak ikusten zuen alaba garai segaila, poliki-poliki eskaileratik atzeraka jaisten, poliziak, hautsitako leihotik heroikoki begira, eskaileraren goiko muturrari eusten zion bitartean.

Eskaileraren oinetan Yvette egokiro aitaren besoetan erori zen, eta Bobek eraman zituen biak, autoan, Framleytarren etxera. Han Lucille gaixoak, hildakoa baino zurbilago, histeriak hartzerainoko negarrak egin zituen arinduraz, eta izeba Cissiek ere malko artean oihu egin zuen:

— Eraman ditzala zaharrak eta salba gazteak! Ez dut Materrarengatik negarrik egingo, Yvette salbatu bada!

Eta iturria bezala negar egiten zuen.

Erretoretzatik bost miliatara Papple Highdalen zegoen urtegi handia bat-batean lehertu izanak sortu zuen uholdea. Geroago jakin zen antzinako meatze-zulo bat, agian erromatarra ere izan zitekeena, inork susmatzen ez zuela, inork pentsatu ere egiten ez zuela urtegiaren dikearen azpian zegoena, erori egin zela, dike guztia azpianez. Horregatik etorri zen Papple, azken egun hartan, hain misteriozki hazia. Eta gero dikea lehertu zen.

Erretorea eta bi neskak Framleytarrenean geratu ziren, beste etxe bat aurkitu bitartean. Yvette ez zen izan amonaren hiletan, Ohean zirauen.

Bere istorioa kontatzerakoan, soilik kontatu zuen ijitoak portxeraino eramane zuela, eta uretatik irten eta eskaileretara arrastatu zela. Bazekiten ijitoa onik zela: hala esan zuen ijito zaharrak, Led Lionera zaldia eta karroaren bila joan zenean.

Yvettek ez zuen gauza handirik esaten. Ez zuen garbitasunik ematen, nahasturik zegoen, ematen zuen ez zela ia ezertaz gogoratzen. Baina horrelakoxea zen hura.

Bob Framley izan zen esan zuena:

— Badakizue zer, pentsatzen dut ijito horrek domina merezi duela.

Familia guztiari zirrara eragin zion.

— Eskerrak eman behar genizkioke! —esan zuen Lucillek.

Erretorea bera joan zen Bobekin autoan. Baina harrobia abandonaturik zegoen. Kanpamendua jaso eta joanda ziren ijitoak, inork ez zekien nora.

Eta Yvettek, ohean etzanda, intzirika zuen bihotza: O! Maite dut! Maite dut! Maite dut! Harengatiko atsekabeak abailduta zeukan. Baina zentzu praktikoan, bera ere etsipena hartuta zegoen ijitoaren desagerpenaz. Yvetteren bihotz gazteak bazekien hori zela zentzuzkoena.

Baina amonaren hiletaren ondoren, gutuntxo bat jaso zuen, leku ezezagun batetik igorria.

«Andereño maitea, ikusi dut periodikoan ondo zarela pulunpaldiaren ondoren, ni ere ondo

naizen bezala. Ikustea espero zaitut berriz ere egunen batean, beharbada Tideswellgo ganadufferian, edo beharbada alde horretara berriz joaten bagara. Egun hartan adio esatera joan nintzen, eta esan gabe gelditu; beno, urak ez zuen astirik eman, baina esperantzarekin bizi naiz. Zure zerbitzari leial Joe Boswell.»

Eta orduantxe konturatu zen Yvette hark ere izena bazuela.